

Dokumentazioa eta ondare bibliografikoaren komunikazioa

Documentación y comunicación del patrimonio bibliográfico

Teresa Agirreazaldegí Berriozabal
(koord./coord.)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

**Dokumentazioa eta
ondare bibliografikoaren
komunikazioa**

*Documentación y comunicación
del patrimonio bibliográfico*

**Dokumentazioa eta
ondare bibliografikoaren
komunikazioa**

*Documentación y comunicación
del patrimonio bibliográfico*

Teresa Agirreazaldegui Berriozabal
(koord./coord.)

eman la zabal azuz



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-584-6

Depósito legal/Lege gordailua: BI - 3.221-2011

Fotocomposición/Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Impresión/Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Aurkibidea/Índice

Aurkezpena	9
Presentación	13
I. Biblioteka Nazionalaren ametsa (El sueño de la Biblioteca Nacional) <i>Joan Mari Torrealdai</i>	17
II. La Biblioteca de Catalunya, una biblioteca abierta, fiable y útil a la sociedad (Kataluniako Liburutegia, liburutegi irekia, fidagarria eta gizartearentzat onuragarria) <i>Dolors Lamarca</i>	39
III. Armiarma.com: Literaturaren sarea (Armiarma.com: Portal de Literatura vasca) <i>Mikel Elorza</i>	61
IV. GureGipuzkoa.net: Atzoko eta gaurko Gipuzkoa iruditan (GureGipuzkoa.net: Gipuzkoa de ayer y hoy en imágenes) <i>Xabier Eskisabel Sampedro</i>	71
V. Badok.info: Euskal kantagintzaren ataria (Badok.info: Portal de la canción y música vasca) <i>Jon Eskisabel</i>	85
VI. www.ahotsak.com: Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea. Bilketa, katalogazioa eta hedapena (Ahotsak.com: Patrimonio oral y dialectológico vasco. Recopilación, catalogación y difusión) <i>Asier Sarasua Aranberri</i>	93

VII. La edición digital de <i>La Vanguardia</i> y el uso de la memoria (<i>La Vanguardia</i> -ren edizio digitala eta memoriaren erabilpena) <i>Ismael Nafría</i>	103
VIII. El Servicio de Documentación de la Cadena Ser: un valor añadido a la antena (Ser Kateko Dokumentazio zerbitzua, balio erantsia antenarako) <i>Ana Martínez Concejo</i>	127
IX. Komunikabideetako informazio dokumentalaren eskaintza (Oferta de información documental en los medios de comunicación) <i>Alazne Aiestaran, Teresa Agirreazaldegí, Idoia Camacho, Carmen Peñafiel</i> <i>eta Milagros Ronco</i>	141
X. <i>La Jungla sonora</i> irratiko musika saioaren dokumentazioaren iturriak eta baliabideak (1989-2010) (Fuentes y recursos documentales del programa musical de radio <i>La jungla sonora</i> , 1989-2010) <i>Joseba Martín</i>	147
XI. La documentación al servicio de la creación audiovisual: guión y realización del documental <i>El secreto de Urdaneta</i> (Dokumentazioa sormenaren alde: <i>Urdanetaren sekretua</i> dokumentalaren gidoia eta osaketa) <i>Mikel Urretavizcaya Hidalgo</i>	163
XII. <i>Semantic tags</i> : Folksonomiak hobetzeko proposamena (<i>Semantic tags</i> : Propuesta para la mejora de las folksonomías) <i>Egoitz González Valderrama</i>	173

Aurkezpena

Zergatik aukeratu dugu *Dokumentazioa eta ondare bibliografikoaren komunikazioa* izenburutzat? Ondare bibliografikoari buruzko gaia ez dela modernoa pentsa dezake baten batek, ez datorrela bat Internetek margotzen digun unibertso digital, multimedia eta elkarri lotuarekin. Hurrengo orriek erakutsiko diote, ordea, ideia horren okerra. *Bibliografiko* hitzak aspaldi gainditu zituen paperaren eta liburuaren mugak; eta Dokumentazioa izaten ari den garapena eta dituen erronka berrienak ezagutzeko balioko digu liburu honek. Ehun urte baino gehiago ditu Dokumentazioaren diziplinak —informazio eta jakintzaren komunikazio beharrei erantzuteko sortu zen, eta unibertsitate, ikerketa zentro, enpresa eta erakundeetan garatu da— bere baitan darama, ezinbestean, egokitzapen motorra, beti azken garapen teknologikoez baliatuz behar zahar eta berrietara egokitzeko. Orrialde haueetan teknologiaz hitz egiten da, ondareaz hitz egiten da eta, batik bat, komunikazioari buruz, hau da, Dokumentazioaren helburuak betetzeko sortutako egitura, ekoizpen eta tresnei buruz.

Biblioteca Nazionale gaiarekin zabaltzen dugu liburua. Herrialde batentzat lehen mailako instituzio da hori, balio sinboliko handia du, eta premiazko aitzindari lana betetzen du herri baten kultura eta ondarea zabaltzeko eta indartzeko. Biblioteca Nazionale beharrezkoa dela Informazioaren eta Jakintzaren gizarteak dakartzan erronka berriei eta globalizazioaren enbidoari aurre egiteko ulertu dute herri askok, eta berriro eta indartu dituzte zituzten erakundeak, bazuetan, ehunaka urtekoak. *Biblioteca Nazionalearen ametsa* lehenengo kapituluari, Euskal Herrian lehenengo bibliografoen lana egin zenetik (1833) Eusko Jaurlaritzak Koldo Mitxelena Euskadiko Liburutegi izendatu arteko (2007) ibilbide luzean izan diren aldarrikapen eta urratsak kontatzen dizkigu Joan Mari Torrealdai euskal bibliografo, kazetari eta euskaltzainak. Baita Eusko Pizkundeko bibliografoen saioak, Felix Landaburuk eta Ramon Sotak Bizkaiko Aldunditik

bultzaturikoak, eta Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarrean, Oñatin, Tomas Etxebarriak egindako proposamena ere. Frankismo garaian Jon Bilbaok eta beste hainbatek egindako bidea erakusten du, baita aginte autonomikoan Biblioteka Nazionalaren inguruan agertu diren proposamenak ere, besteak beste, Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiaren aldarrikapena. Bide luze horretan izandako aukerak kontatzeaz gain, Biblioteka Nazionalaren beharrea eta garrantzian ere sakontzen du Joan Mari Torrealdaik.

Gaur egun Biblioteka Nazionalaren garrantziaz jabetzeko oso argigarria egingo zaigu bigarren kapitulua, non Kataluniako Liburutegi Nazionalako zuzendari Dolors Lamarca erakunde horren nondiknorakoak azaltzen dituen. Zerbitzu bokazioa aldarrikatzen du txostenaren titulutik bertatik: *Kataluniako Liburutegia, liburutegi irekia, fidagarria eta gizartearentzat onuragarria*. Kataluniako Liburutegia 1907an sortu zen, Kataluniar Ikasketen Erakundeko liburutegi gisa (Institut d'Estudis Catalans), hainbat politikari eta intelektualen bultzada, kezka eta ikuspegiari esker. Ikerkuntza bultzatzea eta sakabanaturik edota galtzeko arriskuan zegoen ondare bibliografiko katalana berreskuratzea zen asmoa. 1914an zabaldu zuten publikoarentzat. Gaur egun, liburutegiaren ondarea IX. eta XXI. mendeen arteko hiru milioi dokumentu inguruk osatzen dute, zeinak era guztietako euskarrietan erregistraturik dauden, pergaminoetatik hasita dokumentu digitaletaraino. Zentro irekia da, teknologia berriak bete-betean gehitu dituen, Kataluniako ondare kulturala jaso, mantendu, babestu eta herritar guztien eskura jartzeko. Txostenak liburutegiak aurrera daramatzen egitasmo garrantzitsuenak aipatzen ditu; horietako batzuk beste erakunde batzuekin elkarlanean egiten ditu.

Hirugarren kapituluan, *Armiarma.com: Literaturaren sarea* kapituluan, Mikel Elorzak euskarazko egitasmo aitzindari hori aurkezten digu. Literatura sarea eta literaturaren sarea sortzeko asmoz jaio zen Armiarma Proiektua. Euskarazko literatura, euskaraz sortutakoa eta euskarari ekarritakoa biltzen du zenbait gunetan, eta gune horien artean errazago ibiltzeko zubiak eskaintzen ditu. Testuak, egileak, komentarioak, kritikak, oharrak, azterketak, literaturaren historia... elkartzen ditu, elementu horien artean dauden loturak eta sinergiak agerian utziz.

Laugarren kapituluan, *GureGipuzkoa.net: Atzoko eta gaurko Gipuzkoa iruditant*, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara Departamentuak Foru Aldundiak berak kudeatzen dituen argazki edukiak herritarrekin partekatuzeko helburua duen egitasmoa azaltzen da. Hasieran, Indalecio Ojanguren eta Sigfrido Koch argazkilarien bildumak jarri zituzten. Beranduago, zenbait akordioaren bitartez, eta digitalizatzeko eta katalogatzeko lanetan aurrera egin ahala, Juan San Martin bilduma, Thomas bilduma, Sánchez Funtsa, Jesús Elósegui bilduma eta Kutxaren Fototekakoak ari dira sareratzten. Argazkiek *Creative Commons* lizentzia daukate. Horrez gain, erabiltzaileek beraien edukiak ere sareaan jarri ahal izatea da gunearen egin-kizun nagusietako bat, denen artean Gipuzkoaren iraganeko eta oraingo irudi bizia sor dezagun.

Bosgarren kapituluan, Jon Eskisabel-ek *Badok.info euskal kantagintzaren ataria* aurkezten digu. Webgune horrek, 60ko hamarkadatik abiatuta, azken 40 urteotan euskaraz sortutako ekoizpenaren datu base zabala eskaintzen du. Kantuak

aurkituko ditugu bertan, baina baita biografiak, diskografiak, kantuen hitzak, argazkiak eta diskoen azalak ere.

Seigarren kapituluan, *www.ahotsak.com: Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea. Bilketa, katalogazioa eta hedapena* txostena dugu. 2003. urteaz geroztik, Badihardugu euskara elkarteak Euskal Herriko ahozko ondarea bildu eta *Ahotsak* webgunea sortu du. Horretarako, bideokamera hartu, herririk herri joan eta 70-80 urtetik gorako euskal hiztunen lekukotasunak jasotzen ari dira. Alde batetik, herri bakoitzeko hizkera eta doinua jasotzeko; beste alde batetik, galzorian dagoen ahozko euskal ondarea biltzeko, lekukoaren hitzen bitartez garai bateko Euskal Herriko sineskerak, bizimodua eta pentsaera jasotzen baitira. Asier Sarasuaren hitzetan, proiektuaren lehentasun nagusia bilketa-lana da, baina, horrez gainera, ezinbestekoak dira katalogazioa eta, ondoren, hedapena. Kapituluaren katalogazio lana azalduz, egitasmo horren helburu eta alderdi tekniko nagusiak laburbildu ditu.

Ismael Nafría La Vanguardia/Godo taldeko eduki digitalen zuzendariak *La Vanguardia-ren edizio digitala eta memoriaren erabilpena* izena duen txostena aurkeztu du zazpigarren kapituluan. Bere eskaintza informatiboa eduki propioen aldeko apustuan oinarritzen du komunikabide horrek. Horretarako, lan ildoetako bat egunkariaren 130 urteko historia biltzen duen hemerrotekaren erabilera zehatza da. Egutero, *La Vanguardia.es*-eko kazetari taldeak gaurkotatzen osatzen eta web orriaren eskaintza aberasten duten informazio historikoak berreskuratzen ditu. Gainera, Interneteko erabiltzaileak doan sar daitezke bi milioitik gora dokumentu dituen hemerroteka osora. Komunikabide horrek 2010eko martxoan bost milioi erabiltzailearen kopurua gainditu zuen.

Zortzigarren kapituluan, *SER kateko Dokumentazio zerbitzua, balio erantsia antenarako* txostena aurkezten du Ana Martínez Concejok. 1989an Ángeles Afuera kazetariak SER katearen fonoteka martxan jarri zuenetik, Dokumentazioak irratitari egin ahal dizkion ekarpenen eredu izan da zerbitzu hori. Dokumentalisten lana egutero islatzen da informatibo, programa eta kirol saioen emanaldietan, eta SER kateak, gainera, badu berezitasun bat: antenan profesional horien presentzia zuzena egon ohi da. Kronologiak, profilak eta mota guztietako dokumentazio-informazioak altxor bat gordetzen dutenen ahotsetan entzuten dira: SER katearen entzunezko artxiboa, alegia.

Bederatzigarren kapituluan, UPV/EHUko Kazetaritza saileko ikertzaile talde batek, Alazne Aiestaran, Teresa Agirreazaldegí, Idoia Camacho, Carmen Peñafiel eta Milagros Ronco irakasleek osatua, *Komunikabideetako informazio dokumentalaren eskaintza* txostena aurkezten du. Digitalizazioaren eraginez komunikabideetako dokumentazio zerbitzuak izaten ari diren eraldaketak jaso nahi ditu ikerketa horrek; profesionalen lana egiteko modu, funtzio eta tresna berriak aztertzea izan da asmoa, eta baita barrura zein kanpora begira eskaintzen diren zerbitzuak ere.

Hamargarren kapituluaren titulua «*La jungla sonora*» irratiko musika saioaren dokumentazioaren iturriak eta baliabideak (1989-2010) da. Bertan, Joseba Martín Radio Euskadi-ko *La jungla sonora* saioko zuzendari eta UPV/EHUko Kazetaritza saileko irakaslearen esanetan hogeitau urteko ibilbidea duen saio horren arrakasta,

besteak beste, informazio eta baliabide dokumental anitzen kontsultan eta erabilera argian datza.

Dokumentazioa sormenaren alde: «Urdanetaren sekretua» dokumentalaren gidoia eta osaketa da hamaikagarren kapituluaren titulua. Txosten horretan Mikel Urretavizcaya dokumentalaren zuzendari eta ETBko egitasmo berrien buruak kontatzen digu Andrés de Urdaneta nabigatzailearen inguruko dokumentazio ikerketak nola egin zituzten eta narrazioan fikziozko elementuak nola uztartu zituzten. Nabigatzaile ospetsuaren jaiotzaren 500. urteurrena zela eta, Ordiziako Udalak sustatu zuen geroztik hainbat sari jaso zituen dokumental hau.

Liburua bukatzeko, hamabigarren kapituluan, Egoitz Gonzalez Valderrama-k *Semantic tags: Folksonomiak hobetzeko proposamena* lana plazaratzen du. Eskuragarri dauden teknologiak aztertu ondoren —RDFa, Dublin Core eta mikroformatuak—, eta markatzaile sozialak definitzeko eta adierazteko gaur egun erabiltzen den kodea ikusi eta gero, etiketatze bidez ohiko folksonomien hobekuntza proposatzen du egileak.

Presentación

¿Por qué hemos elegido como título *Documentación y comunicación del patrimonio bibliográfico*? Alguno puede pensar que el patrimonio bibliográfico no es un tema moderno; que no concuerda con el universo digital, multimedia y relacionado que nos dibuja Internet. Las siguientes páginas le mostrarán que es una idea equivocada. El término *Bibliográfico* hace tiempo superó las fronteras del papel y del libro; y la obra nos servirá para conocer la evolución que está experimentando la *Documentación* y sus retos más actuales. Esta disciplina con más de cien años —que fue creada para responder a necesidades de información y conocimiento, y que se ha desarrollado en universidades, centros de investigación, empresas y organizaciones—, lleva en sí misma, como no podía ser de otro modo, el motor de la adaptación para, sirviéndose siempre del último desarrollo tecnológico, responder a las antiguas y nuevas necesidades. En estas páginas se habla de tecnología, se habla de patrimonio bibliográfico y, sobre todo, de habla de comunicación, esto es, de estructuras, productos e instrumentos creados para cumplir los objetivos de la Documentación.

El libro comienza con el tema de la Biblioteca Nacional. Se trata de una institución de primer orden para una comunidad; tiene un gran valor simbólico y cumple un papel de liderazgo fundamental para el fortalecimiento y la difusión de la cultura y el patrimonio de una nación. Muchos pueblos han comprendido que la Biblioteca Nacional es crucial para hacer frente a los nuevos retos de la sociedad de la información y del conocimiento, así como a los envites de la globalización, y han renovando y reforzado estos organismos, a veces centenarios. En el primer capítulo, *El sueño de la Biblioteca Vasca*, el bibliógrafo, periodista y académico de la lengua vasca Joan Mari Torrealdai cuenta el largo camino recorrido en Euskal Herria, desde que en 1833 se llevaran a cabo los primeros trabajos bibliógrafos hasta que en 2007 el Gobierno Vasco nombrara la Biblioteca de Euskadi

Koldo Michelena. En este recorrido histórico, además del trabajo de de los bibliógrafos del Renacimiento vasco, señala el impulso dado por Felix Landaburu y Ramon de la Sota desde la Diputación de Bizkaia, y la propuesta realizada por Tomas Etxebarria en el I.º Congreso de La Sociedad de Estudios Vascos Eusko Ikaskuntza, en Oñati. Se muestra el camino realizado en época de Franco por Jon Bilbao y otros, y las propuestas en torno a la Biblioteca Nacional que se han producido bajo gobierno autonómico, entre ellas la reivindicación del Seminario de Biblioteconomía Joana Albret. Además de contar las diferentes oportunidades originadas en ese largo camino, Joan Mari Torrealdai profundiza en la necesidad e importancia de la Biblioteca Nacional.

Para comprender cuál es el papel de la Biblioteca Nacional hoy en día, resulta sumamente esclarecedor el segundo capítulo de la obra, donde Dolors Lamarca, Directora de la Biblioteca Nacional de Catalunya expone los pormenores del organismo que dirige. Desde el mismo título, *La Biblioteca de Catalunya, una biblioteca abierta, fiable y útil a la sociedad*, se proclama la vocación de servicio de esta entidad. La Biblioteca de Catalunya se creó en 1907, como biblioteca del Institut d'Estudis Catalans, gracias al impulso, inquietud y visión de unos políticos e intelectuales que vieron la necesidad de promover la investigación y la recuperación del patrimonio bibliográfico catalán disperso o en peligro de perderse. Se abrió al público en 1914. Hoy en día cuenta con aproximadamente tres millones de documentos, de los siglos IX al XXI, registrados en todos los soportes, desde los pergaminos a los documentos digitales. Es un centro abierto, que ha incorporado plenamente las nuevas tecnologías al servicio de la recogida, la conservación y la preservación del legado cultural catalán para ponerlo al alcance de toda la ciudadanía. El capítulo menciona los proyectos más importantes que están llevando a cabo, algunos de ellos en cooperación con otras entidades.

En el tercer capítulo, *Armiarma.com: Portal de Literatura vasca*, Mikel Elorza nos presenta este proyecto pionero que surgió con la intención de crear literatura en la red y una red de literatura. El Proyecto Armiarma aglutina en diferentes puntos la literatura vasca, creada en euskera y traída al euskera, y ofrece puentes para movernos más fácilmente entre los diferentes espacios. Reúne textos, autores, comentarios, críticas, notas, análisis, historia de la literatura... dejando a la vista las relaciones y sinergias que existen entre todos esos elementos.

En el cuarto capítulo Xabier Eskisabel Sampedro presenta *GureGipuzkoa.net: Gipuzkoa de ayer y hoy en imágenes*. Este portal desarrollado por el Departamento de Cultura y Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene como objetivo principal dar visibilidad a los contenidos fotográficos que gestiona el ente foral. En un principio, el portal ofreció las fotografías de Indalecio Ojanguren y Sigfrido Koch. Más tarde, a partir de acuerdos y en la medida que avanzan los trabajos de digitalización y catalogación, se han sumado las colecciones de Juan San Martin, Thomas, Sánchez, Jesús Elósegui y la colección de la Fototeca de Kutxa. Las fotografías tienen licencia *Creative Commons*. Además de todo esto, uno de los propósitos principales del portal es facilitar a los usuarios el poder subir sus propias fotografías, y crear entre todos una imagen viva del pasado y el presente de Gipuzkoa.

En el capítulo quinto, Jon Eskisabel presenta *Badok.info: Portal de la canción y música vasca*. Esta web contiene una amplia base de datos que, partiendo de la década de los 60, cubre los últimos 40 años de la producción musical en euskera. En este portal encontraremos canciones, pero también biografías, discografías, letras de las canciones, carátulas de discos, fotografías, etc.

El capítulo sexto lleva por título *www.ahotsak.com: Patrimonio oral vasco. Recogida, catalogación y difusión*. Desde el año 2003, la asociación por el euskara Badihardugu está recogiendo el patrimonio oral de Euskal Herria y lo muestra en la web *Ahotsak*. De pueblo en pueblo, están recopilando con una videocámara los testimonios de las personas vascoparlantes mayores de 70-80 años. Se trata de recoger, por un lado, la forma y la entonación del dialecto de cada pueblo; y, por otro lado, de reunir el patrimonio oral vasco que corre peligro de perderse, creencias, modo de vida y pensamiento del País Vasco de otra época a través de las palabras de los testigos. En palabras de Asier Sarasua, coordinador del proyecto, la prioridad está en el trabajo de recogida, pero, además, son inevitables la catalogación y después la difusión. En este capítulo se resumen los objetivos y los aspectos técnicos principales del proyecto, explicando el trabajo de catalogación.

Ismael Nafría, director de contenidos digitales de La Vanguardia/Grupo Godó, presenta en el capítulo séptimo *La edición digital de La Vanguardia y el uso de la memoria*. Este medio de comunicación, que superó por primera vez el mes de marzo de 2010 los cinco millones de usuarios únicos, basa su oferta informativa en varios pilares, entre ellos, la apuesta por ofrecer contenidos propios. En ese sentido, una de las líneas de trabajo es el uso de su hemeroteca, que contiene 130 años de historia del diario. Así, cada día, el equipo periodístico de *La Vanguardia.es* recupera informaciones históricas que complementan la actualidad y que enriquecen la oferta de esta web. Además, los usuarios de Internet pueden acceder gratuitamente a los más de dos millones de documentos que contiene la hemeroteca.

En el capítulo octavo, Ana Martínez Concejo presenta *El Servicio de Documentación de la Cadena Ser, un valor añadido a la antena*. Desde que en 1989 la periodista Ángeles Afuera pusiera en marcha la Fonoteca de la Cadena SER, este servicio ha sido ejemplo de lo que la Documentación puede aportar a la radio. El trabajo de los documentalistas se refleja a diario en la emisión de informativos, programas y deportes, con una particularidad añadida en el caso de la SER: la presencia en antena de estos profesionales. Cronologías, perfiles y todo tipo de piezas de Documentación suenan en las voces de quienes además custodian un tesoro: el archivo sonoro de la Cadena SER.

En el capítulo noveno, un grupo de investigación del Departamento de Periodismo de la UPV, compuesto por las profesoras Alazne Aiestaran, Teresa Agirreazaldegi, Idoia Camacho, Carmen Peñafiel y Milagros Ronco, presenta el trabajo *Oferta de información documental en los medios de comunicación*. La investigación pretende recoger los cambios que la digitalización está produciendo en los servicios de documentación de los medios de comunicación. El objetivo de la in-

vestigación será analizar las nuevas formas de trabajo de los profesionales, las nuevas funciones e instrumentos empleados, así como los servicios ofrecidos, tanto internos como externos.

El décimo capítulo tiene por título *Fuentes y recursos documentales del programa musical de radio «La jungla sonora» (1989-2010)*. Joseba Martín, director del programa *La jungla sonora* de Radio Euskadi y profesor del Departamento de Periodismo de la UPV/EHU, presenta una gran variedad de fuentes y recursos documentales, muchos de los cuales están accesibles a través de Internet. La utilización inteligente de estos recursos ha contribuido al éxito de un programa con más de veinte años de historia.

La Documentación al servicio de la creación audiovisual: guión y realización del documental «El secreto de Urdaneta» es el título del undécimo capítulo. Mikel Urretavizcaya, director del documental y responsable de nuevos proyectos en ETB, cuenta cómo realizaron las investigaciones documentales sobre el navegante Andrés de Urdaneta y cómo fusionaron en la narración los elementos de ficción. Esta producción, ganadora de varios premios, fue promovida por el Ayuntamiento de Ordizia con motivo del 500 aniversario del nacimiento del gran navegante.

Para terminar, en el duodécimo capítulo Egoitz González Valderrama presenta el trabajo *Sematags: Propuesta para la mejora de las Folksonomías*. Tras haber examinado las tecnologías actuales —RDF, Dublin Core y microformatos—, y el código utilizado para definir y notificar los marcadores sociales, el autor propone mejorar las habituales folksonomías por medio de etiquetado.

I

Biblioteka Nazionalaren ametsa

Joan Mari Torrealdai

Bibliografoa, kazetaria eta Euskaltzaina/Bibliógrafo, periodista y Académico de la Lengua Vasca

Laburpena: 1833an Jose Francisco Aizkibelek bere Bibliografía idatzi zue-
netik Eusko Jaurlaritzak Koldo Mitxelena Euskadiko Liburutegi izendatu zue-
nera 175 urte igaro dira. Bide luzean hainbat aldarrikapen, proposamen, ahalegin,
urrats eta saio plazaratu dira. Horietako batzuk aipatuko ditugu, hala nola, Eusko
Pizkundeko bibliografoen saioak, Felix Landaburuk eta Ramon Sotak Bizkaiko
Aldunditik bultzaturikoa, Eusko Ikaskuntzaren lehen Biltzarrean Oñatin Tomas
Etxebarriaren proposamena. Edota frankismoaldian Jon Bilbao eta beste hainba-
tek egindako bidea. Eta noski, aginte autonomikoan Biblioteka Nazionalaren in-
guruan agertu diren proposamenak eta herri aginteen erabakiak. Bide luzean aur-
kitu ditugun mugarrri nagusiak azaltzeaz gainera nabarmendu diren hainbat gai
ere errebasatuko ditugu: adibidez, Biblioteka zertarako?, zer da Biblioteka «Na-
zionala»? , fisikoa ala birtuala behar du?, zentrala ala lurraldez zein gaiez parteka-
tua?

Resumen: Desde que Jose Francisco Aizkibel escribiera en 1833 su biblio-
grafía hasta que el Gobierno Vasco nombrara a Koldo Mitxelena la Biblioteca
Vasca han pasado 175 años. En ese largo camino, ha habido mucho esfuerzo y
se han hecho públicas muchas propuestas y reivindicaciones. Mencionaremos al-
gunas de estas iniciativas, como los ensayos de bibliógrafos del Renacimiento
vasco, impulsados por Felix Landaburu y Ramon Sota desde la Diputación de
Bizkaia; comentaremos la propuesta hecha por Tomas Etxebarria en la primera
reunión de la Sociedad de Estudios Vascos en Oñati. O el camino recorrido por
Jon Bilbao y muchos otros durante la época del franquismo. Y, por supuesto, ha-
blaremos de las propuestas hechas por las autoridades autonómicas y las deci-
siones tomadas acerca de la Biblioteca Nacional. Además de explicar los hitos
más importantes que han marcado este camino, también repasaremos otros temas
como por ejemplo: ¿para qué la Biblioteca?, ¿qué es una Biblioteca Nacional?,
¿debe ser física o virtual?, ¿central o repartida en los diferentes territorios o te-
mas?

0. SARRERA GISA OHAR BI

0.1. *Bibliografo gisa agertzen naiz programan.* Lotsa ere ematen dit tituluak.
Egia da bibliografía lanik egin dudala, urte askotan egin ere. Baina ni ez naiz bi-
bliografoa, ez behintzat bibliografo profesionala. Tarteka naiz bibliografo, tarteka
naiz kultur animatzaile, tarteka naiz kazetari edo soziologo. Beti edo ia beti libu-
ruaren inguruan, edota idatziaren esparruan arituz, hori bai.

Zer lan egin dudan ulertzeko nola hasi nintzen azaldu behar nuke. Esan dezadan bakarrik hutsune bat betetzearren hasi nintzela, eta behin-behineko. 70eko hamarkadan. Parisen egiten ari nintzen ikasketetarako behar nuen informazioa, inon ez zegoena: euskal idazle berriek zertaz idazten zuten. Lantzen zituzten gaien bidez islatu nahi nuen euskal kultura, Soziologiako lizentziaturarako. Hortik atera zen gero *Euskal idazleak, gaur*.

Geroztik urtero-urtero segitu dut bibliografia bilduz, 34 urtez. «Euskara libro ikusi arte ez dut moztuko bizarra», zioen olerkariak. Eta nik esan izan banu bezala: «harik eta euskal bibliografia erakundeek bere gain hartu arte ez dut utziko nire lana». Arian-arian, 50.000 fitxa bibliografikotik gora bildu ditut, eta argitara eman, betiere euskarazko liburuena.

Hasieran ez profesionala eta ez bokazionala zen lan hartaz, hitz erdi bat erantsi nahi dut. Historia bertsua bizi izan zuen gure bibliografoetan bibliografoena den Jon Bilbaok. Bere ikasketetarako material bila hasi zen Ameriketan, eta gero han, hemen eta mundu osoan bibliografia egiten jarraitu zuen. Bere unean ikusiko dugu hori ere, astirik badugu.

Egin dudan lanari ez dakit orain zein balore emango zaion. Hasi nintzenean, 70-80ko hamarkada haietan, askorik ez: literatura zen orduan inportantea, ez liburuaren soziologia, ez eta katalogazioa. «Zerrendero» izendatu ninduen norbaitek.

0.2. *Hitzaldiño honek Euskaltzaindian* sartzeko egin nuen hitzaldia du oinarrian. Haren izenburua: «Bibliografiatik Bibliotekara. Esperantzari leihoa». 2009ko urriaren 31n irakurri nuen sarrera hitzaldi hark Eusko Pizkundearen erdian mamitu ziren egitasmo batzuk aztertzen zituen, ezezagunak neurri handi batean. 1914tik 1923ra gaiak bide ederra egin zuen. Izenburuak berak (Bibliografiatik Bibliotekara) Ramon Sota 1917an Bizkaiko Aldundiko nagusiaren ikuspegia eta irmotasuna islatu nahi zituen. Hala zioen bere txostenean: «La formación de esta gran biblioteca había de exigir, el que se realizase el proyecto varias veces iniciado de dotar a los estudios del país de una Bibliografía vasca perfecta y acabada».

Gaur egun, iruditzen zait, ikuspegia alderantzizkoa da: Bibliotekak ekarri behar du Bibliografia.

Edozein modutan ere, Liburutegi Nazionalaren gaian ere ni ez naiz aditua. Beti izan dut kezka, hori bai, baina landu Euskaltzaindirako bakarrik landu nuen, eta era mugatuan. Gai hau, hortaz, ez dut ezagutzen neure ikerketa propioz, ez bibliografia historikoari dagokiona, ez eta bibliotekagintzari dagokiona.

1. PIZKUNDE AURREKOAZ OHARRAK

Aipa dezagun gaia bi isurietan: bibliografia, eta gero biblioteka.

1.1. Lehen bibliografoak

Zein da gure lehen bibliografoa? 1991n Jose Antonio Aranak idatzi zuen: «Larramendi izango da, behar bada, euskarari buruzko gure lehen bibliografoa». Oraintsu Leopoldo Zugazak idatzi du Larramendi eta Zabala direla lehenengo bibliografo eskaldunak.

- Larramendik 1745ean argitara eman zuen *Diccionario Trilingüe* liburua eta hitzaurrean hamasei euskal liburu deskribatzen ditu, hamasei.
- Juan Mateo Zabalak lan hori ezagutu zuen eta ondoren argitaraturiko hiru aldiz gehiago zerrendatu eta deskribatu zituen, guztira 55, izenburu honekin: *Noticia de las Obras Vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi*.
- Hurrenkera honetan hirugarren bibliografoa litzateke Jose Francisco Aizkibel (1798-1864), nahiz eta oraintsu arte ezezaguna, bibliografiari buruzko bere ekarpena ez argitaratzeaz gainera ezagutu ere ez zelako egiten oraintsu arte.
Aizkibeli liburu biltzaile izateak eman omen zion izena: bere liburutegia 1.459 obraz osatua zen 3.477 liburukitan. Gipuzkoako Diputazioaren liburutegiaren abiapuntuan dago Aizkibelen liburutegia, gaur egungo Koldo Mitxelena Kulturunean dagoena. Bibliografoa ere bazen. Idatzita utzi zuen bostehun bat orrialdeko liburu bat: *De la bibliografía y literatura bascongada y de sus diferentes dialectos*. Sarrera luze bat du, eta bukaeran antologia. Villasantek dio 200 inguru direla, 179 kontatu ditugu guk. Obrak zaharretik berrienera sailkatzen ditu, iruzkin, gertakari eta bestelako zertzeladez hornituak.
- Bada beste bibliografo bat, Aizkibel bezala azkoitiarra eta ezezaguna bere bibliografia lana eskuizkribu gisa gelditu zelako, argitara eman gabe: Jose Ignacio Arana. «Ensayo de una Bibliografía Bascongada» da eskuizkribu hori, 436 orrialde dituena. 1.363 fitxa bibliografiko ditu, aldian-aldian egindakoa da eta ez Aranak berak bakarrik burutua, ikusten denez.

1.2. Lehen euskal bibliotekak

Lehen euskal liburutegiak pribatuak dira. Euskal gaiekin osaturiko lehen bildumak bibliofiloen etxeetan aurkitzen ditugu. Beroriei zor diegu, gainera, ondare bibliografikoa gorde izana.

- Aspaldikoena agian Aizkibelena da. Jose Artetxek 1959an dioskunez, Juan Jose Munita Gipuzkoako Diputazioaren artxibozainak honela katalogatu zuen Aizkibelen liburutegia:

... consta de 1.459 obras en 3.477 volúmenes que se dividen en 23 secciones diferentes que abarcan desde la Agricultura a la Lingüística, pasando por la Lite-

ratura, la Botánica, la Historia y la Geografía, las Ciencias Físicas y Exactas, la Medicina, las Bellas Artes, Educación, Derecho, Industria y Comercio, Artes y Oficios.

- Honen garaikide dugu Jean-Henri Burgaud des Marets (1806-1873), filologo frantziarra. Euskararen eraginez hurbildu zen euskal kulturara, eta bere heriotzan egin zen bibliotekako katalogoan, hizkuntzaka banatutako 10 sailetan 2.275 liburutik 293 «Langue basque» arloari dagozkio. Horietariko gehienak Londresko British Library-n gordetzen dira egun.
- Giro erromantikoari esker, euskarak erakutsi duen tiradizoagatik, bibliofi-loek liburutegitxoak egitera behartuta ikusi zuten bere burua lanerako. Horrela: Bonaparte printzea, W.J. van Eys, E.S. Dodgson, edo Vinson. Lacombe ere aberastu zuen berea, agian Euskaltzaindiarentzako bilduz Azkueren gomendioz. Julio Urkixo da beste bat. Honek 1917an aitortzen dio Odon Apraizi berak dauzkan 10.000 liburuetatik 4.000 bat euskal bibliografian sartzekoak lirajtekeela.
- Bi arrazoi tarteko osatu zituzten euren liburutegiak: bibliofilo zirelako, eta biblioteka publikorik ez egotean lanerako behar zituzten materialak erosi beste erremediorik ez zutelako.
- Lehen liburutegi instituzionalak, erakunde publiko zein pribatuetakoak, denetarikoa ziren gaien aldetik, ez bereziki euskaldunak. Are gehiago: euskal tematikak ez zuen bere txokorik ere. Liburutegi berezituak XIX. mendearen bukaera aldera eskatzen dira. Eta geroago bakarrik, euskal biblioteka publikoa. Oker ez banago, XX. mendearen bigarren hamarkadan agertzen da proposamen hori lehen aldiz.
- Laburbilduz, euskal gaiaren eboluzio lerroa liburutegietan honela ageri zaigu: 1) aurrena sakabanatua dago, 2) gero txoko batean, eta 3) loraldian eskatzen dena da euskal gaiarekin liburutegi publikoa egitea, hau da, euskal biblioteka, biblioteka nazionala, edo Tomas Etxebarriak zioen liburutegi etnikoa.

2. EUSKO PIZKUNDEAN BI LABEALDI

Eusko Pizkundera zer den? 1876tik 1936ra doan aldia. Jakina da 1876an Foruak desegitean sekulako astinaldi kulturala gertatzen dela Euskal Herrian. Mugimendu horrek hainbat ezaugarri ditu: identitate bilaketa indartzen da; ezaugarri propioak lantzen dira: historia, kultura, hizkuntza, folklorea; hiriburuetan gertatzen da; laikoek gidatzen eta osatzen dute; elkartetan antolatzen dira; aldizkarien bidez kanporatzen dute gogoeta eta ikerlana.

Bi mende, bi labealdi bereiz genitzake Eusko Pizkunderan.

2.1. Lehen labealdia

XIX. mendearen azken laurdenean abiatzen da mugimendua bera. Liburuari dagokionez hiru bibliografo aipatzen dira beti: Angel Allendesalazar, Julien Vinson eta Genaro Sorarrain.

- Sorarrainen lana ez da horrenbeste famatzen, baina beste biena bai. Allendesalazar generalista da; Vinsonen lana, linguistikoa.
- Angel Allendesalazarren *Biblioteca del bascófilo* da Jose Antonio Aranaren iritzian «lehen euskal bibliografia sistematikoa». Rubio Urkiak dio: «con la publicación de la *Biblioteca del bascófilo* en 1887 se sientan las bases de los estudios bibliográficos vascos, propiamente dichos». Horixe da liburu horren balio erantsia.

65 orriko sarrera luzea idatzi zuen autoreak. Ideia hauek azpimarratuko nituzke:

- Euskal Bibliotekaren eratzea proposatzen du.
- Lau katalogo nagusitan banatuko litzateke Biblioteka: 1) euskal gaiak; 2) euskal autoreak; 3) euskarazko lanak; 4) euskal probintzietan inprimatuak.

Eta nola lortu helburu hori? Orain arte deus gutxi egin dutela erakundeek esan ondoren, desio hau azaltzen du:

[que] las Diputaciones de las cuatro Provincias, poniéndose de acuerdo, formaran una Biblioteca en que se reunieran todas las obras bascongadas por su asunto, por su autor, por su lengua o por el lugar en que fueron impresas.

Genaro Sorarrainen *Catálogo general cronológico de obras euskaras*, 1891koa, hasieran bere erabilera pribaturako aurkibidea zen, liburutegian zituen obren aurkibidea. Allendesalazar eta Vinsonen lanak erantsi zituen gero. Eta horrela hartu zuen katalogo itxura eta argitara ematera ausartu zen. Inprimatuak bakarrik aintzat hartuz, eskuizkribuak ez ditu jasotzen.

- Julien Vinsonen *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, bere osagarri eta eranskinekin 1891 eta 1898 artean argitara emana, izenburuak dioen bezala euskarazko obren bibliografia da. Ez nolana hiko; egia esan, Rubio Urkiaren ustetan, «representa el impulso definitivo a los estudios bibliográficos de la lengua vasca, y a la difusión de la creación literaria en vascuence».

2.2. Bigarren labealdia

XX. mendearen bigarren hamarkadan loratzen da bai bibliografiaren, bai bibliotekaren kontzientzia.

Ezaugarriak: 1) haustura

Kontzientzia hartze berri horretan, aurrekoari buruzko ikuspegi negatiboa nabarmendu liteke, nik uste iraultza-garaietan («iraultza» komatxoan artean) gertatzen den bezala: ordura artekoa deus gutxi da beti, abiapuntu berri bat planteatzen da. Gure gaiari eta garaiari dagokionez, harrizterainokoa da zein den berritasunaren kontzientzia. Halaxe mintzo dira: Quadra Salcedo, Ramon Sota eta Egileor bere mozioan, Odon Apraiz, eta Tomas Etxebarria bera ere bai.

Hona bi lagintxo:

— Quadra Salcedok Odon Apraizi (1915-12-02):

Sobre ello [Euskal Bibliografia] no hay nada hecho porque lo de Allendesalazar y lo de Vinson es fragmentario y de un criterio pobre.

— Ramon Sota eta Egileorren mozioa (1917-09-04):

[Bibliografian] hasta ahora lo que se ha hecho es casi nada y para la nueva labor es necesario comenzar con planes y orientaciones modernas.

Las pequeñas Bibliografías de Allendesalazar, Vinson y Sorarrain nada resuelven, pudiendo tan solo considerarse como ensayos y balbucientes palabras de una obra magna que está por realizarse.

Ezaugarriak: 2) herri baten bibliografia

Eragileen artean denetarik badago ere, bibliofiloak ere bai, badute ezaugarri bat elkarrekin: herri edo kultura baten alde ari dira, kontzienteki. Bibliografiaren bidez herri baten memoria berreskuratu nahi dute; Euskal Herriaren ondarea jagon nahi dute. Hori bai, baina xedeak ez dira hor agortzen, gero ikusiko dugunez: bibliografia beharrezkotzat dute errebindikatzen duten unibertsitaterako, zientziarako; kanpokoei euskal kultura «erakusteko» nahi dute; maiseatzaileei «euskal egia» argitzeko ere bai. Dimentsio kulturala du bibliografiagintzak. Kulturala, eta politikoa.

Zerikusi gutxi dute Errenazimendu edo Pizkundeko eragile hauek erromantizismo garaian euskal mundura hurbildu ziren kanpotarrekin. Eraginkortasuna biltzen dute, gauzak egitea, proiektuak mamitzea. Esan al daiteke erromantikoak «afektiboak» zirela eta hauek «efektiboak», positibistak?

Tartean ez dira faltako liburuzale huts edo bibliofilo soilak, bai, baina gehiago dira bestelako profilak: irakasle, kultura zale, euskaltzale, eragile, boluntario, eta... politikariak.

Bai Quadrak eta bai Apraizek landa lana planteatzen dutenean, hau da, informazioa jasotzea, ez dute soilki profesionalen edo erudituen lan bezala planteatzen. Boluntarioena da, mundu osoari ematen zaio aukera parte har dezan; are gehiago: parte hartzeko eskatu egiten da publikoki.

Urte hauetan Bizkaiko Diputazioak izan duen jokamoldea guztien gainetik nabarmentzekoa da. Berari zor zaio neurri batean, ez berari bakarrik bistan da,

Euskaltzaindiaren sorrera, esate baterako. Asmatu zuen gizarteko gurariak eta asmoak, landuak edo erdi landuak, lagundu eta bultzatzen. Bibliotekaren kasuan ere jarrera aktiboa du Diputazioak, baina proiektuak ez zuen aurrera egin ahal izan Oñatin.

Ezaugarriak: 3) dokumentua, isiltasunaren aurka

Bibliografia edo biblioteca nazional guztien lehen xedea ondarea biltzea eta belaunaldi berrietara helaraztea da, memoria historikoa bermatze aldera.

Pizkundean ere hala da hori. Baina bestelako helbururik ere badute Pizkundeko bibliografoek. Euskal nortasuna babesteko eta garatzeko lanabes egokiak dira dokumentuak, ikusten denez. 1876an foruak galduta, alderdi kulturaletan oinarritzea bilatzen da, historian, folklorea, hizkuntza, gizarte eredu. Alderdi horien azterketak indar nabarmena hartzen du. Euskal nortasunaren ezaugarri propioak markatzen dira alde guztietatik. Joera hori indartu besterik ez du egingo abertzale-tasunak.

Bibliografoek aurrez aurre ikusten dutena isiltasun dokumentala da, eta hori ez denean ezjakinkeria, manipulazioa, gezurra. Euskal Herri diferentziatu izatea dago jokoan, berezitasun kulturalaren legitimitatea. Fronteko ukoari erantzun nahi diote. Azken batean konfrontazio politikoa da nagusi urte horietan. Baina bibliografoek politikoki barik kulturalki erantzun nahi diote ukoari. Atentzioa ematen du zenbateko fedea duten dokumentuan, liburuan, kulturean. Ematen du dokumentuak argitzen duen egia besterik gabe zabalduko dela, bestelako bultzadarik gabe, propaganda gabe, euskal nortasunaren aldeko argudioek bere bidea egingo luketela, arerioa konbentzitzeraino. Egunak gaua argitzen duen bezala.

Pizkundeko bibliografoa sinetsita dago dokumentuak, liburuak, kulturak, barretasuna, zentzua, bakea dakarrela garaiko gizarte tenkatuan. Dokumentuak egia dio, eta egia bere bidea egingo du. Dokumentua da, biblioteca, Salomon berria, egiazko eta gezurrezko jarrerak banatzen dituen epaile zuzena. Honelaxe zioen Tomas Etxebarriak Oñatin irakurri zuen txostenean:

Someter nuestras contiendas y diferencias al tribunal inapelable de un Salomón que decida sobre la partición o la entrega total de la criatura. Ahora bien; ese rey sabio que, difunto y todo, puede todavía dirimir nuestros pleitos, es la Biblioteca Vasca, con sus textos de lengua, sus pruebas de historia, sus aforismos de derecho, sus ejecutorias de heráldica, sus leyes de contratación, sus tratamientos de hidalguía; en una palabra, con el documento integral y vivo de nuestra existencia toda.

Bistan da Pizkundeko bibliografoak ez direla bibliofilo soil, eta bai bere herriaren garapen kulturean diharduten eragileak.

3. PIZKUNDE GARAIKO PROPOSAMENAK

3.1. Proposamenak, kulturatik

Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan gordetzen den Odon Apraizen gutunketa-
ren bidez jakin dezakegu urte hauetan garatu ziren proposamen eta proiektuen be-
rri. Gorago aipatu dugun lanean, Euskaltzaindira sartzeko egindako sarreran ale-
gia, luze eta sakon darabilt gai hau. Aipatu bakarrik egingo dut hemen.

Daukagun lehen aztarna Fernando Quadra Salcedok Odon Apraizi 1915eko
abenduan 2an zuzenduriko gutunean aurkitzen dugu. Odon ere euskal ikasketa
lanetan bazebilela Madril aldean jakinda, proiektu berri batez hitz egiten dio:

La Bibliografía Vasca (...) es punto de mayor interés si cabe. El Ateneo de
Bilbao del que soy socio tiene entre sus planes el de la formación de la Bibliogra-
fía Vasca.

Hurrengo bi urteetan gaiaren inguruan gurutzatzen dituzten gutunetan argi
ikusten da zein den Quadraren ikuspegia euskal bibliografiaz. Odon Apraizek ere
interes handia agertzen du proiektuan: «para el proyecto de Bibliografía Vasca, mi
mayor interés», esaten dio. Eta 1916ko abenduan Odon Apraizek artikulu guztiz
praktiko bat argitaratzen du *Ateneo*-n, Gasteizko Erret Ateneoaren agerkari ofizia-
lean: «La Bibliografía Vasca, una labor necesaria».

Quadrak bere aldetik jarraitzen du lanean, eta, Apraizi idazten dionean (1917-
01-04), proiektuak badu izena: «Estamos organizando en el Ateneo el *Monumenta
Bibliographica Vasca*. Se ha nombrado una comisión en la cual te incluyo a tí y
a Angel. Dime si aceptas». Eta *Idearium* aldizkarian ematen du proiektuaren be-
rri zehatza. *Idearium* berak sortu zuen, bibliografia bultzatzeko. Batzordea kultura
munduko pertsona esanguratsuekin osatu da: Francisco Uhagón (Marqués de Lau-
rencin), Julio Urkixo, Ignacio Kareaga, Luis Gonzalez Etxabarri, Pedro Aguado,
Juan Larrea, Dario Areitio, Ramon Olaskoaga, Segundo Ispizua, Tomas Etxeba-
rria, Luis Lezama-Legizamon eta Karmelo Etxegarai. Beraz, proiektu bien bultza-
tzaileak daude batzordean. Hamabi gutzira eta Apraiz anaiekin hamalau. Ez edo-
zein, gainera.

Quadrak *Idearium* aldizkarian idazten duen lanak «Una obra urgente en la cul-
tura del país» du izena, eta Odonek Gasteizko *Ateneo*-n idatzitakoari batzordearen
izenean berak ematen dion erantzuna da. Nola dagoen antolatua Euskal Bibliogra-
fiako batzordea eta metodologikoki nola lan egiten duen, azaldu nahi dio. Bi ho-
riek beren lantaldeekin ari dira, baina ez dira bakarrak. Estudios Vascos delakoaren
baitan biltzen dira beste batzuk, Apraizekin harremanetan, gainera, Euzko Gaztedi-
koak. Ez ziren Fernando Quadra Salcedoren gogokoak.

Honela adierazten diote Apraizi zertan dabilzan:

Primeramente pensamos hacer una copia de los libros que contienen Allende,
Sorarrain y Vinson, una vez hecho este trabajo haremos una revisión seria de las

revistas y periódicos de nuestra patria, aparte de la inspección de archivos, etc. Una vez hecho este trabajo y cuando la obra esté terminada pondremos el lugar en que se encuentren los libros a fin de facilitar trabajo a todos aquellos que quieran estudiar nuestro País.

Estudios Vascos 1915eko apirilaren 26an sortu zuten Arturo Campion, Federico Baraibar, Eduardo Velasco, Manuel Arriandiaga eta Luis Eleizalde jaunek. Eta 1919ko otsailean itxi egin zuten, jada Oñatin Eusko Ikaskuntza edo «Sociedad de Estudios Vascos» sortua zelako. Sortzaileen gogo zaharra berrian txertatu zen, ondasun eta guzti.

Estudios Vascos, sortzaileen asmoetan, patronimia eta toponimia aztertzekeo sortu bazuten ere, bere azterketa-eremua zabalduz joan zen. Likidatu zutenean hau zen egoera: Hego Euskal Herriko patronimiaren katalogazioa osorik egina, toponimiaz milaka txartel bilduta, euskal bibliografiako hiru mila fitxa eta bi musika jaialdi Bilbon antolatuak. Dokumentazioa Eusko Ikaskuntzak jaso zuen.

3.2. Proposamenak, politikatik

1917ko maiatzean abertzaleek hauteskundeak irabazten dituzte Bizkaiko Al-dundian eta hortik aurrera Estudios Vascos agertzen zaigu proiektuaren bultzatzaile, bibliografia eta biblioteca batera planteatuz. Bibliografia lantzeko talde bat eratu dute, eta bertan dira, Eduardo Urrutiarekin batera, Luis Gonzalez Etxabarri, Jose M. Azkarraga, Ramon Elgezabal eta Pedro Elgoibar, proiektuaz arduratuko direnak. Odon Apraiz bera ere taldekidetzat hartzen du espresuki 1917ko maiatzaren 22an Gonzalez Etxabarrik Apraizi idazten dion gutunean, eta laguntza eskatzen dio: «... para ir completando nuestra labor, deseáramos que Vd. nos enviase catálogos de librerías de segunda mano que contengan obras vascas y si le es posible, alguno de la Biblioteca Nacional».

Felix Landaburu da Apraizen hurrengo korrespontsala. Badirudi hauteskundeak irabazi eta eutsi zion lehenengoetariko proiektua hau izan zela, eta 1917ko uztailaren 31ko datako proiektua eta Bizkaiko Diputazioaren hurrengo batzarrean aurkezteko asmoa duen mozioaren kopia bidaltzen dio iritzia eskatuz, «como docto en la materia». Are gehiago: haziak lur har dezan lankidetzara eskatzen dio.

Felix Landabururen proposamena

Bizkaiko Artxiboan gordetzen den dosierreko atarian ikus dezakegu: «Objeto: Don Félix de Landáburu. Propone la creación de una biblioteca vasca». Dossier bereko aurkibidean ikus dezakegu urte bereko abuztuaren 30ean Ramon Sota eta Manuel Egileorrek beste proposamen bat aurkeztu zutela Bizkaiko Artxibo Orokorren antolakuntzarako.

1917ko San Inazio eguneko data daraman mozioaren aurkezpenean, Felix Landaburuk biblioteca baten beharrizanaz eta lehenengo pauso moduan euskal bi-

bliografiaren bilketaz dihardu: «... la Excma. Diputación de Bizcaya debe asumir un papel primordial en la labor y ha de poner su más ferviente celo en la formación de la gran biblioteca vasca».

Bi egitekotan lagundu behar du Diputazioak Landabururen iritzian: Euskal Herriaz idatzi den guztia biltzen («recopilación de cuanto háyase escrito tocante al País Vasco en cualquier derivación o modalidad»), eta, bigarrena, Pizkundeari dagozkion argitalpenak sustatzen. Mozioan espresuki lehenengoari heltzen zaio.

Ramon Sota eta Manuel Egileorren proposamena

Sota eta Egileorren proposamena askoz landuagoa eta potenteagoa da. Zabala-goa ere bai. Bibliotekak, bibliografia eta artxiboak lantzen ditu.

Egunen batean ematuko banintz, kasualitatez, -kasualitate hutsez diot-, zure besoan artean, ez presarik izan, ez begiak ireki. Emadara pa mamailan, ez dira-eta urrun izango huntzoria, lore urretarak. Emadara musu eskuekin, itzaka.

Garbitzaileen kamioiak eramango du, benetako zaborrekin nahastuta, gure gasaren zaldia.

Gatza emango diruz nik gosari, urte buru.

Gure bihotz pineak fota dezaten, arindurik, ezinaren bainuontzi erabilian.

15
16
17
18
19
20
21

poemari aurkibide alfabetikoa

©Miren Agur Meabe

zotero

Aurkibide alfabetikoa - Mozillan Firefox

Estrategia Editatu Buzi Historia Detektatzen Iratokiak Hitzegak Laguntza

Aurkibide alfabetikoa

http://klasikoak.amama.com/afa.htm

ES • EU • Euskararen • Ehuaren 3000 Labayru Zehadi ZTHetgia Energia Telekomunikazioak Status OEH Adreaz sin. UZEI sin. Itz. Harriet Wikipedia Mokora Itza Eurovoc Bergara EPG

klasikoaren gordailua

Idazleak eta idazlanak

idazleak eta idazlanak

idazleak alfabetikoki A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | R | S | T | U | V | W | X | Z |

A


- **Abbadi, Arnaud**
 - Laboraner —1887-1903—
 - Apezka solbado —1890—
- **Adema, Gratien (ikus Zaldubi)**
- **Agerre, Jose (ikus Gurbindo)**
- **Agerre, Pedro (ikus Axular)**
- **Agirre, Domingo**
 - Oleri guztiak —1890-1916, 1995—
 - Aursemendiko Jonea —1898—
 - Jain-atorri bat Eromaria —1899—
 - Sermotak —1898-1914, 2006—
 - Kresala —1904—
 - GROSE —1912—
- **Agirre, Juan Bautista**
 - Konfesioa eta Komunioa sakramentuen gailien erakusaldia —1803, 1823—
 - Zagor sakramentuen gailien erakusaldia —1803, 1850—
 - Jaungoikoaren legelako armar agiritzen gailien erakusaldia —1814, 1850—
 - Jesu-Kristo, eta bihurtu beti santaren mistereen, eta beste zenbait gauzen gailien erakusaldia —1817, 1850—
- **Agirre, Tomas (ikus Barrenena)**
- **Alkizbel, Bingen (Luis Gonzalez)**
 - Jain aberriak —1917—
 - Urteburuko —1918—

http://klasikoak.amama.com/klasikoak/A(AgerreGara.htm) — Urteburuko —1918—

zotero

Armiarman dauden beste webgune batzuk, labur-laurrean. *Bertsu eta Olerkien Hemeroteka* datu-base bat da, bilaketak egiteko, aldizkari eta egunkarietan 1992 bitartean argitaratu ziren poemen datu-base erraldoi bat, Julen Urkizak egin eta guk Interneten jarria. Gerora testu mordoak digitalizatuz ikaragarri aberastu dena. *Kritiken Hemeroteka*, izenak dioenez, datu-base bat da kritikak bilatu ahal izateko, baina kritiken testua ere irakurritz. Euskal liburuei egiten zaizkien kritikak, prentsan egiten zaizkienak, jasotzen ditugu. Eta ahalegin handia egin dugu garai


batekoak ere biltzen (gerraurrekoak, *Argia* aldizkarikoak eta beste zenbait publikaziozakoak).



Azkenik, bi proiektu apur bat diferenteak, baina beren ezaugarriengatik gure atarian daudenak: *Lokuzioak*, hizkuntzarekin eta beraz, literaturarekin zerikusia daukana; eta Zaldiero idazleekin proiektua. Zaldiero idazle eta kazetaria da, Miel Anjel Elustondo, eta argazkiak ere ateratzen ditu, eder askoak, eta literaturarekin harremana dutenez, irudiok ere ekarri ditugu.



Gune guztiek hitzaldiaren hasieran aipatu ditudan bi ezaugarri horiek nik uste dut batzen dituztela. Egungo dokumentazio lanetan behintzat zutabe izan behar duten bi ezaugarri horiek dira: materiala bildu, ekarri eta eskaini ahalik eta modu zabalenean eta erosoenean, inolako kandaurik eta loturarik jarri gabe. Eta loturak izan daitezela testuen artean, artxiboen artean, datuen artean...



IV

GureGipuzkoa.net: Atzoko eta gaurko Gipuzkoa iruditan

Xabier Eskisabel Sampedro

GureGipuzkoa.net atariko kudeatzailea. Gipuzkoako Foru Aldundia/
Gestor del portal GureGipuzkoa.net. Diputación Foral de Gipuzkoa

Laburpena: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara Departamentuak Gipuzkoa 2.0 ekimenaren barnean kokatzen den GureGipuzkoa.net webgunearen ildo nagusiak zehazten dira hemen. Foru Aldundiak kudeatzen dituen argazkilaritza edukiak herritarrekin partekatzea areagotzea duelarik helburu, bere eginkizun nagusietako bat erabiltzaileei beraien edukiak ere partekatzeko balioko dien gunea izatea da. Aldi berean, Departamentuaren eta erabiltzaile komunitatearen arteko elkarlanaren adibide izan nahi du, hartara, denen artean Gipuzkoaren iraganeko eta oraingo irudi bizia sor dezagun.

Resumen: El portal GureGipuzkoa.net está desarrollado por el Departamento de Cultura y Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa, dentro del programa Gipuzkoa 2.0, con el objetivo principal de dar visibilidad a los contenidos fotográficos gestionados por ésta, y proporcionar a toda la comunidad de usuarios potenciales un lugar donde también ellos puedan compartir sus propios contenidos. A su vez, quisiera ser ejemplo de colaboración entre la comunidad de usuarios y el Departamento con el objetivo de poder formar una imagen visual viva del pasado y el presente de Gipuzkoa entre todos los agentes implicados.

«Herritik jaso, herriari itzuli.»

J.M. Barandiaran

SARRERA

GureGipuzkoa.net atariak 2009ko udaberrian hasi zuen bere ibilbidea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuaren eskutik. Hasiera apala izan zuen, Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorreko 9.144 argazkiekin hasi zen; baina, 2010eko udazkenerako (2010eko azaroan) Kultura Departamentuak, Gipuzkoako hainbat udalek eta eragile instituzionalek eta, batez ere, herritarrek eginiko 40.000 ekarpen baino gehiagori esker, aberasten ari da. Ekarpen horiek guztiak Interneteko erabiltzaile ororen eskura daude.

Ondorengo orrietan, *GureGipuzkoa.net* webgunearen ildo nagusiak zehazten dira. Webgunea Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua-

ren Gipuzkoa 2.0 ekimenaren barruan kokatzen da. Webgunearen helburu nagusia da Foru Aldundiak kudeatzen dituen eduki fotografikoak herritarrekin gero eta gehiago partekatzea eta bere eginkizun nagusietako bat, berriz, erabiltzaileentzako gune bat izatea da, beren edukiak partekatzeko balioko diena. Aldi berean, Departamentuaren eta erabiltzaile komunitatearen arteko elkarlanaren adibide izan nahi du, denen artean Gipuzkoaren iraganeko eta oraingo irudi bizia sor dezagun.

AURKEZPENA

Zer da GureGipuzkoa.net?

GureGipuzkoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuaren proiektua da, Gipuzkoa 2.0 plangintzaren barruan kokatzen dena. Gipuzkoa 2.0 ekimena Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2007-2011ko Kudeaketa Planean jasotzen da, Kudeaketa Planaren giltza delarik, eta hiru ildo nagusi ditu:

- IKTBen bidezko sozializazio sistematikoa (digitalizatzea, sustatzea eta hedatzea).
- Gipuzkoaren ondarea mantentzea eta zabaltzea.
- Kultura industriari sustatzea.

Halaber, euskararen presentzia eta erabilera arlo guztietan bizkortzea azpimarratzen du.

Bere eginkizun nagusia da erabiltzaile soilek, argazkilariek, erakunde publikoek eta beste edozein motatako taldeek iraganean eta gaur egun sortu dituzten argazkien biltegia eta erakusleihoa izatea, XIX. mendean hartutako argazkietatik hasi eta, XX. mendekoak ahaztu gabe, gaur egungo aro digitalean hartutako argazkieta-raino. Nolanahi ere, hasiera batean irudien biltegi soila izan nahi du; baina, denborarekin, erabiltzaileen eta Kultura Departamentuaren arteko elkarlanean oinarritutako harreman berriaren isla ere izan nahi du, elkarlan horren bitartez Gipuzkoaren iraganeko eta gaur egungo irudi bizia sortzeko asmoz.

Zer eskaintzen du GureGipuzkoak?

Lehenik eta behin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuaren eskuetan dauden argazki bilduma, milaka irudi eta baliabide grafiko anitzi ikusgarritasuna eskaintzen eta bermatzen die. Horrez gain, herritarrei aukera ematen die Gipuzkoa eta gipuzkoarrok protagonista garen argazkiak modu ireki eta libre batean erabiltzeko, *Creative Commons* lizentzien bitartez.

Aldi berean, bildumei tratamendu berezia eskaintzen diegu, argazki bildumen kudeaketa Kultura eta Euskara Departamentuaren eskuetan dauden kasuetan. GureGipuzkoa proiektuaren hasieretan, Indalecio Ojanguren eta Sigfrido Koch argazkilarien bildumak jarri genituen eskuragarri eta, digitalizatzeko eta katalogatzeko lanek

aurrera egin ahala, Juan San Martin bilduma, Thomas bilduma, Sánchez Funtsa... gehitzen joan gara. Halaber, Jesús Elósegui bilduma eta Kutxaren Fototekako lehen argazki sorta 2010eko ekainean erakutsi genuen, Aranzadi Zientzia Elkartearekin eta Kutxarekin sinaturiko lan hitzarmen bati esker.

EDUKIEKIKO ATZIGARRITASUNA

Kultura eta Euskara Departamentuan garbi dugu erabiltzaileek, erakunde publikoek, blog erabiltzaileek... ahalik era erosoan eskura behar dituztela GureGipuzkoaren bitartez partekatzen hasi garen edukiak. Horren bitartez, digitalizaturiko edukiekiko bisibilitatea bermatu nahi dugu eta horren ondorioz balio erantsia izan dezaketen eduki eratorrien sorkuntza erraztu.

Bi atzigarritasun maila ezberdintzen ditugu:

Atzigarritasun teknikoa

Atal honetan argazkigintza edukiekiko eskuragarritasuna errazten duten tresna teknologikoez dihardugu: Geokokapena, tag-en erabilpena, Googlekin ongi moldatuko diren URLen erabilpena, API publikoa, OpenOffice eta Mozilla Firefox nabigatzailearentzat pluginak...



Eskuragarritasun legala

Edukien egoera legalari dagokionean, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen edukien eskuragarritasuna eta erabilpena errazteko asmoz, Kultura eta Euskara Departamentuak *Creative Commons* BY-SA Aitortu-BerdinPartekatu baime-naren alde apustua egin du, berau Wikipediarekin bateragarria delarik, autore aitortza bermatzen du, edukien hedapena zabaltzen du eta lana eratorria, egongo balitz, baimen berebean banatuko litzakeela bermatzen du.


TRESNAK

Edukiekiko atzigarritasuna eta bisibilitatea hobetze asmoz, GureGipuzkoa hainbat tresnaz hornitu dugu.

Hiperlokalitatea B5M mapekin

GureGipuzkoak hiru mapa maila ditu. Gipuzkoaz kanpoko geografia Google Maps-en ohiko mapa mailaren bidez bistara daiteke, Gipuzkoako geografia 1954. urteko argazkien mailaren bidez eta 2009. urteko azken mailaren bidez ikusi daiteke.

Mapa horiek Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura taldeak kudeatzen ditu. Talde hori Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren pean



Geokokaturiko argazkiekin mapa

dago eta beste zerbitzu komertzialei ezinezkoa zaien Gipuzkoako lurralde osoaren definizio maila eskaintzen du.

API publikoa

GureGipuzkoa proiektuak API publikoa eskaintzen du (*Application Programming Interface*) enpresa eta garatzaileek proiektuko edukiak ahalik eta erosoan eskuratze moduko aplikazioak garatu ditzaten. Argi daukagu hainbat eta hainbat zerbitzu komertzialek beren zerbitzuekiko atzagarritasuna errazteko API publikoak garatu dituzten bezala, erakunde publikoek ere beren APIak sortzeari ekin beharko diotela.

GureGipuzkoa proiektuko API publikoaren lehenengo erabilpenak ahalbidetu du OpenOffice bulegoko suite delakoarentzat gehigarri bat garatzea eta Mozilla Firefox nabigatzailearentzat gehigarri bat sortzea. Gainera, beste webgune batzuetan (esaterako, GureZarautz.net eta ekainberri.com) erakusten diren argazkiak eskaintzen ditu.

OpenOffice plugina eta Firefox gehigarria

GureGipuzkoa proiektuko edukiak errazago eskuratze aldera, OpenOffice bulegoko suite delakoarentzat plugin bat garatu da eta Mozilla Firefox nabigatzailearentzat gehigarri bat. Bi gehigarri horiek Euskalbar eta Xuxen gehigarriak garatu zituen lan talde berberak garatu zituen.

The screenshot shows the Mozilla Firefox browser window displaying the GureGipuzkoa website. The browser's address bar shows the URL <http://www.guregipuzkoa.net/ver/101302>. The website header includes the GureGipuzkoa logo and navigation links like 'Inicio', 'Búsqueda', 'Mapa', 'Explora', 'Más vistas', 'Más recientes', and 'Blog'. The main content area features a large photograph of a band performing on stage. To the right of the photo is a 'Ficha' (Details) section with the following information:

- Titulo:** Bide Ertean Leindoren.
- Fotografía:** Xabier Eskizabal
- Fecha:** 2009-01-17
- Localización:** TOLEDO

Below the photo and details is a map showing the location in Toledo. The 'Descripción' section contains text about the band's performance. At the bottom of the page, there is a 'Votos' section with a star rating system.

Firefox gehigarria nabigatzailearen ezkerrean, goitik behera zabaldua

Firefox-entzat garaturiko gehigarria beste edozein gehigarri bezala instalatzen da. Bere webgune ofizialetik jaisten da, automatikoki instalatzen da eta, nabigatzailea berrabiarazi ondoren, erabat funtzionala da. Irudi bat aurkitzeko, hitz gakoa idatzi eta hitz horrekin zerikusia duten irudien zerrenda agertzen da. Gehigarriaren bidez, igoerak multzoka egin daitezke, baina aukera hori ez dago web bertsioan.

OpenOffice-entzako gehigarria, aldiz, behin instalatu eta abiarazten denean, pop-up leiho bat izango balitz bezala irekitzen da eta, bilaketa eremuan, aurkitu nahi den irudiarekin zerikusia duen edozein hitz gako aurki daiteke, eta hori guztia GureGipuzkoa-ren web bertsioa erabili gabe.

Flickr--->GureGipuzkoa zubia

Flickr zerbitzua erabiliko duten GureGipuzkoa-ren erabiltzaileak egongo direnez, argazkiak Flickr-eko kontuetatik GureGipuzkoa-ra kopiatzeko aukera ematen duen tresna bat garaturik dauka. Kontrako eragiketa ez da posible eta aukera hori GureGipuzkoa-n erregistraturik dauden erabiltzaileek bakarrik erabil dezakete.

Euskara | Español |

Ongietorri! gipuzkoakultura Amaitu saioa

<< Hasiera Mapa Arakatu Ikusienak Berrienak Bloga Nire Gipuzkoa

Nire iguerak Nire galeriak Flickr tresna

Flickr tresna

Tresna honekin Flickrtik GureGipuzkoara argazkiak kopiatzerakoan, kopiatu nahi dituzun argazkiak Flickrren aurkitzea izango da lehenengo pausoa. Horretarako, formulario honetan zure Flickrreko erabiltzaile izena eta "API key" s sartu itzezu, azkeneko hau zure Flickrreko kontuan aurkituko duzularik. Informazioa hau ez du GureGipuzkoak gordetzen, zure Flickrreko kontuarekin komunikatzeko erabiltzen da soilik. Formularioaren beste ataletan Flickrtik GureGipuzkoara kopiatu nahi dituzun bilaketa irizpideak sartu ditzazkezu. GureGipuzkoan erakutsi nahi dituzun argazkiak Flickrren aurkitu eta aukeratu ondoren, argazkiaren informazioa osatu dezakezu GureGipuzkoaren bere fitxa osatuz.

Flickrren gorderkiduzun informazioaren hizkuntza (izenburua, adibidez) zehaztu ezazu mesedez, hartara informazio hori GureGipuzkoan automatikoki gorde dezagun, sistema elebiduna baita. Informazio geografikoa garrantzitsua izanik, argazkia kokatuta dagoen Gipuzkoako herria gordetzea daukazu. Argazkiak galeria berri batean automatikoki gordetzea nahi baduzu, dagokion aukera aukeratu ezazu. Gogora ezazu argazkiak GureGipuzkoan gorde ondoren beraien informazioa osatzeko aukera duzula.

1. Flickr

Flickr Erabiltzailea

Flickr API Key

Izenburua

Tagak

Gutxieneko data. (yyyy-mm-dd)

Orria:

orri bakoitzeko

2. GureGipuzkoa

Herriak

Kokapena

Zure argazkiak igo Sortu migrazio galeria:

© Some Rights Reserved 2009-2010 Gipuzkoakultura API / FAQ / Baldintzak / Info / Kontakua

Flickr eta GureGipuzkoa-ren arteko zubia

Irudien geokokapen automatikoa

Argazki bat GPS-a duen kamera baten bidez hartua izan bada, GureGipuzkoa EXIF metadatuak geokokapen datuez jabetzen da eta argazkia Gipuzkoako mapan automatikoki kokatuko du, erabiltzaileak ezertxo ere gehiago egin beharrik gabe.

Album eta galerien bidezko sailkapena, RSS fluxuak...

Gordetako edukia errazago sailkatze aldera, erabiltzaileek beren argazkiak album eta galerien bitartez sailka ditzakete eta galeriak diaporama eta Flash moduan ikusi ere bai. Erabiltzaileen eragiketen jarraipena ahalbidetzeko, kontu bakoitza RSS fluxuez hornituta dago.

Erabaki da aplikazio horiek garatzerakoan sortutako kodea komunitatearen esku uztea, hobetua izan dadin; horretarako, EUPL v1.1 eta NewBSD lizentzia sistema bikoitza aukeratu da. EUPL lizentzia GPL-k onartzen du eta Europako Batzordeak Europar Batasuna osoko administrazio publikoetan sustatzen ari da. NewBSD lizentzia software librean eskura daitezkeen lizentzia guztien artean liberalena da.



Argazkiak multzoka igotzea

Gaur egun, hiru modu daude argazkiak multzoka igotzeko: Mozilla Firefox nabigatzailearentzako GureGipuzkoa gehigarria erabiliz, Igor Blanco eta Antton Rodriguez programatzaileek musu truk garatu duten GGUploadr tresna erabiliz edo FTP bitartez. Horretarako argibideak blog-eko sarreran daude.

EDUKIEN EGOERA LEGALA

GureGipuzkoa-n erakusten diren argazkiak hiru jatorri nagusi dituzte. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen argazkiak eta bildumak daude; bestetik, udalek, fundazioek eta antzeko administrazio publikoek kudeatzen dituzten argazkiak; eta azkenik, erabiltzaile arruntek beren kontuetan partekatzen dituzten argazkiak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen eta egun ikusgai dauden bildumak *Creative Commons* Aitortu-Berdin Partekatutako lizentziari atxikita daude, Sigfrido Koch bilduma izan ezik. Bilduma hori *Creative Commons* Aitortu-Lan Eratorririk Gabe lizentziari atxikita dago. Urteetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetara iritsi izan diren edukien egoera legala desberdina denez, Kultura eta Euskara Departamentuko teknikariren lehenabiziko lana edukien erabilpen baldintzak zein diren zehaztea izan da; horrexegatik sortu zen, hain zuzen ere, Sigfrido Koch bildumaren CC-BY-ND baimena, bilduma erosteko 1997an sinatu zen kontratuan ez zen jasotzen lan eratorriak egiteko eskubidea.

Lehen aipaturiko *Creative Commons* BY-SA lizentziak *Approved for Free Cultural Works* zigilua darama, Kultura Lan Libreterako Baimendua. Baimen horri atxikitako eduki guztiak Wikimedia Commons lizentziarekin bateragarriak dira eta txosten hau bezalakoetan erabiltzeko aukera ematen dute.



Argazki bati lizentzia bat atxikitzerakoan, zortzi lizentzien artean aukera daiteke: *Creative Commons* fundazioaren sei gehi Copyright, Eskubide Guztiak Erre-serbaturik eta Egiletza Eskubide Ezagun mugaturik gabe lizentziak.

Kultura eta Euskara Departamentuan *Creative Commons* Aitortu-BerdinPartekatutako lizentzia erabiltzea gomendatzen dugu, igotzen diren argazkiei lizentzia automatikoki gehitzen baitzaie. Lizentzia hori Wikipediak onartzen du, argazkien hedapena errazten du eta, aldi berean, argazkilariaren egile eskubideak babesten ditu.



ARLO SOZIALA

Kultura eta Euskara Departamentuak kudeatzen dituen edukien jatorria anitza denez, Departamentuko teknikariek zailtasunak izaten dituzte argazki bakoitzaren inguruko lekuak, pertsonak eta testuinguruak ezagutzeko. Arazo horri aurre egiteko, argazki bakoitzaren fitxan oharrak ipini daitezke. Hala, posible da uztartzea alde batetik erabiltzaileek urteetan Gipuzkoako Artxibo Orokorrean egin duten katalogazio amateurra eta, bestetik, Kultura eta Euskara Departamentuko beste arloetan egin den katalogazio profesionala.

Estatu Batuetako Library of Congress-ek antzeko adibidea ipini zuen bere Flickr kontuan 2008ko urtarrilean: erakunde publikoetako teknikariek urteetan

The screenshot shows a Flickr page for a photo gallery. The main content is a grid of 15 small images. The sidebar on the right contains the following information:

- Usuario:** guregipuzkoa
- Fuente:** Artxibo General de Gipuzkoa (AGG) @
- Signatura:** AGG-GAO_0495403
- Licencia:** CC BY-SA @
- Formato:** [Icons for various image sizes]
- Temas:** [Icons for various tags]
- Información colaborativa:**
 - Tags:** algarbar, herriarrak, irudapiloak
 - Votos:** 9,0/10
- Comentarios:**
 - Lagun koadrila (2009-07-20 20:58:46)** @ guregipuzkoa: Ekerrak eskumara, goian: Margarita Aranberri, Maria Jesus Mujika, Begonia Ibarluzea, Pilar Oyarzo, Maribel Ansoa, Manuel Page, Gloria Galdos, Maria Jesus Irujo; Mariasun Riaño, Reyes Larrañaga, Marito Añgarraga, Florida Mugertza, Maria Jesus Gabiñand, Charito Iglesias.
 - Gofetakian (2009-07-20 21:00:03)** @ guregipuzkoa: Irakurketa zehaztu dugu.
 - Ekerrakaskal (2009-07-21 00:23:46)** @ GipuzkoaEultura: Estimatu da.
- Para comentar esta foto, inicia una sesión.**

Informazio osagarria erabiltzaileen iruzkinekin

egindako katalogazio profesionala eta erabiltzaileen katalogazio amateurra uztartzea.

GureGipuzkoa kudeatzen duen taldeari zalantzak sortzen zaizkio igo daitezken edukiak direla eta. Kudeatzaileek nahi dutena da GureGipuzkoa Flickr-ekin lehian ez jardutea. Hala, eskuratuko diren edukien bidez Gipuzkoako iraganeko eta gaur egungo irudi bizi partekatu baten sorrera bultzatuko da. Esaterako, GureGipuzkoa ez da gipuzkoarron Port Aventura-ko oporren argazkiak gordetzeko lekurik egokiena, merkatuan badaude tresna egokiagoak horretarako.

GureGipuzkoa-ren lan taldeak eskubidea du egokiak iruditzen ez zaizkion argazkiak argitaratu ala ez erabakitzeko. Horretarako, Kultura eta Euskara Departamentuko teknikariek argitaratu aurretik aztertzen dituzte GureGipuzkoa-ra igotzen diren argazkiak eta iruzkinak.

EDUKIEN HEDAPENA

Wikipedia

GureGipuzkoa-n erakusten diren edukientzat aukeratu zen hasierako lizentzia (*Creative Commons BY-SA* lizentzia) aukeratu izanak edukien ikuspen eta hedapen globala bermatu dituela esateko moduan gaude.

Horren adibiderik adierazgarriena Wikipedia-ko artikulua osatzeko erabiltzen den Wikimedia Commons-eko edukien gordailua da. GureGipuzkoa-ko edukien egoera legala CC-BY-SA lizentziari atxiki ahala Wikipedia-ko editore eta erabiltzaileek lizentzia horri atxikitzen diren argazkiak Wikimedia Com-

The screenshot shows the Wikimedia Commons category page for 'Indalecio Ojanguren'. The page includes a navigation menu on the left, a search bar at the top right, and a grid of image thumbnails. Below the thumbnails, there is a table listing the files in the category.

File Name	File Size
01 eibar.jpg	132,281 bytes
03 sendia.jpg	220,847 bytes
04 usua.jpg	112,874 bytes
05 emeo.jpg	173,944 bytes
06 lasiben.jpg	188,308 bytes
07 lasiben.jpg	262,630 bytes
09 aickoni.jpg	300,871 bytes
10 bolosa.jpg	177,877 bytes
11 laurgain.jpg	196,495 bytes
242 o Salinas de Le...	138,605 bytes
Ahartepeka.jpg	177,581 bytes
Alta Donostia.jpg	12,841 bytes

mons gordailura igotzen hasi dira, Wikipedia-ko artikulua osatzeari ekin diotelarik.

Horrek guztiak ondorio garbi bat izan du: erabiltzaile eta editoreen gogo eta grinak urteetan GFaren gordailuetan «ezkutuan» egon diren edukien ikuspena eta atzargarritasuna areagotu dute. Horren adibiderik adierazgarriena Indalecio Ojanguren argazkilariaren argazkiak dira.

Nolanahi ere, hori ez da gertatu bilduma ofizialekin soilik: erabiltzaile arrunten igotako edukiak ere Wikimedia Commons atarian agertzen hasi dira, beren edukien ikuspena ere areagotuz. Ikusi, bestela, *guregipuzkoa* hitz gakoarekin Wikimedia Commons-en agertzen diren edukiak.

Ekainberri.com eta GureZarautz.net

Kultura eta Euskara Departamentuan kudeatzen dugun GureGipuzkoa Gipuzkoako eragile, erabiltzaile eta enpresei zerbitzu erabilgarria emateko ere jaio zen. Hala, GureGipuzkoa-ren API publikoa garatu genuen. Horren bitartez, beren argazkiak beren webgunetan erakusten dituzten GureGipuzkoa-z kanpoko hainbat eragilek GureGipuzkoa-n gordetzen dituzte.

Gaur egun, API publikoa erabiltzen dutenen artean bi aipatuko genituzke: Zestoako Ekainberri museoko webgunea eta Zarautzeko turismoa eta gizartea erakustea helburu duen GureZarautz.net ataria. API-a erabiltzearen bidez, bi webgune horiek erakusten dituzten argazkiak ez daude webgune horietan, GureGipuzkoa-n baizik, eta hori abantaila handia da webgune horiek kudeatzen dituzten administrazioentzat.

The screenshot shows the website interface for Ekainberri. At the top, there is a navigation bar with language options (eu, es, en, fr, de) and a contact information box for 'INFORMAZIOA' with the phone number 943 868 811 and email info@ekainberri.com. The main header features the title 'Argazki eta Esperientziak' and a list of menu items: Ekainberri, Hastebehen bisitak, Ekainberri jarduerak, and Zure esperientzia kontu itzazguz. Below this, there is a section titled 'Ekainberri' with a large image of a building in a valley. To the right of the image, there is a quote: 'Arte Sustamenduko sailburua: "prekibitate" Andri Lopez-Oberdun'. At the bottom left, there is a copyright notice: '2010-02-16 Ekainberri eta errealitate kanpoko. Egilea: Iñaki Caparroschiki. Lizenzia: CC BY-NC-SA'. On the left side, there is a sidebar menu with options like 'Argazki eta Esperientziak', 'Ekainberri Jarduerak', 'Hizketza jarduerak', 'Prentza', and 'Bentzen Elogia'.

Aurreko atal batean aipatu den bezala, API publikoa izateak Firefox nabigatzailearentzako eta OpenOffice bulegoko suite delakoarentzat gehigarriak garatzea ahalbidetu du. Aukerak mugagabeak dira.

ERREFERENTZIAK

Aipaturiko URL eta erreferentzien zerrenda.

GureGipuzkoa: <http://www.guregipuzkoa.net>

GureGipuzkoa-ren API publikoa: <http://www.guregipuzkoa.net/api/>

GureGipuzkoa-ren mapa: <http://www.guregipuzkoa.net/mapa>

GureGipuzkoa Wikipedian: <http://es.wikipedia.org/wiki/GureGipuzkoa>

Mozilla Firefox gehigarria: <https://addons.mozilla.org/eu/firefox/addon/13119>

OpenOffice plugina: <http://extensions.services.openoffice.org/project/guregipuzkoa>

Wikimedia Commons: <http://commons.wikimedia.org/wiki/Portada/>

Library of Congress Flickr-en: http://www.flickr.com/photos/library_of_congress/

Creative Commons España: <http://es.creativecommons.org/>

LIZENTZIA

Txosten hau *Creative Commons Aitortu-BerdinPartekatu* lizentzia bati atxikia dago eta baldintza hauen arabera erabili daiteke:

Libre zara



Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko.



Lan eratorriak egiteko.

Baldintza hauetan



Aitortu. Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo lizentziadunak zehaztutako eran (baina aditzera eman gabe haien babesu duzula edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).



Partekatu lizentzia beraren arabera. Obra hau itxuraldatu edo bestelakotzen baduzu lan eratorri bat sortzeko, emaitza hori banatzerik izango duzu soilik baimen berberaz, antzeko lizentzia batez, edo harekin bateragarria den baimen batez.

Oharra: Lana berrerabili edo banatzerakoan, argi eta garbi utzi behar dituzu lan honen lizentziaren baldintzak.



Badok.info: Euskal kantagintzaren ataria

Jon Eskisabel

www.badok.info atariko arduraduna/Responsable del portal www.badok.info

Laburpena: Euskal kantagintzari buruzko ataria da www.badok.info. 60ko hamarkadatik abiatuta, azken 40 urteotan euskaraz sortutako ekoizpenaren inguruko datu-base zabala eskaintzen du, hiru arlotan banaturiko dokumentazioa bilduz: informatiboa (biografiak, diskografiak, kantuen hitzak...), grafikoa (argazkiak eta diskoen azalak) eta soinudun (kantuak).

Resumen: www.badok.info es un portal sobre la canción vasca. Partiendo de la década de los 60, esta web contiene una base de datos sobre la producción de estos últimos 40 años. Toda esta información se divide en tres áreas documentales: informativa (biografías, discografías, letras de las canciones...), gráfica (carátulas de discos, fotografías) y sonora (canciones).

badok

sarrera · historia · biografiak · diskoetxeak · idatzizkoak · bideoak · hitzak · kantak · albisteak

harremanetarako



«Burugorkeria garrantzitsua da»
Muturreko metala eta euskal folk doinuak uzartzen ditu Alumeen Basoak. Hamasei urte...

Irdia. Bilbo
DISKO BERRIA DU HESIAN TALDEAK

Euskal Herriko rock festa
Bizardunak, Itziarren Semeak, Ze Esateki, EH Sukarra eta Lain taldeak ariko dira Amallo...

Niko Etxartek doina emanen die bihar Hazparneko beste

Idi Bihotz taldea azken agurra prestatzen ari da
-Kontzertu ahaztezin batekin-

Euskal kantagintzaren ataria

Egilea:

Sustatzaileak:

berria

ekar
fundazioa

www.badok.info ataria *Berria* egunkariak aurrera eramandako egitasmoa da, Elkar Fundazioaren eta Eresbil euskal musika artxiboaren laguntzarekin. Euskal kantagintzari eskainitako atari hau 2009. urteko abenduan aurkeztu zen jendaurrean eta sarean erabilgarri jarri zen, bi urte eta erdiko lanaren ondoren. Gaur egun, 2010eko maiatzean, euskaraz sortutako kantagintzari buruzko webgunerik osatuena da. Urtariletik maiatza bitartean, ataria 14.500 lagunek bisitatu dute gutxienez behin —bisita kopuru orokorra 30.000tik gorakoa da—, eta bost kontinentetako 86 herrialdetatik sartu dira.

ZER DA BADOK.INFO?

Musikari buruzko blogak ugaldu diren garaian bizi garenez, komeni da lehenbailehen zehaztea *www.badok.info* ez dela blog bat, ez dela bertan parte hartu dugunon subjektibitatearen edo zaletasunaren arabera egindako egitasmoa. Euskaraz sortutako kantagintzaren gune entziklopedikoa izateko asmoz sortu zen; alegia, objektibotasunak gidaturiko lana izan nahi du, datuetan eta haien zehaztasunean oinarritutakoa, kazetari, ikerlari, irakasle, ikasle eta, noski, musika zaleen eskura jarritako kontsulta tresna baliagarri eta fidagarria.

Kantagintzaren 1960-2000. urte arteko epea hartzen du badok.info-k, alegia, denbora tarte horretan sorturiko eta lehen grabazioa egindako artistak eta taldeak bakarrik hartzen ditu kontuan, baina aurrerago gaur egunera arte zabaltzea aurreikusten dugu. Une honetan, kantagintzaren 40 urte hauetako bilakaeraren kronika bat (bederatzi ataletan banaturiko), 160 kantari, talde, soinu teknikari eta eragilearen biografiak, milatik gora diskori buruzko datuak (kantuen izenburuak, musikaren zein hitzen egileen izenak, diskoan parte hartu duten musikarien izenak, grabazioari buruzko datuak, diskoetxea, iraupena eta katalogo zenbakia), bibliografia (kantagin-

tzarekin loturik argitaraturiko liburuen zerrenda, bakoitzaren datu nagusiekin), diskoetxe esanguratsuenen biografia laburrak, ehunka kanturen hitzak (pdf formatuan eta jatorrizko diseinuarekin), bideoak eta *streaming*-en entzuteko moduan jarritako 400 abesti biltzen baititu. Halaber, *Berria* egunkariak argitaratzen dituen albisteak ere jasotzen ditu atariak, beti ere euskal kantagintzarekin lotutakoak.

Atariak berak sortutako edukiak —biografiak, kantagintzaren historiako atalak...— *Creative Commons* lizentziarekin daude. Ez, ordea, atariaren jabetzakoak ez diren edukiak: argazkiak, kantuak...

badok sarrera · historia · biografiak · diskoetxeak · idatzizkoak · bideoak · hitzak · kantak · albisteak

harremanetarako

Hemen zaude > biografiak > ruper ordorika

ruper ordorika > biografia webgunea

1. H. Inozentzia

2. Berandu dabilza

3. Harmanekin beñin

4. Ino Ino gitarrean

5. Hondatza galdan

6. Nor da

7. Zaindu maila duzun hori

8. Bihotz begakin

Ruper Ordorika (Oñati, Gipuzkoa, 1956) euskal kantagintzak eman duen bakarlaririk enblematiko eta gorenetakoa da. 80ko hamarkadan Pott literatur taldean ibili zen, Joseba Sarrionandia eta Bernardo Atxagarekin batera *besteak beste*, eta musika arloan herri kantaren tradizioa eta rock egilearen nortasuna batu ditu, bere erara. 1980. urteik bere izenean Euskal Herriko zein New Yorkeko musikariekin disko sorta bat grabatzeaz gain, Hiru Truku taldea sortu zuen Joseba Tapia eta Bixente Martinez (Izukaitz, Oskorri) musikariekin, herri kantutegia berritzeko.

Txikitatik musika izan du pasio handiena Ruper Ordorikak. Musika ikasitako senideak zituen etxean, eta gurasoen aldetik "ekimen artistikoarekiko begirunea" jaso zuen. Bateriarekin lehenengo, gitarrekin ondoren... kantuan geragoa hasi zen, Gasteizen. "Haitz esaten dut euskaraz hasi nintzela kantuan zegoen gauza debekatua zelako. Gasteizen hala zen bereziki. Han bazegoen Bergarako mutil bat Gabon Kanta Sariaketa batean parte hartu nahi zuena. Enteratu zen bazela oñatiar bat gitarra jotzen zuena eta eskatu zidan berarekin parte hartzeko. Irabazi egin genuen. Horixe izan zen kantuan jende aurrean egin nuen lehen aldia. Bestalde, Natxo de Felipek ezagutzen zituen nire kantutxoak, eta beti egoten zen nik kantuan atera behar nuela esanez. Modu berean esan behar dut kantuan ingelesez hasi nintzela. Beti ikasten nituen bluesak, rocka... Suertea izan nuen hemen, Oñatin ikusi bainituen banan-banan Benito Lertxundi, Xabier Lete, Mikel Laboa, Ez Dok Amairu banatu eta gero. Benito Lertxundik jo zuen egunean, nik hamabost urte nituela-edo, izan nuen berarekin elkarrizketa bat gerora niretzat garrantzitsua izan dena. Kantutegi zaharrean begiratzeko arau batzuk eman zizkidan. Aurretik eta gaur egun ere hori da nire zaletasunik handienetakoa"¹⁷.

Oñatin jalo arren, Gasteizen hazitako musikaria da Ruper Ordorika. Hara joan zen familia bizitzera. Ruperrek 12 urte zituela. *Hortaz, Hautsi da anphora* (Xoxoa, 1980)

>>Hautsi da anphora
Xoxoa, 1980 (LP)

>>Ni ez naiz
Noruegako errege
Elkar, 1983 (LP)

>>Bihotzerreak
Elkar, 1985 (LP)

>>Ez da posible
Gasa, 1990 (LP)

>>Ruper Ordorika & Mugalaris
Emak Bakia Balta, 1992 (EP)

>>Bilduma bat
Elkar, 1992 (LP)



Diskoak: *Haitza Garzumakoa* (Elkar, 2009)



Diskoak: *Memoriaren mapan* (Elkar, 2006)




ZERGATIK BADOK.INFO?

Euskal kantagintza modernoari buruzko edukiei dagokienez Interneten zegoen —eta oraindik dagoen— hutsunea betetzen hasteko bokazioarekin jaio zen egitasmo hau. Gurean musika tradizioa eta zaletasuna handiak izanagatik, Interneteko edukien garapena ez da haien parekoa. Bakanak dira, esate baterako, gure kantagintzaren abeslari eta talde historikoen artean (Xabier Lete, Mikel Laboa, Ez dok Amairu, Errobi, Oskorri, Hertzainak, Itoiz... batzuk baino aipatzearen) webgune bat dutenak. Gabezia hori ia erabatekoa da 60, 70 eta 80ko hamarkadetako artisten

kasuan —salbuespen gutxi batzuk daude— eta txikiagoa, baina hala ere nahiko nabarmena, 90eko hamarkadan sortutako kasuan.

Ez da harritzekoa, beraz, egitasmo hau komunikabide batetik sortu izana, Internet eguneroko lanerako ezinbesteko trenea bihurtu denetik hutsune handia zegoelako arlo horretan.

DOKUMENTAZIOA, LANAREN ARDATZA

Egitasmoak helburu entziklopedikoa izanik, dokumentazio lana izan da proiektuaren ardatza. Hor zehar barreiatu datuak bildu, kontrastatu, ordenatu eta erraz aurkitzeko moduan antolatzea izan da zeregin nagusietako bat. Hiru dokumentazio mota landu behar izan dira: informatiboa (datu biografikoak, disko eta kantuei buruzkoak, hemeroteca...), grafikoa (argazkiak, diskoen azalak...) eta soinudun (kantuak).

badok

[sarrera](#) · [historia](#) · [biografiak](#) · [diskoetxeak](#) · [idatzizkoak](#) · [bideoak](#) · [hitzak](#) · [kantak](#) · [albisteak](#)

harremanetarako

Hemen zaude > historia > rockaren ernaltzea

Kantagintza berriaren sorrera

Kantaldien garaia

Plazarik plaza

Euskal rock-and-rolla

Folk loraldia

RRV-ren eztanda

Euskarazko metala: berezko nortasuna

Trikitixa, baserritik kalera

90eko hamarkada oparoa

euskal rock-and-rolla

Rock-and-rolla 1954. urtean jalo zela esaten da, baina aitatasuna ebazterkoan ez dira ados jartzen historialariak. Batzuen arabera, Bill Haley & The Cometsek "Rock Around The Clock" grabatu zuten egunean sortu zen. Kantu hura rock-and-rollaren historiako lehen arrakasta handia izan zen, Richard Brooksnek *Blackboard Jungle* filmaren oihartzunari esker. Historialari gehienek, ordea, Elvis Presleyren "That's All Right Mama" hartzen dute XX. mendeko kultur fenomenonik zabalduenaren abiaburutzat. Musikari beltzen rhythm and bluesa eta zurien countrya uztartzetik sortutako soinu berriak aldaketa soziala ekarri zuten, errebelian oinarritutako identitate kolektibo bat ematu zuten, ikonografia berri bat sortu, kontsumo gizarteen beste zimendu bat ipini...

Euskal Herrira rocka ez zen 70eko hamarkadara arte iritsi, eta gehienbat irratieren bidez heldu zen. Arteen bakanak ziren diskoak eros zitezkeen dendak, eta horiek ipar Euskal Herrian zeuden. Hegaldean, Francoren diktadurak ez zuen nazioarteko modernitatearen arrastorik sartzen uzten, baina ezer gutxi egin zezakeen frontoietan antolatzen ziren kantaldietan ozen zabalduko aldirrikapen eta salaketa mezen oihartzuna isilarazteko. Testuinguru horretan plaza taldeek hartu zuten atzerriko rock taldeen kantuak dantzaldien bidez gizarteratzeko lana. Aldi berean, Ez Dok Amairu desegin ondoren bakarka jarraitutako kantariak (Mikel Laboa, Xabier Lete, Benito Lertxundi...) eragin handia izan zuten betainaldi gazteek ingelesez abesteko tentazioari itzuri egin eta euskaraz abesteko erabakia hartu zuten. Haiek hasi ziren Donovan, Jacques Brel eta abarren kantuak euskaraz kantatzen, eta gazteentzat aurkitutako handia izan zen musika modernoa eta euskaratu zitezkeela jakitea. Hala aitortzen du Anje Duhaldek *Euskal rock'n'roll. Histoire du rock basque* liburuan: "1970eko gau batean joan nintzen Lertxundiren entzuzera. Ustekabeen Donovanen kantu bat euskaraz abestu zuen. Orduan amerikar folk eta rock asko entzuten nuen, baina ez nuen sekulan pentasutako hango harmoniak euskal kantuarekin uztartzen ahal zirenik. Gau hartan hori ulertarazi zidan Lertxundik". Antzeko mintzo da Bernardo Atxaga idazlea *Pays Basque et culture. Le réveil du hérisson* (Andre Gabastou) liburuan.

Duhalde da, hain zuzen, euskal rockaren sorreran parte hartu zutenetako bat. El Fuego izeneko plaza talde batean aritu zen, Mixel Ducaurekin batera lehen euskal rock taldea, Errobi, sortu aurretik. Gure kantagintzaren tradizioa, garai hartako folk-rockaren eraginak eta Daniel Landarten hitz engalatuak biltzen zituen Errobik. Baionan sortu arren, Hego Euskal Herrian egin zituen kontzertu gehienak, eta urte gutxi batzuk geroago rockak izango zuen gorakadari bidea zabaldu zion.





1. Dokumentazio informatiboa

Testuak idazteko kazetariez osaturiko talde bat antolatu da eta hainbat iturri erabili dira. Batetik, elkarrizketa pertsonalak egin dira kantari eta musikariek,

lehen eskuko datuak eskuratzeko. Bestetik, kantagintzari buruz idatzitako liburuetan (biografiak, saiakerak, kronikak...) aurkitutako informazioa erabili da. Hementekoa izan da hirugarren iturri nagusia, eta horretan bereziki oso baliagarriak izan dira *Argia* astekariak sarean jarritako elkarrizketak (eskertzekoa da Interneten denon eskura eta hain modu errazean jartzeko egindako ahalegina) eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren artxiboa.

Bilaketa sistema eraginkorra izan zedin, hainbat erabaki hartu behar izan dira datuen bateratzeari dagokionez. Pare bat kasu aipatuko ditut. Horietako bat izan da izenak modu bakarrean idaztea. Badira urteetan zehar izen artistikoa aldatu duten sortzaileak; esaterako, JosAnton Artze, Hartzabal, Arza anaiak, J.A. Artze eta JosAnton Artze izenak erabili ditu diskoak zein liburuak sinatzeko. Bat aukeratu behar zen, eta azkenaldi luzean erabiltzen duen sinadura (JosAnton Artze) lehene-tsi da.

badok sarrerera · historia · biografiak · diskoetxeak · idatzizkoak · bideoak · hitzak · kantak · albisteak

harreramanetarako

Hemen zaude > hitzak

> hitzak		> idazle musikatuak(*)
 > Alketarre	 > Alboka	 > Ama Say
 > Amala Zubiria	 > Anari	 > Anestesia
 > Anje Duhalde	 > Antton Valverde	 > Artze anaiak
 > Azala	 > Baldin Bada	 > Balendi Balendi
 > Bap!!	 > Benito Lertxundi	 > Berri Txarrak
 > Betagarri	 > Beti Mugan	 > Bittor Alape
 > Danba	 > Deabruak Teilatuetan	 > Delirium Tremens
 > Dut	 > EH Sukarra	 > Eltzegor
 > Eraso!	 > Errobi	 > Etsalak
 > Etxamendi eta Larraide	 > Etxakit	 > Ez Dok Amairu
 > Femín Muguruz	 > Ganbara	 > Gari
 > Gontzal Mendibil	 > Gorka Knorr	 > Guk / Eneko Labegerie
 > Haizea	 > Hertzainak	 > Hiru Truku
 > Iker Goenaga	 > Imanol	 > Iñaki Etxemendi

- > Alfonsio Irigolen
- >> Amala Lasa
- >> Augustin Zubikarai
- >> Auxtin Zamora
- >> Bernardo Atxaga
- >> Bitoriano Gandiaga
- >> Daniel Landart
- >> Edorta Jimenez / Omar Nabarro
- >> Felipe Juaristi
- >> Gabriel Aresti
- >> Gerardo Markuleta
- >> Inazio Mujika Iraola
- >> Iñigo Aranbarri
- >> Itxaro Borda
- >> Jean-Louis Davant
- >> Joan Mari Irigolen
- >> Jokin Zaitegi
- >> Jon Arano
- >> Jon Mirande
- >> JosAnton Artze
- >> Jose Angel Irigarai
- >> Jose Luis Otamendi
- >> Joseba Alkaid
- >> Joseba Sarrionandia
- >> Jose Austin Arrieta
- >> Jose Azurmendi
- >> Juan Kruz Igerabide
- >> Juan Luis Zabala
- >> Juan Mari Lekuona
- >> Kirmen Uribe
- >> Koldo Izagirre
- >> Lauaxeta
- >> Luis Berrizbeitia
- >> Luis Mari Mujika
- >> Manex Erdozaintzi-Etxart
- >> Mikel Albu
- >> Mikel Arregi
- >> Mikel Azurmendi
- >> Mikel Lasa
- >> Mikel Zarate
- >> Nemesio Etxaniz
- >> Orize
- >> Pako Aristi
- >> Patxi Zabaleta
- >> Patziku Perurena
- >> Pello Lizarralde
- >> Rafa Egiguren
- >> Roger Idiat

Beste kasu batzuetan, *Berria*-ko Estilo Liburuaren arauari jarraituz, euskal grafia erabili da, artistak erdal grafia erabili arren. Kasu nabarmenena Beñat Axia-rirena da (kantariak Beñat Achiari erabiltzen du).






















Dokumentazioari dagokionez, datuak osatzea izan da zailtasun nagusietako bat: hitzen eta doinuen egileak, musikariak... Ohitura faltagatik, axolagabeke-

riagatik edo garrantzia ez emateagatik, kontua da 60-70eko hamarkadetako diskoetan oso gutxitan agertzen direla kredituak: musikariaren izenak, grabazio estudioa, ekoizlea... Tamalez, urte asko pasa dira eta zenbait datu berreskuratzea zaila izango da.

Beste batzuetan, izen-abizenak osatu behar izan dira, alderdi entziklopediko batetik atariak bere funtzioa bete zezan. Ohitura zegoen, eta oraindik ere badago, rock taldeetan batez ere, izena bakarrik jartzeko, edo goitizena... Ikuspegi entziklopediko batetik, ordea, gutxi balio du gitarrista «Josu» delako bat dela jartzeko.

badok sarrera · historia · biografiak · diskoetxeak · idatzizkoak · bideoak · hitzak · kantak · albisteak

Idatzizkoak

	... Y la palabra se hizo música. La canción de autor en España.		Aho bete doinu. Euskal musikagintzaren iragana, oraina eta geroari buruzko elkarrizketak		Bap!!, bal ederki
	Benito Lertxundi, Orioko bardo		Beste bat! 18 herri kanta		Biziazen altzotik
	Del txistu a la telecaster. Crónica del rock vasco		El Tubo		Entzun!
	Euskal kantagintza berria. 1961-1985		Euskal kantagintzan urrats berri		Euskal rock'n' rolla. Histoire du rock basque
	Gazteri berria, kantagintza berria		Halek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk Itxaka?		Hamar elkarrizketa
	Hertzainak: la confesión radical		Imanol, una voz de tierra y viento		Itoiz, hari xingle bat
	Jesus Mari Artze, ttakunaren esku Isila		Jotakie, Urolan pop		Kepa Junkera, trikittixa

2. Dokumentazio grafikoa

Argazkiek eta diskoen azalek osatzen dute atal hau. Argazkietarako, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berria* egunkarietako artxiboak erabili dira gehienbat. Diskoetxeek banaturiko promozio argazkiak dira gehienak. Horrez gain, zenbait kasutan artisten artxibo pertsonalak, beste komunikabideetakoak (*Argia*, *El Diario Vasco...*) edota argazkilarienak (Jon Iraundegi, Aitor Arregi *Txisko...*) erabili dira.

Hemen ere hainbat arazo agertu dira. Batetik, diskoetxeek banaturiko promozio argazki asko sinatu gabe daude (oraindik horrela iristen dira argazki asko erre-dakzioetara) eta ez dituzte argazkietan agertzen direnak identifikatzen.

Besterik, hutsune handia dago 70eko hamarkadako taldeen kasuan: Izukaitz, Haizea, Errobi, Koska...

Dokumentazio grafikoaren barruan sar genezake kantuen hitzen atala ere, pdf artxiboek diskoak argitaratu ziren jatorrizko diseinua ezagutzeko aukera ematen dutenez.

3. Dokumentazio soinuduna

Diskoetxeen eta artisten elkarlan eta eskuzabaltasunari esker, 400 kantu inguru entzun daitezke webgunean, osorik eta *streaming*-en (ordenagailura jaisteko aukerarik gabe).



Hemen zaude > sarrera > artistak > mikel laboa > Lau-Bost

mikel laboa > Lau-Bost (LP) Xoxoa, 1980 (4401, 4402) Iraupena: 74' 27"



Azala: Jose Luis Zumeta

Mikel Laboa, gitarra, ahotsa
Txomin Artola, kontrabaxua
Antton Fernandez, teklatuak
J.A. Ontorio, akordeola
Antton Valverde, pianoa
Jose Mari Zabala, gitarra elektrikoa
Gonzalo Muga, flauta
J.A. Borbolla, atabala
Isabel Loroño, irrintziak

LAU

1. - Kantuz (Hitzak eta musika: Jose Mendiaga)
2. - Liluraren kontra (Hitzak: Bertolt Brecht-Musika: Mikel Laboa)
3. - Nahiz eta heriotza (Hitzak: JosAnton Artze-Musika: Mikel Laboa)
4. - Xoxo beltza (Hitzak eta musika: Herrikoiak)
5. - Izarren hautsa (Hitzak: Xabier Lete-Musika: Mikel Laboa)
6. - Besterik ezagutu ez eta (Hitzak: JosAnton Artze-Musika: Mikel Laboa)
7. - Komunikazio-Inkomunikazio (Leketio 5) (1976-77) (Mikel Laboa)

BOST

8. - Ama (Musika eta hitzak: Otsubi)
9. - Dialektikaren laudorioan (Leketio 3) (1971) (Hitzak: Bertolt Brecht, Musika: Mikel Laboa)
10. - Oi Pello Pello (Musika eta hitzak: Herrikoiak)
11. - Langile baten galderak liburu baten aurrean (Hitzak: Bertolt Brecht-Musika: Mikel Laboa)
12. - Herria eta hizkuntza (Hitzak: Xalbador-Musika: Mikel Laboa; George Brassens - gorazarra)
13. - Haizea dator Ifarraldetik (Hitzak eta musika: Xabier Lete)
14. - Xoxo beltza (Hitzak eta musika: Herrikoiak)
15. - Orreaga (Leketio 6) (1978) (Musika: Mikel Laboa)
16. - Martxa baten lehen notak (Hitzak: JosAnton Artze-Musika: Mikel Laboa)

Grabazioa: Xoxoa estudioa (Galdakao, Bizkaia)
Soinu teknikaria: Jean Phocas

Beste argitaraldiak:
LP Elkar, 1990 (ELK-4401, ELK-4402)
Beste euskarrietan:
CD Elkar, 1992 (Elkar KD 4401/2)

Entzun: Izarren hautsa



VI

www.ahotsak.com: Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea. Bilketa, katalogazioa eta hedapena

Asier Sarasua Aranberri

Badihardugu Euskara Elkarte/Asociación en pro del euskara Badihardugu

Laburpena: 2003. urteaz geroztik, Badihardugu Euskara Elkarte Euskal Herriko ahozko ondarea biltzen ari da. Bideokamera hartu, herririk herri joan, eta 70-80 urtetik gorako euskal hiztunen lekukotasunak jasotzen ari gara. Alde bate-tik herri bakoitzeko hizkera eta doinua jasotzeko; beste alde batetik, galzorian da-goen ahozko euskal ondarea biltzeko, lekukoak hitzen bitartez garai bateko Eus-kal Herriko sineskerak, bizimodua eta pentsaera jasotzen baitira. Proiektuaren lehentasun nagusia bilketa-lana da, baina, horrez gainera, ezinbestekoak dira ka-talogazioa eta, ondoren, hedapena. Datozen orrialdeetan egitasmo honen helburu eta alderdi tekniko nagusiak laburbilduko ditugu; alde horretatik, katalogazio la-nari emango diogu garrantzi gehien.

Hitz nagusiak: ahotsak, euskalkia, hizkerak, ahozko ondarea, ahozkotasuna, ondare immateriala, mediateka, Internet.

Resumen: Desde el año 2003, la Asociación por el euskara Badihardugu está recogiendo el patrimonio oral de Euskal Herria. De pueblo en pueblo, con una videocámara, estamos recopilando los testimonios de las personas vascopar-lantes mayores de 70-80 años. Para recoger, por un lado, la forma y la entonación del dialecto de cada pueblo; y, por otro lado, para reunir el patrimonio oral vasco, creencias, modo de vida y pensamiento del País Vasco de otra época, a través de las palabras de los testigos, que corre peligro de perderse. La prioridad del pro-yecto está en el trabajo de recogida, pero, además, son inevitables la catalogación y, después, la difusión. En las próximas páginas resumiremos los objetivos y los aspectos técnicos principales de este proyecto, dando una mayor importancia al trabajo de catalogación.

Palabras clave: voces, dialecto, patrimonio oral, oralidad, patrimonio inmате-rial, mediateca, Internet.

1. AURREKARIAK

2003. urteaz geroztik, Badihardugu Elkartek Euskal Herriko ahozko ondarea biltzen dihardu. Gure asmoak hauek dira: 1) euskal herri guztietako lekukotasunak jasotzea, euskarak dituen doinu eta kolore guztiak bildu ahal izateko; 2) xx. men-

deko bizimoduaren lekuko izan diren gizon-emakumeen bizipenak eta kontakizunak biltzea; eta bildu ez ezik, jasotakoa katalogatu eta hedatzea.

Horretarako, gehienbat 70-80 urtetik gorako herritarrak elkarrizketatzen ditugu. Haiek dira XX. mendean izan diren aldaketak ondoen ezagutzen dituztenak (lehen pertsonan ezagutzen dituztenak) eta, baita ere, herri hizkera ondoen gorde dutenak eta garai bateko euskararen ezaugarri eta musika biltzeko ezinbesteko iturria. Azken batean, XX. mendeko euskal ondarearen ahozko artxibo bat osatu eta antolatu nahi dugu, paperean baino, herritarren lekukotasunen bidez hornitutakoa.

Elkarrizketatzen ditugun lagunak, gainera, protagonista izan ziren gure herriko kulturen, bizimoduan, politikan eta kirolean; lehen pertsonan egiten digute hitz. Haiek orain eskaini dezaketen ahozko informazio hori beste inon ez dugu batuko. Kultura materiala ez da sortzailearekin batera desagertzen; hitza, ordea, igorlearekin batera hiltzen da. Bilketa proiektu honen bitartez, ahozkotasunean jaio eta bizi izan diren azkeneko hiztunen hitza jaso nahi dugu.

Azken ahalegina egiteko unean gaude, gainera. Proiektua abiatu genuenean, orain 10-12 urte, 1905-1915 inguruan jaiotako lekukoak elkarrizketatzen genituen (1890-1900 inguruan jaiotakorik ere badaukagu); une honetan, aldiz, 1920-25 inguruan jaiotakoak dira lekukorik gehienak. Denbora gure kontra doa eta laster ez dugu izango XX. mende hasierako gertakizunen berri zuzen-zuzenean emango digun lekukorik. Orduen aurkako lasterketa da, hortaz.

Gerra zibila mugarri garrantzitsua da gure historian. Gerra zibilaren aurreko gizartea eta ondorengoa bi mundu dira, erabat ezberdinak gizarte aldetik, baita kulturen, ekonomian, industralizazioan, euskararen... Garrantzitsua da gerra aurretik jaiotako lekukoaren belaunaldia batzea. Izan ere, hiztun horiek hiru ezaugarri nagusi dituzte, guretzat oso garrantzitsuak direnak:

1. Lehenik, euskaldunak dira, euskaldun osoak dira. Hau da, bizi guztian euskaraz hitz egin dute eta euskaraz moldatu dira. Batzuek ia-ia gaztelaniaz ere ez dakite edo behintzat haien eguneroko bizimodua euskaraz eraiki dute eta haien izaera eta bizipenak euskaraz garatu dituzte.
2. Bigarrenik, ahozkotasunean jaiotakoak dira. Hau da, idazten ere gehienek justu-justu dakite eta idatzi gutxi egin dute. Irakurri ere, gehienek ez larregi. Ondorioz, haien diskurtsoa eratzeko modua eta kontakizuna jaso eta igortzeko tresna ahotsa izan da.
3. Eta hirugarrenik, desagertzen ari den tradizio bateko belaunaldia da; hau da, gerra aurreko Euskal Herri tradizionala ezagutu zuten. Mendez mende, belaunaldiz belaunaldi, Euskal Herrian jaio eta transmititu diren ohiturak, sinesmenak eta bizimodua, kasu askotan, haiekin batera desagertuko dira. Eta haien ahotsean besterik ez dauzkagu.

Horixe izan zen Euskal Herriko Ahotsak proiektua martxan jartzeko ideietako bat: belaunaldi horren lekukotasuna jasotzea; ondo katalogatu eta sareratztea, guztion esku jartzeko. Izan ere, antzeko beste proiektu batzuk ere badira, baina askotan giltzapean gordeta geratzen dira, edo ez zaizkie herritarrei eza-

gutuzera ematen. Gure kasuan, katalogazioa eta hedapena ere ezinbestekoak izan dira hasiera-hasieratik, eta jasotako guztia (edo ahal den gehiena) Interneten jar-zeko asmoa izan dugu proiektua jaio zen unetik. Dena sarean, libre eta herritar guztien esku.

Ahotsak egitasmoa 2003. urtean jaio zen. Sasoi hartan, eta Badihardugu Euskara Elkarteari¹ esker, antzeko proiektuetan murgilduta geunden zenbait lagun elkartu ginen, denak ere Deba Ibarrekoak (Eibar, Bergara, Soraluze, Aretxabaleta, Mutriku...). Guztiok genbiltzan antzeko proiektuak burutzen, herri hizkerak eta ahozko ondarea biltzen. Berehala konturatu ginen denok behar eta premia bere-tsuak genituela eta alferrikako lana egiten ari ginela, bakoitza bere herrian dena hutsetik sortuz: galdetegiak, metodologia, datu-baseak... Ordura arteko esperien-tzia jaso (batez ere, «*Eibartarren Ahotan*»² proiektuan egindako lana) eta *Ahotsak*³ proiektua jaio zen. Helburua zen herri batean egindako lana beste guztietan erabili ahal izatea, eta guztion artean Deba Ibarreko ahozko ondarea biltzea (herri hizke-rak zein memoria historikoa).

Hasiera batean Badihardugu Euskara Elkartea hasi zen proiektu honetan, baina hasiera-hasieratik elkarlana bultzatu genuen, beste elkarte eta udaletxe batzuk ere proiektuan inplikatzeko. Eskualde mailako proiektu izan zena laster bilakatu zen Euskal Herri osoko proiektu (2007an). Eta ibilbide horretan 50 udaletxe, euskal erakunde nagusiak, 40 kultur elkarte eta makina bat ikerlari eta herritar sartu dira proiektuan, haien babesa eskainiz, grabazioetan eta ikerketan lagunduz, zinta zahar-rak emanaz, eta abar. Herri batzuetan Badihardugu elkarteak egiten du lanaren zatirik handiena; beste batzuetan, aldiz, oinarri metodologikoak, baliabideak eta azpiegitura teknikoak uzten ditu, eta herriko elkarteak da lanaz arduratzen dena lan-kidetza hitzarmen bati esker. Horixe da, besteak beste, Oiartzunen (Ttur-ttur Eus-kaltzaleen Bilgunearekin), Ermuan (Euskal Birusarekin) edo Arbizun (Zizkerte Kultur taldearekin) egindakoa.

Lankidetza horri esker, azken 5 urteotan lan-erritmoa asko bizkortu da eta proiektuaren zenbaki orokorretan ere eragina nabari da. Hala, hauxe da 2011ko maiatzean www.ahotsak.com atarian dagoen materiala:

- Herriak: 195.
- Hizlariak: 3.238.
- Zintak: 4.423.
- Pasarteak: 26.678.
- Transkribatutakoak: 4.175.
- Ikus-entzunezko fitxategiak sarean: 6.298.

¹ Badihardugu Elkartea: <http://www.badihardugu.com>

² Eibartarren Ahotan: http://www.egoibarra.com/Eibar/Eibartarren_Ahotan

³ Euskal Herriko Ahotsak: <http://www.ahotsak.com>

2. METODOLOGIA

2.1. Grabazioak egitea

Proiektu honen oinarri-oinarrizko baliabideak hiztunak eta grabazioak dira eta horietan dira ongien zaindu behar direnak. Lekukoak aukeratzeko irizpide hauek baliatzen ditugu: herrian bertan sortuak izatea, ahal dela bizi guztia bertan igarotakoak, eta herriko hizkera menperatzea. Horrez gainera, burua argi izatea eta ongi ahoskatzea komeni da, noski. Laginketa egiteko orduan, aukeraketa soziolinguistiko zuzena egite aldera, herri bakoitzean elkarrizketatuen ezaugarriak orekatzea ezinbestekoa da: sexua, auzoa, adina, lanbideak, kaletar/baserritar oreka...

Elkarrizketak egiteko orduan, lehenengo urratsa hizlariaren profil txiki bat lortzea izaten da (biografia, zaletasunak, lanbideak...), eta horrekin batera galdetegia atondu behar izaten da. Elkarrizketa egiteko toki lasai bat adostu (lekukoaren etxean bertan, gehienetan) eta grabazioa egiten da, bideokamera, mikrofonoa, tripodeta eta fokoa erabiliz.



Tertulia Berastegin, 2009

Egilea: Badihardugu Euskara Elkarte, CC-by-sa

Gure esperientziaren arabera, elkarrizketak ezin dira galdera-erantzun hutsak izan. Jende nagusia da eta, batzuetan, gure intereseko gaietatik urruntzen diren arren, «libre» hitz egiten utzi behar zaie eta, ahal denean, pixkanaka, harira itzultzen ahalegindu. Mekanika horrek asko luza ditzake elkarrizketak, baina horrela behar du izan, bestela ez direlako eroso sentitzen. Eta garrantzitsuena horixe da: hizlaria eroso egotea, aurrean daukan kamera ahaztea eta lasai-lasai hitz egitea. Eta neurri handi batean lortu egiten da. Bideokamera 2-3 metrora jartzen dugu, plano finkoarekin, eta saiatzen gara elkarrizketatua ahalik eta gutxien asaldatzen.

Metodologia eta teknika berbera erabili arren, elkarrizketa guztietan ez da lan-
eskema berbera jarraitzen. Garrantzitsua da elkarrizketak ondo prestatzea: pertsona
bakoitzari zer galdetu behar zaion finkatzea, nola galdetu erabakitzea, lehenasuna
izango duten gaiak zehaztea, eta abar. Dena dela, bide osoan jarrera ireki eta mal-
gua izaten ahalegindu behar da. Galdetegiak ez du aldeazina izan behar. Agertuko
diren gai berri eta interesgarriak, hasiera batean aurreikusi gabe egon arren, gal-
detegira gehitzea komeni da. Gainera, sekula ezin da jakin hitzun batek noiz kon-
tatuko dituen gauza interesgarrienak. Badira gerra aurreko politikaz asko dakiten
txirrundulariak, meza-mutil izandako komunistak, orfeoian abesten zuten zinego-
tziak...

Gehienez 90-120 minutuko grabaketak egiten ditugu, lekukoak neka ez dai-
tezen. Kontuan izan behar da haiekin emandako ordu guztiak ez direla grabatzen
eta, horrez gain, grabazio ordu guztiak ere ez direla gero erabiltzeko modukoak
izaten.

Elkarrizketak banaka egiten ditugu gehienetan (hobeto egiten dira eta haria
errazago jarraitzen da), baina noizean behin tertulia modukoak ere antolatzen di-
tugu. Tertulia horiek lagun arteko hizkuntza eta hitanoa jasotzen laguntzen dute;
gainera, elkarren arteko tirabiran gai eta kontu gehiago agertzen dira. Batzuetan ar-
gazki zaharrak erabiltzea ere komeni da, elkarrizketatuen oroimenak gogora ekar-
tzen laguntzeko.



Gariaren inguruko elkarrizketa bat prestatzen, 2011

Egilea: Badihardugu Euskara Elkarte, CC-by-sa

2.2. Grabazio zaharrak jasotzea

Elkarrizketak egitearekin batera, han eta hemen, Euskal Herri osoan sakanatuta dauden zinta zaharrak ere berreskuratzen ditugu. Izan ere, Euskal Herrian dozenaka azterketa eta libururako egin dira grabazio dialektologikoak azken 30 urteotan, baina, gehienetan, behin argitaratuta, grabazioak ez dira erabiltzen eta bazterren batean zokoratuta geratzen dira. Garrantzitsua zen orain arte egin den lan eta material guzti hori jaso eta argitara ateratzea, eta ahalegin berezia egin dugu horretan, ahozko ondarea biltzeko lanetan jardun duten bitartekoekin harremanetan jarrita: udaletxeak, euskara elkarteak, ikastetxeak, ikerlariak... Bide horretatik ere ehunka zinta eta minidisc jaso ditugu.

Zinta berriak ondo daude, baina zaharrak, zinta analogikoak direnez, premia-premiazkoa da lehenbailehen kopiatzea eta euskarri digitalera pasatzea, ez daitezkeen galdu. Kasurik gehienetan, gainera, soinua garbitu egiten dugu. Audioa bakarrik duten grabazioak CDetan gordetzen ditugu; eta bideoak DVDetan. Kopia egin ondoren, originalak (eta kopia bat) jabeari itzultzen dizkiogu. Material guztia zerbitzarian ere gordetzen da, fitxategi digitaletan.

Adibidez, egitasmo honetan bildu ditugu Bergarako lanbide zaharren inguruko liburuetarako egindako grabazioak, Zarauzko euskararen azterketa egiteko egindako grabazioak, Eskoriatzako argazki zaharrak dokumentatzeko egindako grabazioak, Ordiziako euskara aztertzen duen libururako egindako grabazioak, Eibarko mendi-toponimia proiekturako egindako grabazioak, Arrasateko kantuak biltzeko proiektukoak, eta abar.

2.3. Zintak katalogatzea

Orain arte bilketaz jardun dugun arren, herrien ahozko ondarea jasotzeko, grabazioak zuzen egitea bezain garrantzitsua da gero grabazioak sailkatzea eta katalogatzea. Horrelako proiektu batean material asko sortu eta jasotzen da eta, informazioa egoki ustiatze aldera, nahitaezkoa da bildutakoa modu sistematikoan sailkatzea eta gordetzea, bai jasotako informazioa ondo kudeatzeko eta erraz biltzeko, bai datozen urteetan egin daitezkeen hedapen proiektu berriak errazteko eta transkripzioak zentzuz egiteko (grabatzen den guztiak ez du interes berbera, eta ez du merzei zintak oso-osorik idatziz jasotzea).

Horretarako MySQL datu-base bat erabiltzen dugu. Sarean dago, zerbitzari batean, eta edonondik sar gaitzke bertara, datuak katalogatzeko, aldatzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko. Sarean eta saretik egiten dugu lan, beraz. Datu-basea administratzeko Django aplikazioa erabiltzen dugu, Interneteko datu-baseak errazago kudeatzeko balio duen erreminta multzoa.

Guztira 30 taula baino gehiago daude gaur egun darabilgun datu-basean, baina hauexek dira nagusiak:

- *Grabazioak*: noiz, non eta nork egin duen grabazioa, iraupena, ohar teknikoak...

- *Hizlariak*: jaioteguna, biografia laburra, helbidea, argazkia...
- *Gaiak*: gaien kodeak jasotzen dituen taula, bere azpiko lotura eta abarrekin.
- *Proiektuak*: egitasmo honen barruan dauden proiektuei buruzko informazioa.
- *Pasarteak*: elkarrizketa bakoitzaren minutuz minutuko laburpena (minutu bakoitzean hitzunak zeri buruz hitz egin duen kode batzuen bidez zehaztu dugu; gai hori hurrengo puntuan azalduko dugu).
- *Euskalkiak*: Euskal Herriko euskalkien zuhaitza, herri eta auzo bakoitzean hitz egiten den aldaera edo hizkera definitzen duena.
- *Auzoak eta herriak*: Euskal Herriko auzo eta herri guztien zerrenda, eskualdeka eta lurraldeka antolatuta.

The screenshot shows the 'Ahotsak.com administrazioa' interface. The main section is titled 'Hizlaria aldatu' (Edit speaker). It contains several sections:

- Data pertsonalak** (Personal data):
 - Abizenak: Abarrategi
 - Izena: Miren
 - Slog: miren-abarrategi
 - Sexua: Emakumea
 - Galizena: (empty)
 - Auzoa: Amasata
 - Argazkia: 233
 - Data jaio: 1921-01-01
 - Data hil: 2007-01-01
- Zintak** (Citations):
 - Zintak: ARK-012, ARK-013, ARK-139
- Biografia** (Biography):
 - Biografia: (Rich text editor containing text about the speaker's birth in Amasata in 1921 and their death in 2007.)

Hiztun baten fitxari pantailan ateratako irudia

2.4. Grabazioak lantzea: kodifikatzea

Aurreko puntuan azaldu dugun moduan, grabazio bat egin edo zinta zahar bat jasotzen dugunean, lehenengo urratsa zinta hori katalogatzea da: elkarrizketa non egin den, nork egin duen, noiz egin den, nori egin zaion, zer proiekturen barruan eta zer baliabiderekin, zer euskarritan...

Baina zer gertatzen da zintaren barruan dagoen informazioarekin? Hau da, nola katalogatzen dugu lekuko horrek kontatu diguna? Hori da zailena. Ordubete, ordu eta erdi, bi ordu egin ditugu hizketan. Grabazioan lekukoak hainbat kontu aipatu ditu. Hori guztia nola katalogatzen dugu? Nola lantzen dugu? Elkarrizketaren

hasierako oinarriko katalogazioaren ondoren, beraz, grabazioan jasotako ahozko jardunaren katalogazioa dator. Horretarako, minutuz minutuko laburpena egin dugu. Behin grabazioa eginda berriro entzuten dugu, entzundaldia behar bestetan etenda, eta grabazioan zehaztu daitezkeen pasarteak markatzen ditugu, hau da, kontakizun luze horretan kontatu diren istorioak eta pasarteak definitzen ditugu. Azkenean, ordubeteko edo bi orduko zintak, 2-3 minutuko 20 edo 40 pasartetan zatikatzen ditugu.

Hortik aurrera, gure lan unitatea ez da lekuko bati egindako grabazioa edo zinta, pertsona horrek kontatu dituen hogei edo berrogei ipuinak baizik. Ipuin txikiak, hasiera eta bukaera duten kontakizun laburrak, bakoitza bere gaiarekin.

Zinta pasartetan zatitzerakoan, pasarte bakoitza behar bezala katalogatzeko aukera sortzen zaigu: nola kontatu duen, zer kontatu duen, zer gai jorratu duen, zer iraupen duen... Pasarte bakoitzari izenburua eta laburpena ere gehitzen dizkiogu.

Lanketa fase horren amaieran, gaiak zein zintatan dauden eta zinta horren zenbagarren minutuan dauden jakin dezakegu. Kontuan izan, gainera, datu-base hori irekia dela; hau da, prest geratzen da datozen urteetan egin daitezkeen beste grabazio batzuk txertatzeko eta ordura artekoarekin bateratzeko.

Ahotsak.com administrazioa

Hasiera > Base > Zintak

Aldaketarako Zinta aukeratu

Bilatu 94 emaitza (4838 guztira)

< 2010 Maiatza 3 Maiatza 4 Maiatza 5 Maiatza 6 Maiatza 7 Maiatza 10 Maiatza 11
 Maiatza 13 Maiatza 14 Maiatza 17 Maiatza 19 Maiatza 21 Maiatza 24 Maiatza 25 Maiatza 26
 Maiatza 28 Maiatza 31

Ekintza: Auzera Guztira 94, 0 aukeratuta

ID	Kodea	Auzoa	Proiektua	Gethizlariak	Getelkarrizketatzaileak	Iraupena	Data grabazioa	
<input type="checkbox"/>	2839	ANE-001	Azkaine	Euskal Herriko Ahotsak	Zozaiia, Battitt	Aire, Xan	66	Api. 22, 2010
<input type="checkbox"/>	2794	ARA-107	Aramaio	AED elkarteak	Ugarte Urrutia, Basilio; Urizar, Felipe		14	(None)
<input type="checkbox"/>	2811	ARA-108	Aramaio	Euskal Herriko Ahotsak	Ibabe Ortueta, Enrike	Elortza Odriozola, Kepa	59	Mai. 7, 2010
<input type="checkbox"/>	2814	ARA-109	Aramaio	Euskal Herriko Ahotsak	Ibabe Zubizarreta, Valentin	Elortza Odriozola, Kepa	74	Mai. 10, 2010
<input type="checkbox"/>	2815	ARA-110	Aramaio	Euskal Herriko Ahotsak	Etxebarria Elorza, Maria Luisa	Elortza Odriozola, Kepa	65	Mai. 10, 2010
<input type="checkbox"/>	2846	ARA-111	Oleta (Aramaio)	Euskal Herriko Ahotsak	Karetxe Urrejola, Pedro	Elortza Odriozola, Kepa	89	Mai. 19, 2010
<input type="checkbox"/>	2847	ARA-112	Aramaio	Euskal Herriko Ahotsak	Abarrategi Irsuegi, Maria Jose;	Elortza Odriozola, Kepa	101	Mai. 19, 2010

Zintak kudeatzeko sistemaren interfazea

2.5. Pasarte interesgarriak editatzea

Zintak kodifikatu ondoren, jasotako informazioa prest dugu nahi bezala erabiltzeko. Pasarteak eta gaiak identifikatuta dauzkagu, pasarterik interesgarrienak

ere zehaztuta, eta abar. Internetek aukera ematen digu bildutako material guztia gizarteratzeko (bideoa, soinua, transkripzioak, argazkiak); hala ere, gure helburua ez da zinta osoak —hasieratik amaierara— sarean jartzea. Hori baino, iruditzen zaigu egokiagoa dela zinta bakoitzeko pasarte interesgarrienak eskaintzea, gaika eta herrika antolatuta. Interesgarrienak diren pasarte horiek editatzen ditugu lehenbizi. Batetik, transkribatu egiten ditugu; eta bestetik, ikus-entzunezko artxiboa editatzen dugu. Bideoen kasuan, pasarte bakoitza hiru formatutan jasotzen dugu: jatorrizko AVI fitxategian, editatutako AVI fitxategian eta Flash fitxategian (FLV). Soinu artxiboetan MP3 formatua erabiltzen dugu. Webgunean Flash irakurgailu bidez erakusten ditugu, bai soinu-artxiboak, bai bideo-artxiboak.



Donostiako proiektuaren aurkezpena eta lekukoei egindako omenaldia, 2011

Egilea: Badihardugu Euskara Elkarte, CC-by-sa

2.6. Informazioa www.ahotsak.com webgunean jartzea

Azken urratsa aipatu informazio guztia Interneten jartzea da. Jasotako guzti-guztia ez dago Interneten, noski. Batetik, material guztia ez dagoelako landuta; eta bestetik, jasotako guztia ez delako argitaratzeko modukoa. Baina gure nahia eta gogoia da sarean ahalik eta material gehien jartzea.

www.ahotsak.com ataria sortzeko software libreko tresnak erabili ditugu: datu-baserako MySQL, eta ataria sortzeko eta kudeatzeko Django aplikazioa. Doako

aplikazioak eta elkarlanean garatzen diren sistemak dira. Izan ere, gure proiektua ere elkarlanean burutu nahi dugu, jendearen parte-hartzea bultzatuz, eta horretara bideratu dugu webgunea: egiten den lan guztiaren berri ematen dugu, parte hartzeko bideak ematen ditugu, transkripzioak egiteko aukera dago, eta informazio guztia erabiltzaileen esku dago.

Material guztia lizentzia librearekin jartzen dugu on line; CC-by-sa (CC airtortu partekatu) eta API bidez ere banatzen dugu, edonoren esku jartzeko.

Proiektua euskara elkarte baten ekimena denez, sortu zenean herri hizkerak biltzea zen gure xede nagusia, herri bakoitzeko ezaugarriak jasotzea. Baina horrekin batera garai bateko kontakizunak ere biltzen ari gara eta, azken batean, Euskal Herriko memoria historikoa, historia lokala, jasotzeko bidean gara, XX. mendeko Euskal Herriko bizimodua nolakoa izan den gordeko duen eta esango digun ahozko artxibo bat sarean antolatzen. Edonoren esku, filologo, antropologo, historialari, soziologo eta herritarren esku egongo den katalogo bat sortzen ari gara.

VII

La edición digital de *La Vanguardia* y el uso de la memoria (transcripción de la ponencia)

Ismael Nafría

Director de contenidos digitales de *La Vanguardia* / Grupo Godó
La Vanguardia / Godo Taldeko eduki digitalen zuzendaria

Resumen: *La Vanguardia.es*, que el pasado mes de marzo superó por primera vez los 5 millones de usuarios únicos, basa su oferta informativa en varios pilares, entre ellos la apuesta por los contenidos propios. En este sentido, una de las líneas de trabajo es el uso de su exhaustiva hemeroteca, que incluye los casi 130 años de historia del diario *La Vanguardia* (el primer ejemplar se publicó el 1 de febrero de 1881). Los usuarios de Internet pueden acceder gratuitamente a esta completa hemeroteca formada por más de 2 millones de documentos. Cada día, el equipo periodístico de *La Vanguardia.es* recupera informaciones históricas, que complementan la actualidad y que enriquecen la oferta de esta web.

Laburpena: *La Vanguardia*-ren edizio digitala eta memoriaren erabilpena. *La Vanguardia.es*-ek pasa den martxoan lehenengoz 5 milioi erabiltzaileak gainditu zituen eta bere eskaintza informatiboa zutabe ezberdinetan oinarritzen du, eduki propioen aldeko apustu eginez, besteak beste. Zentzu honetan, lan ildoetako bat *La Vanguardia* egunkariaren ia 130 urteko historia (lehenengo alea 1881eko otsailaren lehen kaleratu zen) biltzen duen hemerotekaren erabilera zehatz da. Egunero, *La Vanguardia.es*-eko kazetari taldeak gaurkotatzen osatzen eta web orrialdearen eskaintza aberasten duten informazio historikoak berreskuratzen ditu. Interneteko erabiltzaileek doan dute sarbidea 2 milioitik gora dokumentu dituen hemerotekara.

1. INTRODUCCIÓN

Voy a explicar uno de los proyectos en los que hemos trabajado con más ilusión en los últimos años, por lo que representa en el mundo del periodismo digital, del periodismo en general y en el mundo de la comunicación; y por lo que aporta al enriquecimiento de la oferta de los medios en Internet. Se trata de la hemeroteca de *La Vanguardia*.

Primero quiero dar cuatro ideas muy básicas de lo que es *La Vanguardia.es*. El último mes de marzo, en *La Vanguardia.es*, el medio *online* desarrollado por *La Vanguardia*, hicimos nuestro récord de usuarios únicos, superando por primera vez los cinco millones, de lo que estamos muy satisfechos. A finales del año 2006, estábamos alrededor de 600.000 usuarios únicos, por lo que llevamos un creci-

miento realmente espectacular. Evidentemente, en estos años todos los medios han crecido, pero no todos han crecido a este ritmo.

HagoClic.com | EnMemoria.com | MundoDeportivo.es | RAC1 | RAC105 | Servicios | El Tiempo | Pamplona TV

LAVANGUARDIA.es

20 de abril 2010

Buscar

Subscripción | Ver la edición impresa

UNICO | SERVICIOS | PARTICIPACIÓN | FOTOS | VIDEOS | BLOGS | HEMEROTECA | HAGOCLIC.COM | INMO | EMPLEO | MOTOR | PROMOS LV

Al minuto | Internacional | Política | Ciudadanos | Sucesos | Gente y TV | Deportes | Cultura | Economía | Internet y Tecno | Motor | A Fondo

La IATA retira la licencia a Marsans para vender billetes de avión y le exige un aval

19 comentarios

CRISIS AÉREA POR LA ERUPCIÓN DE UN VOLCÁN

1 2 3

AP / Emilio Morenatti

"El mayor bloqueo aéreo europeo desde la Segunda Guerra Mundial"

Aerolíneas y aeropuertos piden ayudas por las multimillonarias pérdidas en un comunicado. Cancelados 272 vuelos en España, 166 en Barcelona

22 comentarios

Londres vuelve a cerrar su espacio aéreo por una segunda

CHAMPIONS LEAGUE

1 2 3

LVE / César Rangel

Mourinho hiere al Barça

Los interistas ganaron la partida táctica a los azulgrana, que sufrieron una asfixiante presión y no pudieron exhibir su juego de toque (3-1)

141 comentarios

Guardiola se queja de la pérdida de balones | Piqué promete una remontada | Pedro: "Estos goles nos lo ponen muy difícil" | El minuto a minuto del Inter - Barça

EL TIEMPO ofrecido por repsol.com

LA BOLSA ofrecida por grupo OPC General

LA CONTRA ofrecida por abertis

00:00

REPRODUCIR

EL VÍDEO

"La dona justa": tres miradas, una historia de amor - Alba Rodríguez

Publicidad

JUEGA el mundo

Mes del Fútbol

NUEVO VUELO PARÍS 4 65€

Los médicos que tratan a Samaranch reconocen que

Estas cosas no suelen suceder porque sí. Al hacer un medio, del tipo que sea, hay que hacer apuestas; hay que tener claro, digamos, cuáles son sus puntos fuertes, cuáles son los elementos que se quiere utilizar para intentar ganar la batalla con la competencia y para ofrecer el mejor servicio posible a nuestros usuarios. Nosotros tenemos claras algunas de estas apuestas, y las utilizamos con la mayor fuerza posible para ofrecer el mejor servicio posible. Una es la producción propia, en concreto el vídeo; pero no sólo el vídeo, la producción propia en general. En Internet todos los medios disponemos de las mismas agencias, tanto de texto como de vídeo, disponemos de recursos similares y todos un poquitín a veces abusamos de ellos y, al final, la oferta que se encuentra en la red entre un medio y otro es muy parecida. La única manera de salvarse de esto es apostando por la producción propia, que es la que acaba dando personalidad. Ésta es una fórmula que nos funciona, y que estoy seguro de que le funciona a cualquier medio que la utilice. Sólo por poner un ejemplo, con un equipo propio de seis personas cada día producimos muchos vídeos: vídeos de información, de entretenimiento a veces, de entrevistas... De la lista de los 100 vídeos más vistos en *La Vanguardia.es* en 2009, 85 eran de producción propia; el resto eran vídeos procedentes de agencias

tipo *Atlas* o *Efe*, vídeos de noticias importantes y relevantes, pero que tenía todo el mundo.

Otra de las apuestas, otra de las líneas clave que tenemos es la participación. Creemos muy profundamente en la participación de los usuarios en la web; de hecho, para nosotros los usuarios son parte de nuestra Web, y no entendemos Internet si no es así. El resultado de esto es que hay cada día miles de comentarios en las noticias, miles. Un día pueden ser cinco mil comentarios en las noticias, otro día seis mil, al siguiente siete mil, otro cuatro mil.... Pero no sólo apostamos por los comentarios, hay muchísimas otras formas de participación.


Un concepto no demasiado utilizado en los medios españoles, en general, es el de la agregación. Nosotros creemos que la agregación forma parte del medio *online*. Cuando hablamos de agregación, nos referimos a enlazar —lo que en algunos casos se llama periodismo de enlaces—. Enlazamos sin miedo a quien haga falta, cuando ese enlace aporta un valor clarísimo al producto que estamos haciendo. Porque son cosas que no estamos cubriendo o no las estamos cubriendo en la profundidad que nos gustaría; o simplemente son temas que tienen muchos puntos de vista y creemos que vale la pena que el usuario disponga de un enlace a esos temas.

Desarrollamos un proyecto llamado *HagoClic.com* que es un agregador buscador, con unas 600-700 fuentes indexadas, y que utilizamos como parte de la oferta periodística que ofrecemos en *La Vanguardia*.

Hay otra línea, un poco similar a la primera pero que nos viene un poco dada, que es la de apostar por los contenidos diferenciales, tener cosas y elementos que sólo nosotros tenemos, que nadie más puede utilizar; y, por tanto, si lo utilizamos de forma inteligente y adecuada aporta muchísimo valor, es el caso de la hemeroteca.

2. LA HEMEROTECA

La Vanguardia nació el 1 de febrero de 1881. Éstas son las seis primeras páginas de este apasionante periódico, divertidísimo de leer. Es un ejercicio interesantísimo releer éstos periódicos de finales del siglo XIX, de principios del siglo XX... interesantísimo; se encuentran cosas que son auténticas joyas narrativas. Es un ejercicio que recomiendo por puro placer, por curiosidad, por lo que queráis; para conocer cómo se explicaban y se contaban las noticias; era una especie de «empiezo a contar cosas y no acabo hasta el final». Con los años, los periódicos cambian muchísimo, como podemos comprobar si vamos pasando de década en década.



Resumo los puntos principales conceptuales de la hemeroteca. Ofrecemos acceso libre y gratuito a más de 129 años de historia de *La Vanguardia*, desde el 1 de febrero de 1881 hasta hoy. De hecho, el acceso libre gratuito no es hasta hoy, sino hasta hace 30 días, porque los últimos 30 días es un servicio que ofrecemos a los suscriptores, tanto del papel como de la web. Si quitamos esos 30 días, son 129 años totalmente disponibles en los que uno puede hacer búsquedas, navegar día a día, etc. Más de 2.000.000 de documentos, entendiendo por documentos cada página. La hemeroteca tiene toda su colección digitalizada, cada página es un PDF

y esos PDFs se han indexado para poder realizar búsquedas sobre ellos. La hemeroteca está disponible *online* desde octubre de 2008, hace año y medio aproximadamente.

The screenshot shows the 'LAVANGUARDIA.es Hemeroteca' website interface. At the top, there is a navigation bar with links for 'INICIO', 'SERVICIOS', 'EL LECTOR OPINA', 'FOTOS', 'VIDEOS', 'BLOGS', 'HEMEROTECA', 'INMOBILIARIA', 'EMPLEO', 'RACI', 'PROMOCIONES LV', and a search bar with a 'Buscar' button. Below the navigation bar, the page title is 'La Hemeroteca de La Vanguardia desde 1881'. The search results are for the keyword 'Kennedy', showing 1-10 of 25194 results. The results are ordered by relevance. Three results are visible:

- Edición del domingo, 24 noviembre 1963, página 40**
Ed. General
DOMINGO 24 DE NOVIEMBRE DE 1963 LA VANGUARDIA ESPAÑOLA HAS INFORMACIÓN GRÁFICA SOBRE EL MAGNIFICIO DE DALLAS El secretario de Justicia de Estados Unidos, Mr. Robert Kennedy, es confortado por sus hijos poco después de serle comunicada la noticia
- Edición del domingo, 11 enero 1998, página 1**
Revista
;1) LA, iii i i xi: R un r vij0] Eldestino Kennedy Retrato de los "27 primos", la tercera generación de una familia llamada a todo en Estados Unidos y condenada
- Edición del martes, 08 noviembre 1960, página 2**
Ed. General
MARTES 8 DE NOVIEMBRE DE 1960 LA VANGUARDIA ESPAÑOLA Richard M. Nixon, republicano John F. Kennedy, demócrata Lyndon Johnson, demócrata Henry Cabot Lodge, republicano

On the right side of the page, there are several utility boxes:

- Inicio Hemeroteca** and **Ayuda** links.
- Ayúdenos a mejorar**: A section asking for user feedback and comments.
- Seleccione el día de la edición**: A date selection tool with a 'Buscar' button.
- Tendencias**: A section for comparing content over time, with a 'Buscar' button.
- Búsquedas más frecuentes**: A list of popular search terms including 'guerra', 'QUIM MONZÓ', 'NECROLOGICAS', 'esqueletos', 'Titanic', 'sucesos', 'franco', 'Hitler', 'CRISIS', 'la contra', 'barcelona', 'deportes', 'guerra civil', 'futbol', 'telediaro', 'carta de ajuste', 'calatayud', 'kennedy', 'portada', 'economia'.

Cuando nos planteamos el proyecto, pusimos mucho énfasis en intentar priorizar el tema de la usabilidad, que fuera algo muy sencillo. Y vimos que había dos maneras básicas por las que la gente podría consultar la hemeroteca. Una, evidentemente, es la búsqueda: te interesa un tema, una palabra o lo que sea, y lo buscas en la cajita del buscador; y luego esa caja tiene múltiples elementos para ir afinando la búsqueda: por fechas, por palabras claves adicionales, por suplementos... El otro elemento evidente era la consulta por fechas: si sabes qué fecha te interesa, o en qué rango de fechas sucedió algo, y quieres consultarlo, vas a una edición concreta, pones la fecha y vas directamente a ese día. Ésas serían las dos vías de entrada que nos parecían más lógicas para este proyecto y así lo hicimos, la búsqueda simple, normal, y después una búsqueda con muchos más elementos.

La Hemeroteca de La Vanguardia desde 1881

Kennedy

REFINAR BÚSQUEDA

Por fecha DESDE 01 02 1881 HASTA 01 12 2009

Por palabras clave

esconder opciones de búsqueda

Mostrar sólo portadas mostrar sólo portadas en los resultados

Seleccione edición o suplemento

Excluir palabras

Limpiar campos formulario

Buscar

Resultados 1-10 de 25194 para "Kennedy"

Por defecto no se han incluido en los resultados clasificados. [Clic aquí para incluir clasificados.](#)

Esconder Línea de Tiempo

Fecha

- Clasificados
- Dossier
- ESCAPE
- Ed. General
- Ed. Girona
- Ed. Tarde
- Ed. Tarragona
- Esp. Oscar
- Especial
- LV Inmobiliaria
- LVG Barcelona
- LVG Madrid
- Magazine
- Qué fem?
- Revista
- Salud y vida
- Sup. Casas
- Sup. Ciencia
- Sup. Cultura
- Sup. Deportes

Aparte de la consulta que cada uno puede hacer en *self-service* —y que permite buscar, por ejemplo, sobre La Segunda Guerra Mundial o cualquier fenómeno de principios del siglo XX—, la hemeroteca digital es un producto muy apetitoso desde el punto de vista del producto periodístico que hacemos; disponer de esto y no aprovecharlo sería de tontos realmente. Tenemos una persona responsable y varios colaboradores dedicados a relacionar cualquier elemento de la actualidad que creamos que pueda ser relacionable con elementos de la hemeroteca; de manera que podamos ofrecer a los usuarios que estén leyendo una noticia contexto, documentación... Por ejemplo, en la noticia del accidente aéreo de la pasada semana en el que fallece el presidente de Polonia y gente del gobierno, para documentar quién era este hombre podemos enlazar a noticias de cuando fue elegido presidente, los perfiles que se publicaron, podemos enlazar a casos similares en los que otros presidentes del gobierno han fallecido en accidentes de algún tipo, etcétera. Esto es una cosa que aporta un gran valor diferencial a *La Vanguardia.es*, porque es el único sitio en el que puedes encontrarte esto. Disponer de un archivo periodístico tan valioso es un tesoro realmente.

Además, todos esos elementos los podemos aprovechar (y lo hacemos) para crear comunidad, para relacionarnos con nuestros usuarios, y lo hacemos de múltiples formas. Hemos creado desde hace poquito una página en *Facebook*, con sus

seguidores; tenemos una cuenta en *Twitter* específica para la hemeroteca; y luego tenemos, digamos, vías informales, espontáneas, de relación con los usuarios, que de hecho han sido muy emocionantes y en general lo siguen siendo. ¿Por qué? Porque no es muy habitual poner a disposición de cualquier usuario un patrimonio documental periodístico de este tipo. No he vivido ningún proyecto en el que el grado de agradecimiento, de ilusión mostrado por los usuarios, haya sido mayor. Ha sido increíble, increíble. Hemos recibido centenares de correos electrónicos, sobre todo en el inicio del proyecto, pero luego siguen cayendo; cada semana hay correo de gente diciéndote «muchas gracias por este proyecto», «la hemeroteca me ha servido para descubrir el pasado de mi familia»; porque, en algunos casos, gente que emigró hace décadas puede reconstruir lo que era su entorno. Sería incapaz de contar todas las anécdotas. Aparte de la satisfacción que produce haber lanzado un proyecto y que la gente lo reconozca, creo realmente que estamos haciendo un gran bien al medio en su conjunto, a *La Vanguardia*, al poner a disposi-

The screenshot displays the digital archive interface for *La Vanguardia*. At the top, the website header includes the logo, the word "Hemeroteca", and navigation links such as "INICIO", "SERVICIOS", "EL LECTOR OPINA", "FOTOS | VIDEOS | BLOGS", "HEMEROTECA", "INMOBILIARIA | EMPLEO | RACI", "PROMOCIONES LV", and "Tamaño: Natia Mijang | Salir".

The main content area features a search interface with the following elements:

- Selección de edición:** A dropdown menu showing "01", "02", and "1881".
- Busque por palabra clave:** A search input field with a "Buscar" button.
- Exploración de fechas especiales:** A section titled "Explore con nuestro buscador fechas especiales en su vida." with a "Buscar" button.
- Panel de ayuda:** A sidebar with "Inicio Hemeroteca" and "Ayuda" links, and a section titled "Ayúdenos a mejorar" with a welcome message and contact information: "Mándenos sus comentarios a hemeroteca@lavanguardia.es".

Below the search interface, the selected document is displayed as a newspaper page:

- Edición del viernes, 20 enero 1961, página 1**
- LA VANGUARDIA ESPAÑOLA**
- BARCELONA**
- VIERNES 20 de enero de 1961**
- NUMEROS: DON CARLOS Y DON BARTOLOME GODO**
- ABO. LIEVEY - Número 39.432**

The main image on the newspaper page is a black and white portrait of John F. Kennedy, looking slightly to the right, with a classical building facade in the background.

On the left side of the newspaper page, a search results sidebar is visible:

- Buscar:** Kennedy en el documento actual
- Resultado:** 2 documentos con 4 instancias
- Nueva búsqueda** button
- Resultado:**
 - LVG19610120-001.pdf
 - FITZGERALD KENN
 - Fitzgerald Kennec
 - LVG19610120-001.pdf
- Contraer rutas de acceso a archivos
- Usar opciones de búsqueda.
- Guardar y mostrar este PDF en.
- Buscar una palabra en el.

At the bottom right of the newspaper page, there is a "Ver texto de OCR" button.

ción del público algo así. Estamos fidelizando mucho, aportando mucho valor a la marca. Fruto de esta actividad hemos tenido la satisfacción, la suerte, de recibir varios premios tanto nacionales como internacionales.

Ésta es la puerta de entrada normal a la hemeroteca. Si ponemos la palabra Kennedy, por ejemplo, salen 25.194 resultados a lo largo de toda la historia, y mostramos en PDF la página donde aparece la palabra. Tenemos elementos para afinar los resultados: que estén entre dos fechas, añadirle palabras clave, pedir mostrar sólo los resultados de las portadas, seleccionar edición o suplemento en el que fue publicado o excluir palabras. Limitando la búsqueda anterior a las portadas, tenemos 375 resultados, y ya es muy probable que esos resultados sean mucho más relevantes: Kennedy participando en la campaña presidencial y elegido presidente, el asesinato de Kennedy... bueno, y otras apariciones de otros Kennedy. Si doy a uno de los resultados, estoy en la edición de ese día, por ejemplo en la del viernes 20 de enero del 1961, que es el día en el que Kennedy tomó posesión como presidente y la portada le está dedicada. Estoy en la página concreta, en la página uno de ese día, y tengo una previsualización del PDF, y marcada en azul la palabra que he buscado. Puedo ir a la edición completa de ese día para hacerme una idea del conjunto del periódico. Aquí hay seis páginas, se muestran nueve pequeñas representaciones de cada página, se va navegando de nueve en nueve. Si tienes la página que te interesa puedes descargar ese PDF, y trabajar con ese PDF con más comodidad. Para uso personal, permitimos todo tipo de usos. Para publicar hay que pedir permiso, y hay unas normas establecidas de enlaces. Los suscriptores del diario o de la parte web de pago —que permite acceder al periódico completo— pueden tener todo el periódico en miniatura e ir directamente a una página que tengan localizada.

Tenemos otras fórmulas de visualizar o de afinar un poquitín la búsqueda, por ejemplo, tenemos lo que se llama la línea de tiempo. La búsqueda de Kennedy ha

Resultados 1-9 de 36 páginas para "20/01/1961"

jueves 19/01/1961 Edición del viernes 20 de enero de 1961 sábado 21/01/1961

Selección edición o suplemento Ed. General Ir Descargar edición completa Ver miniaturas Servicio sólo para suscriptores

► Página 1 ◀



► Página 2 ◀



► Página 3 ◀



ofrecido 25.194 resultados, si voy a «mostrar la línea de tiempo» aparece representado en columnas cuántas apariciones hubo en cada año, ofreciendo una idea bastante clara de cuándo apareció y cómo evolucionó ese término. Al mismo tiempo es una manera de afinar los resultados, porque si hago clic en alguna de estas columnas voy directamente a los resultados a ese año.

The screenshot displays a digital archive interface for the newspaper 'LA VANGUARDIA'. At the top, it shows search results for the date '20/01/1961', indicating 1-36 pages. The main header identifies the edition as 'Edición del viernes 20 de enero de 1961'. Below the header, there is a navigation bar with a dropdown menu set to 'Ed. General', a search icon, and options to 'Descargar edición completa' and 'Ver ampliaciones'. The central area is a grid of 36 small thumbnail images, each labeled 'Página' followed by a number from 1 to 36. The thumbnails show various pages of the newspaper, including the masthead on page 1 and a large graphic on page 36. At the bottom right of the grid, there is a 'Subir' button.

Tenemos otra herramienta, que llamamos «tendencias», que permite comparar hasta tres términos en cuanto al número de apariciones que tienen en la hemeroteca. Aquí he comparado, por ejemplo, Kennedy y Nixon; salen las apariciones de uno y otro a lo largo de la hemeroteca, y haciendo clic en cada parte de esta columna también veríamos los resultados de ese año o de ese mes en concreto. Vemos, por ejemplo, que Kennedy y Nixon son relevantes en los resultados a partir del año 1952; puedo seleccionar sólo esta parte y verla con un poco más de detalle.


En cada página, en cada previsualización del PDF hemos incluido la opción de ver el texto de OCR, donde mostramos abiertamente el texto que el OCR ha sido capaz de reconocer de esta página que estamos viendo. Hacemos eso por varios motivos, uno para facilitar la indexación del contenido por parte de buscadores; y, también, para que el usuario entienda que es prácticamente imposible que los re-

Resultados | 1-10 de 25194 para "Kennedy"

Por defecto no se han incluido en los resultados los anuncios clasificados. Si desea que aparezcan, clique incluir clasificados.

Esconder Línea de Tiempo ?
 Ordenar por Relevancia | Fecha ▲
▼

Resultados a lo largo del tiempo 1881 - 2009



Zoom: 10 años 20 años 40 años Todo

Tendencias

Compare los contenidos publicados en La Vanguardia a lo largo del tiempo

Introduzca un máximo de tres búsquedas separadas por comas. Ej. guerra, paz

[Inicio Hemeroteca](#)


[Ayuda](#)

Ayúdenos a mejorar


Bienvenido a la nueva Hemeroteca de La Vanguardia. Nos interesa mucho conocer su opinión. ¿Que le parece? ¿Cómo podemos mejorarla?

Mándenos sus comentarios a hemeroteca@lavanguardia.es

Resultados a lo largo del tiempo



Kennedy Nixon



sultados sean perfectos, sobre todo con periódicos muy antiguos, donde la calidad de la edición conservada o de la digitalización no es perfecta, ya que habría que repicar de nuevo todos los textos para asegurar que los resultados son 100 % fiables. Si el usuario no encuentra una palabra, a lo mejor es porque esa palabra se lee mal, y entonces la indexación correcta es imposible. El grado de acierto de las ediciones de las últimas décadas es altísimo, y en ediciones más antiguas bastante aceptable.



ADVERTENCIA SOBRE ESTE TEXTO:

El texto que verá a continuación ha sido obtenido mediante un sistema automático de reconocimiento óptico de caracteres (OCR) que se ha aplicado sobre el pdf de la página correspondiente de La Vanguardia. Debe tener en cuenta que, en muchos casos, el texto no se ajusta totalmente al original, especialmente cuando éste no puede reconocerse con facilidad debido a su antigüedad, al estado de conservación o a la tipografía utilizada, entre otras razones.

C ampeones, campeones, campeones, oe, oe, oe"; "Barça, Barça, Barça" todavía hoy se debe oír en París, fue un grito que costó lo suyo, que salió del corazón, que reclamó de la sangre, del orgullo, de las entrañas, de la fe y de la esperanza, y del alma de todo el Barça. Un título que estuvo 75 minutos del lado de un Arsenal épico, que con diez jugadores desde el minuto 18 puso al Barça a sufrir, a recordar lo malo cuando este equipo se había olvidado de lo que era estar en el lado oscuro, en el de los perdedores. Una Champions que tuvo que ser peleada de forma brava y que acabó siendo ganada desde la agonía, respirando de forma agitada, mirando el reloj, que pasaba minutos y no movía el 0-1, que el Arsenal implantó en el minuto 37 gracias a un cabezazo de Campbell. Ese gol, marcado cuando los ingleses ya jugaban con un hombre menos, se mantuvo amenazador, como una pistola en la sien, pensando que iba a prevalecer, que iba a matar la esperanza, y la vida de este Barça de Rijkaard, el hombre triunfador, se iba a quedar sin su maravilloso sueño. Historia pura, Barça, fue la que escribió ayer, delante de millones de telespectadores. Es la segunda Copa de Europa que conquistas después de saborear la primera hace 14 años. La imagen

3. ENLACES A LA HEMEROTECA Y EFEMÉRIDES

Dentro de la web general hay una sección que es hemeroteca, y en su portada vamos tratando multitud de temas que tienen relación con la actualidad. Son piezas periodísticas que uno puede encontrar en la portada de *La Vanguardia*. Por ejemplo, Samaranch está ingresado en estado grave. Ayer por la noche hicimos un enlace a la hemeroteca del día en el que Juan Antonio Samaranch fue elegido

presidente del COI, podríamos haber hecho diez más o quince más, y muy posiblemente estemos trabajando en ello hoy.

Los médicos que tratan a Samaranch reconocen que no pueden ser optimistas



El estado del presidente de honor del COI es "muy grave"

11 comentarios

• **Hemeroteca:** Samaranch, presidente del COI (1980)

Un historiador sitúa la casa de Colón en el barrio de la Ribera de Barcelona

Bilbeny sostiene que los primeros pobladores de América "hablaban catalán" y defiende que el "seseo que se da como un rasgo lingüístico en todos los países americanos" es prueba de ello

355 comentarios

• **Hemeroteca:** Redescubriendo a Colón

Los periodistas, que conservan en su memoria los cortes de voz tal y como los sacaron, o tal y como sonaron en su día, prefieren que se conserven los audios cortos y bien catalogados, para poder ponerlos en antena de forma inmediata. Pero un «corte de voz» puede descontextualizarse con el tiempo, o quizá forme parte de un documento sonoro de mayor duración en el cual haya otros fragmentos que queramos recuperar en el futuro. El problema que se le plantea al documentalista es que, cuanto más largo sea el documento sonoro, más se tardará en extraer la declaración interesante cuando la actualidad lo exija.

Todo esto podemos verlo más claro con un ejemplo: las intervenciones en el debate sobre el estado de la nación. A lo largo del día van sonando diferentes «cortes de voz» de lo dicho por el presidente del Gobierno, por el líder de la

oposición y por los portavoces de los diferentes grupos. Sin embargo, no podemos limitarnos a guardar únicamente esos «cortes de voz», debemos guardar las intervenciones. Primero, por el valor histórico del debate y, segundo, porque en un futuro pueden pedirnos algún fragmento de esas intervenciones que en su momento no se emitió.

En resumen, esta es la selección diaria que hacemos en Fonoteca:

- Los «cortes de voz» más importantes del día.
- Las entrevistas en directo realizadas en la programación. Las entrevistas telefónicas, siempre que sean de importancia periodística relevante.
- Los programas completos cuando se realicen, por algún acontecimiento extraordinario, fuera de los estudios.
- Secciones de programas que tienen una aparición periódica y que constituyen una «colección».
- Las intervenciones parlamentarias excepcionales, como el debate sobre el estado de la nación, debates de investidura, aprobación de grandes leyes, etc. También, las ruedas de prensa posteriores al Consejo de Ministros.
- Todas aquellas grabaciones completas que, por su importancia histórica o informativa, han de conservarse en su integridad. Incluyendo otros medios.

2.1.2. *Tratamiento documental, ¿cómo lo guardamos?*

El tratamiento documental de los audios de Fonoteca debe facilitar la búsqueda y permitir una rápida recuperación en un medio como la radio. Además, debe compartir el lenguaje periodístico y tener en cuenta cómo se ha presentado la información en antena.


Y es fundamental que redactores y documentalistas compartan la misma herramienta de trabajo. En el caso de la SER, Redact@.

Redact@ es efectivamente la herramienta de trabajo que compartimos con la redacción. Aquí escribimos nuestros textos, editamos el audio, recibimos los teletipos de agencias y nos conectamos entre las diferentes emisoras para poder compartir contenidos.

Pero, además de Redact@, tenemos Enciclomedi@, que es la plataforma multimedia que alberga los contenidos de Fonoteca, Discoteca, Archivo Gráfico, Videoteca, Efectos de Sonido, los denominados elementos de continuidad como las sintonías y los jingles, etc. Herramienta a la que tienen acceso todos los redactores y a la que acudirán cuando para su trabajo necesiten un corte de voz de archivo, una canción, una foto, un vídeo o un efecto de sonido, entre otras cosas.

Enciclomedi@ es, por tanto, el sitio donde almacenamos los audios de Fonoteca, donde quedarán debidamente catalogados y clasificados para recuperarlos en un futuro. El lugar al que nosotros enviamos las fichas que elaboramos en Documentación.

Documentación en la SER: guardar sonido TRATAMIENTO DOCUMENTAL (II)



2.1.3. Las fichas de Documentación

Cada una de ellas alberga la catalogación, la descripción del contenido y los archivos digitales de audio, con su transcripción.

- *Catalogación y clasificación.* Se rellenan una serie de campos que después permitirán realizar las búsquedas. Algunos los rellena el propio sistema automáticamente, como la fecha, otros los rellenan los documentalistas, como título, género, calidad (telefónico o directo), duración, idioma y si el corte de voz está doblado o no, personaje y thesaurus.
- *Descripción.* Todas las fichas llevan un pequeño resumen que recoge de forma resumida los aspectos más importantes de la grabación que alberga la ficha, especialmente los que contextualizan el audio. Responde a las cinco «w» del periodismo: what, who, where, when, why; es decir: qué ha pasado, quién lo ha protagonizado, dónde ha ocurrido, cuándo y por qué.
- *Transcripción.* La transcripción de los documentos sonoros supone un considerable esfuerzo por parte de los documentalistas, pero es inevitable para poder localizar un determinado archivo de audio con eficacia y rapidez, sin necesidad de tener que escuchar varios hasta localizar el que se necesita. Esta transcripción es prácticamente literal, e incluye cuidadosamente todas aquellas palabras que puedan ser el «gancho» para recuperar un corte de voz determinado. Ningún instrumento informático de reconocimiento de voz ha servido hasta el momento para recuperar con fiabili-

dad las voces de las grabaciones, sobre todo porque las características de cada voz humana, la velocidad mayor o menor de ésta, las circunstancias de grabación, los fondos sonoros, etc. hacen inevitable la mecanografía, al menos a día de hoy.

2.2. Las consultas: sonidos y documentación escrita

Las consultas que atendemos son generalmente de sonido, pero también nos piden documentación escrita. Además, no siempre esperamos a que los redactores acudan a nosotros, también nos adelantamos a las necesidades de la redacción.

Documentación en la SER: las consultas RECUPERACIÓN (I)



¿Qué nos piden?

1.- Sonido

2.- Documentación escrita



¿Qué nos van a pedir?

**Nos adelantamos a las necesidades de la redacción.
Preparamos: dossieres, cortes de voz, piezas, etc...**




2.2.1. ¿Qué nos piden? Sonido

Aunque pueden buscar solos —de hecho los redactores más familiarizados con Enciclomedi@ lo hacen— lo más habitual es que pidan a Documentación los «cortes de voz» o las declaraciones que necesitan. Primero, por comodidad; segundo, por «miedo» a la herramienta, pero también porque confían en nuestra tarea, saben que podemos hacer una búsqueda más profesional y más rápida.

Documentación en la SER: las consultas RECUPERACIÓN (III)

Búsqueda simple



Podemos acotar la búsqueda por...

- Título.
- Fecha.
- Personaje.
- Thesaur.

• Podemos utilizar el operador "Y" (AND) en el título.

En EncicloMedi@ hay dos tipos de búsqueda, una simple y otra avanzada:

— *Búsqueda simple*. Se pueden hacer búsquedas por los siguientes campos:

1. *Título*. El documentalista procura detallar en el título, de forma lo más abreviada posible, todos aquellos elementos que, de un golpe de vista, expliquen de qué trata el documento sonoro catalogado. La tendencia del usuario menos familiarizado con la herramienta es escribir en el título la palabra clave de lo que busca. Por ejemplo: «Prestige», «11-M», «Caso Gürtel», «Terremoto Haití»). Por tanto, el documentalista incluye esas palabras clave tanto en el título como en la descripción interior. En el título podemos utilizar el operador «y» para combinar dos términos.
2. *Fechas de inicio y fin de la búsqueda*.
3. *Personaje*. Se busca por todos y cada uno de los personajes vinculados al documento sonoro que se quiere recuperar. Es una lista «cerrada», es decir, seleccionamos el nombre de un listado para tener uniformidad en los nombres, evitar problemas ortográficos, etc.
4. *Thesaur*. Parece evidente que en un volumen inmenso de información, como el que aporta una Fonoteca generalista como la de la Cadena SER, se hace imprescindible contar con una lista estructurada de términos que faciliten el camino de la búsqueda al usuario. El Thesaur de la Cadena SER se diseñó a partir del Thesaur del diario *El País*,

siendo su primer nivel idéntico, y su segundo y tercer nivel adaptado a las necesidades de la radio. Los términos del Thesaurus permanecen casi inamovibles desde su creación en 1989, y el control y creación de nuevos términos es responsabilidad única de la dirección del Departamento de Documentación.

Documentación en la SER: las consultas RECUPERACIÓN (IV)

Búsqueda avanzada



Podemos acotar la búsqueda por muchos más campos. Destacan:

- **Texto libre.** Fundamental para localizar de forma textual unas declaraciones.
- **Idioma.**
- **Calidad.** Muy importante para saber si el sonido es directo o telefónico.

— *Búsqueda avanzada.* Podemos acotar la búsqueda por muchos más campos. Destacamos:

1. *Calidad.* De gran importancia para conocer con qué documento sonoro contamos: si es telefónico, en directo, y si la calidad de la grabación es alta, media o baja. En algunos casos la excepcionalidad del audio, por su contenido, hace que la calidad del mismo pase a segundo plano. Por lo general, sin embargo, la Fonoteca no admite audios de baja calidad y prefiere siempre los de sonido directo a telefónico, así como las grabaciones completas y limpias a los resúmenes o montajes con música de fondo.
2. *El texto libre.* Herramienta fundamental para localizar de forma textual unas declaraciones. Podemos utilizar comillas y operadores booleanos.
3. *Idioma del documento sonoro y si está o no doblado.* No siempre nos sirven las declaraciones traducidas, en muchas ocasiones necesitamos la voz original del personaje.

2.2.2. ¿Qué nos piden? Documentación escrita

Entre las peticiones más habituales tenemos:


- Biografías.
- Entrevistas, artículos, reportajes ya publicados en prensa y que a los redactores les interesa recuperar de nuevo.
- Efemérides, que son una fuente de inspiración para reportajes, secciones de programas...
- Cifras.
- Fechas.
- Estadísticas.

2.2.3. ¿Qué nos van a pedir?

Nos adelantamos a las necesidades de la redacción en acontecimientos previsibles, como efemérides, citas electorales, la muerte de algún personaje, elección de un nuevo Papa, sentencias judiciales, etc.

Preparamos:

1. Dossieres escritos, que los redactores reciben impresos o por correo electrónico.
2. «Cortes de voz» de archivo, para emitir sueltos o para que los redactores los utilicen en sus piezas. Los almacenamos para cuando sean necesarios en una carpeta llamada «sala de espera».



3. Piezas de documentación, listas para emitir, con «cortes de voz» y, las más elaboradas, con un formato de reportaje, con música y efectos.

2.3. Las consultas: sonidos y documentación escrita

Los documentalistas estamos preparados para llevar la pieza hasta el final, incluyendo la locución. Las piezas de Documentación suenan en las voces de quienes además custodian un tesoro: el archivo sonoro de la Cadena SER.

Nos piden y elaboramos:

- *Perfiles biográficos.*
- *Cronologías.*
- *Reportajes históricos.*
- *Resúmenes en Carrusel Deportivo*, con los mejores momentos del programa.
- *Resúmenes del año*, nacionales y también locales.
- *Secciones fijas en los programas.* Por ejemplo en *Hoy por Hoy* esta temporada tenemos dos: «Qué hay de viejo» y «El retrovisor».
- *Otras piezas de apoyo:* para recordar promesas incumplidas de políticos, para recordar un caso judicial cuando sale la sentencia, etc.



- *Montajes de sonido con cortes de archivo.* Sin locución, para que los sonidos hablen por sí solos. Por ejemplo, en los aniversarios de los atentados del 11-M, en el caso de conflictos armados, etc.

2.4. Otros productos: la web y el anuario

No sólo es la antena de la SER la destinataria de nuestro trabajo, también lo es la página *cadenser.com*. Desde que nació ha incorporado entre sus sonidos las piezas elaboradas por Documentación y con más motivo y más habitualmente lo hace ahora, ya que nos dirigimos a la integración de la radio y la página web. Pronto seremos sólo uno.

Otro producto que también elaboramos en Documentación es el DVD que acompaña al Anuario de la SER, en el que se recoge una recopilación de los mejores sonidos del año, con las fotos de sus protagonistas y las imágenes que 365 días de actualidad han dejado en nuestra retina.

IX

Komunikabideetako informazio dokumentalaren eskaintza

Alazne Aiestaran, Teresa Agirreazaldegui, Idoia Camacho, Carmen Peñafiel
eta Milagros Ronco

UPV/EHUko Kazetaritza Saileko irakasleak/Profesoras del Departamento de Periodismo de la UPV/EHU

Laburpen: Digitalizazioak eta Internetek komunikabideetako errealitatea goitik behera eraldatu dute urte gutxitan, eta dokumentazio zerbitzuak ez dira salbuespena izan. Bertako profesionalen lan egiteko moduak eta funtzioak garai berrietara egokitu behar izan dira, argi-ilunak dituen bideari jarraiki. Panorama berri horrek eskaintzen dituen aukerak dokumentazioak nola aprobetxatzen dituen aztertu nahi du esku artean dugun ikerketak. Hots, dokumentazio zerbitzu eta artxiboek nola aprobetxatzen dituzten digitalizazioak eta erreminta berriak barruko zein kanpoko zerbitzuak euren erabiltzaileei eskaintzeko.

Resumen: Gracias a la digitalización y al uso de Internet, la realidad de los medios de comunicación ha sufrido una gran transformación en los últimos años. Los servicios de documentación no han sido una excepción, y sus profesionales han tenido que adaptarse a las nuevas formas de trabajo y funciones, siguiendo este camino de luces y sombras. Nuestra investigación pretende analizar el modo en que la documentación está aprovechando y plasmando en servicios tanto internos como externos las posibilidades que ofrecen estas nuevas herramientas.

1. SARRERA

Dokumentazio gune eta zerbitzuak ezinbesteko azpiegiturak dira edozein erakunderen ekintzen garapenerako, eta hedabideetan zerbitzu horiek giltzarri bilakatzen dira, dokumentazioa informazio lanaren euskarria baita komunikabideetan.

Digitalizazioak goitik behera transformatu du hedabideetako errealitatea azken urteotan: lan egiteko moduak, iturrietarako sarbidea, informazioaren lanketa eta informazioaren igorpena dira, besteak beste, aldaketa horien adierazle garbiak. Aldakuntza horien guztien lekuko eta protagonista nagusiak, aldiz, dokumentalistak eta kazetariak izan dira. Dokumentazio zerbitzuak eta erredakzioak orain arte ezezagunak ziren antolaketa eta komunikazio aukerak eskaintzen dituzten lankidetzaren eredu berriak sortzen ari dira.

2. DIGITALIZAZIOAREN ARGILUNAK

Azken urteotan, hedabideen etengabeko eta geldiezineko digitalizazioak aldatu eta ekarri ditu dokumentazioaren esparrura ere. Alabaina, prentsa idatzian, irrati eta telebistan izan den digitalizazio prozesuak informazioa gorde ahal izatea eta informazioa modu sistematikoan erabili ahal izatea ekarri du.

Eraldaketa horretatik eratorritako errealitateak, batetik, eta Interneteko sarbideak, bestetik, kazetarien eta dokumentalisten lan egiteko moduak aldatu egin dituzte. Izan ere, erabiltzaileek euren kabuz informazioa bilatzen ikasi dute eta, euskarri digitalean dauden dokumentu primarioak kontsultatuz, euren oinarritzko beharrak ebazten dituzte. Hori dela eta, dokumentalista pisua galtzen ari da bitartekaritza lanean eta bere lana bestelako alor batzuetara bideratzen du: dokumentuak eta iturriak aukeratzera, dokumentuen analisia egitera, erabiltzaileen formaziora, kontsultarako erreminten diseinura, erabiltzaileen profilarren kudeaketara eta intranetaren mantenu eta garapenera, besteak beste.

Bilakaera teknologikoari esker, enpresek errazago eskaini ahal dizkiete euren produktu eta zerbitzu dokumentalak profesionali, erabiltzaile espezializatuari eta baita hedabideen kontsumitzaileari den publiko orokorrari ere.

Garai batean kamerek, soinu teknikariek, muntatzaileek edota dokumentalistek egiten zituzten lanak kazetarien esku geratu dira azken urteotan, informatika, Internet eta teknologia berriei esker. Horrek dokumentalisten zereginean erabateko eragina izan du. Dokumentalistak kazetariaren eta memoria dokumentalaren artean egin ohi zuen bitartekari lana ahulduz joan da, kasu batzuetan; desagertu egin da, besteetan; eta, gehienetan, gero eta ikusezinagoa bihurtu da.

Egun, kazetariak berak badaki bere eguneroko jardunean, informazioaren teknologia berriei esker, nola bilatu eta berreskuratu informazioa. Beraz, kazetarien eta dokumentalisten lanak nahastu egin dira neurri batean eta kazetariak egin ohi du lehen dokumentalistak egiten zuen lanaren zati bat¹.

Digitalizazioak sortutako panorama berri honek, ordea, aukera profesional berriak eskaintzen dizkio dokumentalitari. Esaterako, informazio prozesuan barneratuago dauden lanak egin ahal izatea. Aitzitik, errealitatea ez da horren baikoarra, dokumentalistek egiten duten lanaren garrantziaren galerak hainbat komunikabide dokumentazioa kanpoko zerbitzu gisa kontratatzea eraman baitu.

Hortaz, beharrezkoa litzateke kazetari eta dokumentalisten arteko harremana, koordinazioa eta lankidetzaren areagotzea, dokumentazio zentroen digitalizazioak eskaintzen dituen aukera eta abantaila konpetitiboak aprobetxatzeko.

Aldaketa horiek guztiak kontuan hartuta, esku artean dugun ikerketa honek dokumentazioak sortu diren erreminta berri horiek eskaintzen dituzten aukerak nola aprobetxatzen dituen aztertu nahi du. Nola barruko zerbitzu gisa, hedabideec-

¹ Micó-Sanz, J.; Masip Masip, P.; García-Avilés, J. «Periodistas que ejercen de documentalistas (¿y viceversa?). Nuevas relaciones entre la redacción y el archivo tras la digitalización de los medios». *El Profesional de la Información*. vol. 18, n.º 3, 2009, 284-290.

tako produkzioan laguntzeko eta kalitatea bermatzeko, hala publiko orokorrari eskaintzen dizkioten doaneko edo ordaindutako zerbitzu moduan.

3. AURREKARIAK

Oro har, Euskal Herriko dokumentazio zerbitzuei buruzko lanak gutxi dira. Modu azkarrean aldatzen eta garatzen ari den alor honetan, ikerketa sistematikoa urria, partziala eta zaharkitua dela esan dezakegu. Hots, gaia zatika aztertu duten azterlanez harago, gutxi ikertu den arloa da hedabideetako dokumentazio zerbitzuena. Gabezia horretaz jabetuta, ikerketa talde honek Euskal Herriko dokumentazio zerbitzuak aztertzeko egitasmoa jarri zuen abian, 2007an. Bertan, Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio-zerbitzuak aztertu genituen² eta haien gida bat prestatu ere bai. Gida hori www.gidadok.com helbidean dago kontsultagai. Orobat, ikerketaren bigarren fasean, Euskal Herriko dokumentazio zerbitzuetan zeuden gainerako dokumentazio egiturak analizatu ziren. 2007an abiatu genuen egitasmoa, oraingoa bezalaxe, Euskal Herriko Unibertsitateak finantzatu zuen.

Euskal Herriko dokumentazio zerbitzuen diagnostika burututa eta ikerketa lanaren emaitzak ezagutzera emanda, bigarren urratsa egitea erabaki genuen. Alegia, dokumentazio zerbitzuak eta kazetari eginkizuna aztertu nahi izan dugu Euskal Herriko, Espainiako eta Europako esperientzia esanguratsuenak jasoz. Proiektu honetan, aipatu lurraldeetako prentsa idatzia, telebistak eta irratiak aztertzen ari gara une honetan.

4. IKERKETAREN XEDEA

Ikerketaren helburua da hainbat hedabidetan eta hainbat gune geografiko eta kulturaletan egoera zein den ezagutzea. Era berean, dokumentazioa eta kazetaritza lana hobetzeko eta, oro har, gizartea aberastuko duen informazioan laguntzeko ekarpenak egin nahi ditugu.

Gure ikerketa honek hedabide eta enpresa ezberdinetan dokumentazioak eskaintzen dituen informazio eta zerbitzu-proposamenak aztertzen ditu. Horretarako, hiru balizko egoera analizatzen ari gara:

1. Barneko erabilzaileek auto-kontsultaren bitartez eskura dituzten informazio eta zerbitzuak.

² Agirreazaldeg, Teresa; Ronco, Milagros; Camacho, Idoia. «Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio-zerbitzuen analista». In Agirreazaldeg, Teresa; Camacho, Idoia (ed.). *Dokumentazio zerbitzuak Euskal Herriko komunikabideetan*. Leioa: UPV/EHU, 2009. 19-40.

Agirreazaldeg, Teresa; Ronco, Milagros; Camacho, Idoia. «El desarrollo de la documentación en los medios de comunicación del País Vasco» [linean]. In *Jornadas Españolas de Documentación* (11. 2009. Zaragoza). *Fesabid 2009 infogestión*. [Madrid]: Fesabid, 2009, 175-182. <http://unicorn.bib.upct.es/cgi-bin/docum?docs/upct/isbn9788469226636.pdf>

2. Barneko erabiltzaileek dokumentalisten bitartekaritza erabiliz, eskura ditzuten informazio eta zerbitzuak.
3. Kanpo erabiltzaileei eta publiko orokorrari ordainduz edota doan eskaintzen zaizkien informazio eta zerbitzuak.

5. ERABILITAKO METODOLOGIA

Hedabideetako dokumentazioaren landa-lana burutzeko elkarrizketa, behaketa eta galdetegiak dira ohiko tresna metodologikoak. Esku artean dugun ikerketa hau landa-lanean oinarritzen da, eta datuak galdetegiaren bitartez jasotzen ari gara. Aurretik burututako ikerketan erabili genuen galdetegia oinarritzat hartuta, gure ikerketa berri honen ezaugarrietara egokitu dugu galdetegia. Galdetegia hedabide ezberdinetako dokumentazio arduradunek bete behar zuten eta 7 ataletan dago banatuta. Lehenengo atalean dokumentazio zerbitzua dagoen enpresaren edo erakundearen datu orokorrak jasotzen dira: enpresaren izena, lan arloa, komunikabidearen zabalkunde eremua, webgunea, zerbitzu mota eta sortze-data. Bigarren zatian, dokumentazio zerbitzuari dagozkion ezaugarri eta datu zehatzagoak eskatzen dira: zerbitzuaren webgunea, harremanetarako bideak, zein sailen menpe dagoen dokumentazio zerbitzua, sarbidea eta erabiltzaileak, langile kopurua, lanpostua eta lanpostu hori betetzen duen pertsonaren sexua. Hirugarren atalean, enpresako dokumentazio zerbitzuek barneko erabiltzaileei eskaintzen dizkieten funts eta zerbitzuak zeintzuk diren zehazteko eskatzen zaie dokumentazio arduradunei: dokumentazioaren digitalizazio maila, dokumentu motak, formatuak, estaldura... Laugarren zatian, aztergai den hedabideko dokumentazio zerbitzuek kanpoko erabiltzaileei eskaintzen dizkieten funts eta zerbitzuei buruz galdetzen dugu: ezaugarriak, sarbide moduak eta baldintzak zeintzuk diren. Bosgarren atalean, datu base eta kanpoan kontratatutako zerbitzuen inguruan galdetzen zaie dokumentazio arduradunei. Galdetegiaren seigarren zatian, dokumentazioaren alorrean etorkizuneko egitasmoak zeintzuk diren adierazteko eskatzen da. Eta zazpigarren atalean, bestelako informazio interesgarriren bat gehitzeko proposatzen zaie.

Galdetegiez gain, galdetegiak bidali ditugun hedabideetako dokumentazio zerbitzuetako arduradunekin elkarrizketak eta bisitak egitea aurreikusten dugu. Izan ere, metodologia kualitatiboaren bitartez, galdetegietatik eratorritako emaitzak eta datuak hobeto interpretatu ahal izango dira.

Gure ikerketarako lagina 45 hedabidek osatzen dute: Euskal Herriko eta Espainiako 10 egunkarik, 10 telebista katek eta 10 irratik; horiez gain, Europako 5 egunkarik, 5 irratik eta 5 telebista katek. Lehenengo eta behin, telefonoz dokumentazio arduradunekin harremanetan jarri ginen eta gure egitasmoaren berri eman genien. Halaber, eurekin harremanetan jartzeko ezinbesteko datuak eskatu genizkien. Bigarren txandan, berriz ere telefonoz deitu genien, proiektuaren berri ematen zuen gutun pertsonalizatua eta bete beharreko galdetegia posta elektronikoz bidaltzeko. Hamar eguneko epean jaso genituen galdetegiak beteta. Une honetan hedabide ezberdinetara bidali ditugun galdetegiaren azken erantzunak jasotzen ari gara.

6. BIDEAN AURKITUTAKO OZTOPOAK

Arestian aipatu bezala, ikergai diren hedabideetako dokumentazio arduradunekin lehenengo harremana telefonoz egin genuen. 2010eko urtarrilean hasi genituen hartu-eman haietan, erantzuna eta aldez aurreko jarrera ona izan zen hedabide guztien aldetik oro har, salbuespenak salbu, denek onartu baitzuten ikerketan parte hartzea. Hasierako hurbilketa horretan irritati askotan dagoen dokumentazio zerbitzu eta artxibo ezak galdetegi berezia prestatzea eskatu zigun, irratien errealitatea islatzeko ezinbestekoa zelako.

Beste alde batetik, oso azkar eta etengabe aldatzen ari den hedabideetako errealitatearekin egin genuen topo. Hots, hainbat komunikabidek birmoldaketa prozesua bizi zuten eta horrek euren sail eta atal guztien birdefinizioa eskatzen zuen. Hori jakin arren, hedabide horiekin aurrera egitea erabaki genuen, intereseko informazioa zela iritzi geniolako eta aldaketak komunikabideen arloan ezaugarri bilakatu direlako. Halaber, horrek guztiak amaigabeko mugimenduan bizi den sektorearen azterketa errealagoa egitea ahalbidetuko liguke.

Kazetaritza lanean digitalizazioak izan duen eraginak eta interneten erabilerak dokumentalista eta kazetarien arteko harremanak aldatu egin dituzte. Kazetariak autonomia irabazi dute informazioa bilatzeko interneten edo dokumentalistek euren landutako datu-baseetan. Ondorioz, dokumentalisten lana gero eta ikusezina goa bilakatu da. Horrek arrisku bat dakar: zenbait kasutan, dokumentazio zerbitzu edo departamentua desagertzea edo kanpora bidaltzea. Izan ere, gero eta zabaldua dagoen joera da komunikabideetan zerbitzuak kanpora bidaltzearena, eta dokumentazioa ez da salbuespena. Besteak beste, saioen ekoizpenarekin, kamarekin edota argiztapenarekin egin ohi den bezala, dokumentazioa kanpora bidaltzea ohikoa bilakatzen ari da; are gehiago, krisiaren ondorioz, non azpiegituren murrizketa ezinbestekoa bihurtu den komunikabide enpresa askorentzat.

Kazetariak eguneroko jardunean euren dokumentaziorako erabiltzen dituzten kanpoko edo barruko datu-baseak, irudi artxiboak edo hemerrotekak, besteak beste, dokumentalistek sortu dituzte. Erreminta horiek guztiak ezinbesteko bilakatu dira kazetaritza lanean, eta kalitatezko kazetaritza jardunaren berme eta bereizgarri ere badira. Beraz, ezinezkoa da dokumentazio sailek eta bertan ari diren profesionalen balioa eta beharra zalantzan jarri eta gutxiatea, ez behintzat kalitatezko informazio eta kazetaritza lana egin nahi bada.

X

***La Jungla Sonora* irratiko musika saioaren dokumentazioaren iturriak eta baliabideak (1989-2010)**

Joseba Martín

Radio Euskadi-ko *La Jungla Sonora* saioko zuzendaria eta UPV/EHUko irakaslea/
Director del programa *La Jungla Sonora* de Radio Euskadi y profesor de la UPV/EHU

Laburpena: *La Jungla Sonora* Radio Euskadin emititzen den musika saio espezializatua da, hogei urteko ibilbidea duena. Saioa arrakastaz aurrera eraman ahal izateko, informazio eta baliabide dokumental anitz kontsultatzen dira, gaur egun; eta horietatik asko Internetetik eskuragarri daude.

Resumen: *La Jungla Sonora* es un programa de Radio Euskadi, especializado en música, que cuenta con una trayectoria de más de veinte años. Para llevarlo a cabo con éxito, se consultan una gran variedad de fuentes y recursos documentales, muchos de los cuales están accesibles a través de Internet.

HISTORIA PIXKA BAT

La Jungla Sonora musika saio espezializatua da. 1989ko urriaren 10ean sortu zen Radio Euskadin. Hasieran diskoak jartzen ziren, besterik gabe; *single*-ak, maketak eta biniloizko albumak, batez ere. 1998. urteraino bi ordu eskaintzen ziren egunero. Urte haietan, edukiak erabat aldatu ziren: kantuen itzulpenak, bertsioak, elkarrizketak, irrati antzerkia, zuzeneko ekitaldiak, erreportajeak, monografikoak, kanpoko irteerak «Junglomovil»-arekin... Aldi berean, taldea handitzen hasi zen, alde batetik erredakzioan eta, bestetik, kanpoko kolaboratzaileekin. 1999ko urtarrilean saioa programaziotik kendu egin zen eta 2000. urtean bueltatu, baina ordu bakar batez. 2002ko irailean, espazio berri bat zabaldu zen: larunbateko gau erdiko monografikoak. Ordutik hona 300 saio baino gehiago eskaini dira formatu horretan. 2006an, disko bat kaleratu zen, saioan grabatutako 20 kanturekin. 2009ko urrian, Ondas saria irabazi zuen saioak, «ibilbide profesional onenarengatik», irrati saio batek lor dezakeen saririk handiena. Epai mahaiaren ustez, «hasieratik eskainitako kalitateagatik eta formatu aniztasunagatik». Gaur egun, 50 kontzertu baino gehiago eskaintzen du saioak denboraldian zehar. Eta azken bolada honetan, ostiral gauetan, antzinako monografikoak berrematen hasiak dira.

GURE DOKUMENTAZIOAREN HASIERAK

Denetariko musika eskaini du saio honek hasieratik: rock, jazz, folk, country, blues, tex-mex, tango, reggae, ska, world music, pop, latin, funk, soul, hip hop eta beste halakoak. Eta doinu mota horiei guztiei buruz hitz egiteko, nolabaiteko dokumentazioa behar genuen. Bi modutan lortzen zen: alde batetik, orduko aldizkarietatik (*Rockdelux*, *Ruta 66*, *El Tubo*, *Popular 1*, *Voice*, *Tierra*, *World 1 Music*, *Folk Roots*, *Efe Eme*, *Entzun*, *Vox*, *Ritmo y Blues*, *Q*, *Mojo*, *Uncut*, *Rolling Stone*...) eta, bestetik, eguneko prentsatik. Kasu horretan, musika artikulua interesgarrienak fotokopiatzen ziren eta, artikulua bakoitzari zenbaki bat jarri ondoren, fitxa batean idazten zen erreferentzia: aipaturiko artista edo taldea, titularraren laburpena, data eta kopiaren zenbakia. Hori eguneroko lana zen eta hortik saio berezi ugari sortu ziren, eta baita elkarrizketa baterako galdera ederrenak ere. Formula hura 2004. urtera arte erabili zen; ordurako, 12.000 fitxa beteta genituen. Baina, tamalez, lan hura ez zen beharrezkoa jadanik: dena edo ia dena Interneten zegoen.

<u>LABOA, MIKEL</u>	
tebeicista y reportaje	2.737-A
Regreso tras 4 años de ausencia	2.744
Todo sobre watercúis en el Mijs.	2.829
(2)	
<u>NEGU GORRIAK</u>	
Concierto Bilbao (Deiz)	1491-C
Concierto con Manu Negro Satarrañan	1.586
Reportaje - concierto F. Alpuerto	1.628
Gita veterano 72	1.938
Concierto a India	2.042
"	2.073
"Gure jarrera" se edita en japon	2.843B
Actuaciones en Francia, grabación nuevo lp.	

DOKUMENTAZIOA GAUR EGUN

Esan bezala, Internet dugu oraingoan baliabide preziatuena. Baina, aldizkariak ere mantentzen ditugu gure mahaian: *Rockdelux*, *Ruta 66* eta *Folk Roots* (orain, *Froots magazine*) dira gure gustukoena. Sareari dagokionez, segidan kontatuko dugu zein diren gure web gogokoena.

<http://www.allmusic.com>

Musikari buruz Interneten dagoen datu-base onena. Bilaketetan, «artista», «albuma» edo «kantua» hitzak sartzen ditugu. Artista bakoitzak bista orokorra, biografia, diskografiak eta beste eduki batzuk ditu. Diskografian disko bakoitzaren puntuazioa, kantu interesgarrienak eta, noizean behin, kantu nabarmenei buruzko azalpenak zabaltzen dira. Lotura ugari dago, erlazio gurutzatuekin jarraitzeko: antzeko artistak, noren bertsioak, noren jarraitzaileak... Artikulu txikietan, estiloak lantzen dira, disko eta artista gomendatuen zerrendekin. Altxor bat, ongi erabiltzen jakinez gero.

<http://www.wikipedia.org>

Entziklopedia orokorra. Musikaren aldetik begiratuta, artisten biografiak ondo daude; aldiz, ez hain ondo estiloen azalpenak. Posible da album edo kantu bakar bati buruzko istorio luzeak topatzea. Ongi dago monografikoak prestatzeko. Biografiaren kasuan interesgarriak gertatzen dira beheko partean agertzen diren loturak (elkarrizketak, erreportajeak, beste web gune espezializatuak...).

Aldizkari britainiarrak eta frantsesak

Aldizkarien *online* bertsioak interesgarriak izaten dira, batez ere doan eskaintzen duten informazioagatik. Batzuk oso eskuzabalak dira; beste batzuk, berriz, eskuestuak. Britainia Handian tradizio luzea dute eta kazetariak prestigio handia dute kulturaren munduan. 100 musika aldizkari baino gehiago dago herrialde hartan; interesgarrienak jarraian agertzen dira:

- *Blues & Rhythm*: <http://www.bluesandrhythm.co.uk>
- *Blues & Soul*: <http://www.bluesandsoul.com>
- *Hip Hop Connection*: <http://hhcdigital.net>
- *Jazz Journal*: <http://www.jazzjournal.co.uk>
- *Kerrang!*: <http://www.kerrang.com>
- *Metal Hammer*: <http://www.metalhammer.co.uk>
- *Mojo*: <http://www.mojo4music.com>
- *New Musical Express*: <http://www.nme.com>
- *R2 (Rock & Reel)*: <http://www.rock-n-reel.co.uk>
- *Rock Sound*: <http://www.rocksound.tv>
- *Songlines*: <http://www.songlines.co.uk>
- *Straight No Chaser*: <http://www.straightnochaser.co.uk>
- *Uncut*: <http://www.uncut.co.uk>
- *The Wire*: <http://www.thewire.co.uk>

Frantzian tradizio handia dago musikaren arloan; baina, aldizkarien kopurua ez da hain handia. Rock, pop eta beste estilo nagusiak ibilbide luzeko bi gune hauetan agertzen dira:

- *Les Inrockuptibles*: <http://www.lesinrocks.com>
- *Rock & Folk*: <http://www.rocknfolk.com>



Estatu Batuetako aldizkariak

Britainia Handian aldizkari zaharrenak 60ko hamarkadan sortu ziren, pop estiloari buruzkoak. Estatu Batuetan, berriz, rock erritmoa gustatu zitzairen hasiera-hasieratik (*Rolling Stone*, *Creem*, *Crawdaddy!*...). Gaur egun, 150 aldizkari baino gehiago topatu ditzakegu; denetarik dugu: rock, country, jazz, blues, world music, folk, hip hop, punk... Batzuk paperean agertzen dira oraindik; beste batzuk, berriz, *online* bakarrik irakur daitezke.

Hauk dira, gure ustez, bisita bat baino gehiago merezi dutenak:

- *Alternative Press*: <http://www.altpress.com>
- *Billboard*: <http://www.billboard.com>
- *Broadside*: <http://broadsidemagazine.com>
- *Crawdaddy!*: <http://www.crawdaddy.com>

- *Creem*: <http://www.creemmagazine.com> (gunea birsortzen)
- *Dirty Linen*: <http://www.dirtylinen.com>
- *Down Beat*: <http://www.downbeat.com>
- *Jazz Times*: <http://jazztimes.com>
- *Latin Beat*: <http://www.latinbeatmagazine.com>
- *Living Blues*: <http://www.livingblues.com>
- *No Depression*: <http://www.nodepression.com>
- *Punk*: <http://www.punkmagazine.com>
- *Rolling Stone*: <http://www.rollingstone.com>
- *Sing Out*: <http://www.singout.org>
- *The Source*: <http://www.thesource.com>
- *Spin*: <http://www.spin.com>
- *Under The Radar*: <http://www.undertheradarmag.com>



<http://www.wolfgangsvault.com>

Estatu Batuetako gune honetan aspaldiko kontzertu grabatuak eskaintzen dituzte, betiko rock artista nagusiekin. Grabaketa hauek ez daude argitaratuta eta, dolar batzuen truke, aparteko materiala lor daiteke. Elkarrizketak ere badaude salgai. Guneak, izena eman ondoren, audioa entzuteko aukera ematen du, kalitate ertainaz *streaming* formatuan. Oso ondo diseinatua dago, informazio zehatzaz.

<http://www.rocksbackpages.com>

Britainia Handian sortutako gune honetan, aldizkari askotako elkarrizketa garantzitsuetako testuak eskaintzen dira. Bilatzaile oso ona da eta orri ugari topatzen dira bertan. Zenbait artikulu doakoak dira; gainerakoak ordaindu egin behar dira. Estatu Batuetako eta Britainia Handiko aldizkari famatuena daude barruan. Oso egokia da, ikerketa lanak egiteko.

The screenshot shows the website layout for rock'sbackpages.com. The top navigation bar includes 'Library', 'Subscribe', 'Get Newsletter', 'Free on RBP', 'Audio', 'Contact', 'Writers', 'Writers' Blogs', 'Content Services', 'Magazine Archive', 'About Us', 'Press Room', 'Your Account', and 'Home'. The main content area is divided into several columns: 'Free on RBP' with a featured article about Malcolm McLaren; 'The Library' with a search bar and a list of articles; 'Audio' with a featured article about Barney Hoskyns; 'Friends of RBP' with a list of contributors; and 'Essential RBP' with a featured article about Mick Jagger. The right sidebar contains a 'rock'sbackpageslibrary' section with a search bar and a list of articles.

<http://www.metacritic.com/music>

Nola hartu dute kritikariek artista baten disko berria? Hauxe duzue orri onena. Disko berri batek kritika kopuru minimo bat lortzen duenean zerrenda honetan agertzen da. Gehienetan, aldizkari batek edo egunkari batek egindako kritika osoa irakur dezakegu. Horrekin batera hedabideak emandako puntuazioa agertzen da eta, hori dela medio, batez besteko nota kalkulatu da, maximoa 100 puntu direlarik. Hortik bi zerrenda ateratzen dituzte: bata ranking moduan, puntuen arabera, eta bestea alfabetikoa, artistak errazago topatzeko. Zerrenda historikoak ere eskaintzen dizkigute.

<http://www.frootsmag.com/>

World music aldizkari onena da, Londresen kaleratua. Hasieran, folk munduaz aritzen zen; azken bolada honetan, ordea, munduko kultura desberdinetako erre-

sort by name | sort by score

- 64 Airbourne
- 76 Alberta Cross
- 65 The Album Leaf
- 78 Alltime Trio
- 65 **Mose Allison** ★
- 74 Aloha
- 58 Alphabet
- 63 **Sam Amidon** ★
- 66 Animal Collective
- 72 Archie Bronson Outfit
- 62 Athlete
- 76 Autechre
- 62 Autolux
- 61 **B. Dolan** ★
- 63 **Erykah Badu** ★
- 73 Batsrisha
- 65 Kevin Barker
- 76 Danny Barnes
- 62 **Beach House** ★
- 69 The Besnard Lakes
- 70 Justin Bieber
- 74 The Bird And The Bee
- 75 Kasper Brekke
- 74 Black Francis
- 63 Black Rebel Motorcycle Club
- 64 Dan Black
- 76 Blackhead
- 70 Blood Red Shoes
- 62 Bomb The Bass
- 70 Bonnie "Prince" Billy & The Camp Gang
- 66 David Bowie
- 63 The Brian Jonestown Massacre
- 71 Broken Bells
- 66 V.V. Brown
- 71 The Brunettes
- 72 Buxia Bulat
- 65 David Byrne & Fatboy Slim
- 66 **Caribou** ★
- 73 Carolina Chocolate Drops

by **Pierced Arrows**

Fred and Toody Cole, former members of the punk band **Dead Moon**, formed **Pierced Arrows** with **Kelly Halliburton** to release the trio's debut album. [Rock/Punk]

2009 High Scores		All-Time High Scores			
1	Nirvana Live At Reading	93	1	Brian Wilson SMLE	97
2	Leonard Cohen Live In London	91	2	Loretta Lynn Van Lear Rose	97
3	Animal Collective Merrivether Post Pavilion	89	3	Led Zeppelin How The West Was Won	97
4	Raekwon Only Built 4 Cuban Linx... Pt. II	88	4	OutKast Stankonia	95
5	Sunn O))) Monoliths & Dimensions	88	5	All Farka Toure Savane	94
6	Baroness Blue Record	87	6	Madvillain Madvillainy	93
7	Vijay Iyer Trio Historicity	87	7	Nirvana Live At Reading	93
8	Brad Paisley American Saturday Night	86	8	Talking Heads The Name Of This Band Is Talking Heads [2004 Version]	93
9	Amadou & Mariam Welcome To Mali	86	9	Bob Dylan Love And Theft	93
10	Memory Tapes Seek Magic	86	10	Tom Waits Orphans: Brawlers, Bawlers & Bastards	92

View more high scores >

Added 15 April 2010

Leave Your Sleep
by **Natalie Merchant**

The former 10,000 Maniacs singer releases a 26-track solo album based on poems about childhood. [Rock/Alternative/Pop]

Now on Metacritic

Best/Worst Second Albums
Which bands suffered a sophomore slump, and which duplicated their original success?

Webby Awards

Vote for Metacritic!
We've been nominated for a Webby Award. Help us out by casting your vote today.

portajeak eta elkarrizketak burutzen dituzte, berdin zaie Senegal, Txina, Kolonbia edo Quebec. Kritika onak daude, baita argazkiak ere.

<http://www.wmce.de>

World music europar zerrenda ofiziala, Berlinen prestatuta. Hilero 20 disko onenen zerrenda eskaintzen da, estilo honetako Europako *disc jockey* espezializatuaren iritziz. Musika entzuteko eta diskoak erosteko aukera dago. Lotura interesgarri batzuk eskaintzen dira.

<http://www.euroamericanachart.nl>

Idea antzekoa da, baina *americana*¹ musikarekin. Holandan bateratzen dira puntuazioak eta diskoetxeetako estekak agertzen dira. Gure kolaboratzailea den Eduardo Ranedok parte hartzen du hilero.

¹ *Americana*: Estatu Batuetako sustaridun musikak eta estiloen nahasketa, ehuneko desberdinetan. Folk, country, rhythm & blues eta rock & roll aireak dira nabarmenak. Batzuek country alternatiboa (Alt-Country edo Alt.Country) deitzen diote emaitzari.

<http://www.songfacts.com>

Kantuen atzetik dauden istorioak jakiteko orri onena. Kantu famatu bat aukuratu eta seguru asko hementxe topatuko dituzu pasadizo horiek. Lehenengo atalean, datu objektiboak agertzen dira; bigarren atalean, berriz, internauten iritziak edo haiek izandako esperientziak kontatzen dira. Askotan erabiltzen dugu, bai eguneko saioan bai monografikoetan.

<http://www.rfimusic.com>


Radio France Internationale irrati publikoak garrantzia handia ematen dio musikari, Frantziakoari eta, batez ere, kanpokoari. Kasu honetan, herri frankofonoetan murgiltzen dira, batik bat: Senegal, Mali, Boli Kosta, Aljeria, Maroko, Kamerun, Tunisia, edo, herrialde moduan, Quebec. Berriak, biografiak, elkarrizketak, dossierak, erreportajeak, agenda... Primerako materiala.

The screenshot shows the website <http://www.rfimusic.com>. The header includes a search bar and navigation links for various regions and topics. The main content area is divided into several sections:

- Chanson française:** A featured article about Alizée, titled "Alizée, retour électro chic". The text mentions her return after a hiatus and her new album "Alizée change légèrement de cas. La chérieuse corsée s'est entourée de la jeune garde de l'électro parisienne..."
- Côte d'Ivoire:** A featured article about Dobet Gnahoré, titled "Dobét Gnahoré, Afrique sans frontières". The text mentions his nomination for the Grammy Awards and his album "Libérez la Côte d'Ivoire".
- Hip Hop:** A featured article about Cassav, titled "Cassav, l'irréductible du rap français". The text mentions his album "Libérez la Côte d'Ivoire".
- Le fil ACTU:** A sidebar section with the headline "Alizée, retour électro chic".
- Other sections:** "Concours", "Prix Découvertes 2005", "N°1 Magique", and "Actualité du monde en 10 langues".

<http://www.bbc.co.uk/music>

BBC-n ere musikaz badakite. Igorle eta saio ugari, kritikak, zerrendak, elkarriketak... Hogei bat estilo eskaintzen dituzte irrati publikoko programazioan. Web gune honetan, gure gustukoena erraz topa ditzakegu. Gainera, irratsaio garrantzitsuenak airean eman ondorengo egunetan entzun daitezke, iPlayer batean. Ariketa onena entzumenaren moduan.



<http://www.rockdelux.es>

Rockdelux 1984an hasi zen Bartzelonan, aurreko *Rock Especial* aldizkaria moldatuz. Santi Carrillo izan da betiko zuzendaria eta horretan dirau. 1999ko apiriletik, disko bana oparitzen dute aldizkariarekin batera; ale espezialak kaleratzen dituzte noizean behin eta urteko alean disko onenetako zerrenda ugari eskaintzen dute. Dena den, aldizkari honek eskaintza mugatua dauka *online* bertsioan: informazio gutxi, beti azken aleari lotuta.

<http://ruta66mag.com>

Ruta 66 Bartzelonan sortu zen 1985eko urrian, Jaime Gonzalo bilbotarraren eta Ignacio Juliá-ren eskutik. 2007an zenbait aldaketa egin ziren zuzendaritzan eta

koloretan egiten hasi ziren. Eduki ugari eskaintzen dute Interneten, doan gainera: berriak, erreportajeak, elkarrizketak, iritziak, agenda...

<http://www.efeeme.com>

Valentzian sortu zen 1998ko azaroan, Diego Manrique kazetariaren gidaritzapean. Aurrekoen tartean mugitu zen, gaztelaniaz egindako musikari garrantzia handiagoa ematen zaio, batez ere Ameriketara sortutakoari. Krisia zela eta, 2007ko urtarrilean paperezko edizioa itxi zuten eta bakarrik Interneten topa daiteke. «Diario de actualidad musical» deitzen dio bere buruari. Aurrekoa bezala, berriak, elkarrizketak, agenda, antzinako artikulua eta beste eduki batzuk eguneratzen dituzte.

<http://www.entzun.com>

Hau da euskaraz egin den musika aldizkari bakarra. 1996an sortu zen, bihabetekaria moduan. Aldaketa batzuk egin ziren, erredakzio taldean, formatuan eta diseinuan. 2007. urtean, paperezko edizioa itxi zuten eta orduz geroztik *online* daude bakarrik, eta bisita askorekin. Eduki ugari eta lan fina. Gaur egun, Iruñean dute bulegoa, Xabier Sagardia koordinatzaile dela.

SUBSCRIBE ● Noticias | Comentarios / Domingo, Mayo 02, 2010 [Buscar en el site... GO]

efe eme

Diario de actualidad musical

2 de mayo: "81 aniversario del nacimiento de Link Wray"

HOME AGENDA DESCARGAS ENTREVISTAS NOTICIAS RETROVISOR REVISTA ROCKOLA VIDEOS



Los Planetas: Modestia aparte



Objeto de deseo: Vic Chesnutt

Lo que son las cosas, Vic Chesnutt se marcha al otro barrio, y sus discos comienzan a cotizar al alza, como el doble en diez pulgadas que nos presenta este mes Vicente Fabuel...

Mayo 2 2010 / No hay comentarios / Leer más



Operación Rescate: El Niño Gusano

ÚLTIMAS NOTICIAS

2 Mayo, 2010
Se subasta la letra de 'A Day in the Life', de John Lennon

2 Mayo, 2010
Lichis crea su propio sello, Felicidad Producciones

2 Mayo, 2010
'No pidas perdón', Mala Rodríguez

2 Mayo, 2010
Sidonie estrena blog

2 Mayo, 2010
Concierto de Dead Weather en MySpace

2 Mayo, 2010
Objeto de deseo: Vic Chesnutt

2 Mayo, 2010
Operación Rescate: El Niño Gusano

1 Mayo, 2010
'Drunk Girl', de LCD Soundsystem

1 Mayo, 2010
John Petrucci visita Bilbao en una "masterclass"

1 Mayo, 2010
Brandon Flowers debuta

Publicidad



Cibelle

Presenta en directo su nuevo disco

Madrid - 18 Mayo, Sala Heineken
Barcelona - 19 Mayo, Sala Apolo

INTERNET

Concierto de Dead Weather en MySpace

Mañana lunes (3 de mayo), Dead Weather interpretará en concierto, desde la sede de Third Man Records, "Sea of Cowards", su segundo álbum, que se...

May 2 2010 / Comentarios desactivados / Leer más

ESPAÑA

Sidonie estrena blog

Sidonie ha puesto en marcha un nuevo blog. Con...

<http://www.badok.info>

